



IKASLEAREN IRAKASKUNTZA- IKASKETA PROZESUAN IKASTURTEA ERREPIKATZEAK DUEN ERAGINA



ISEI-IVEI

IRAKAS SISI LARIA LDUALU
ETA IKPPTZKO FRAKZINDIA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
L' NIVEL GAZÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA UNIBERTSITATE
ETA IKETZETA GARA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

2009ko Apirila



Egilea: Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (ISEI-IVEI)

Ikerketaren egilea: Amaia Arregi Martínez
Paz Martínez Fernández de Larrinoa
Alicia Sainz Martínez
José Ramón Ugarriza Ozerin

Aholkularitza eta gainbegiratzea: Eduardo Ubieta Muñuzuri

AURKIBIDEA

I.	SARRERA	5
II.	IKERKETAREN HELBURUAK ETA METODOLOGIA	9
	- Azterketaren lagina	
	- Tresnak	
	- Aplikazioaren ezaugarriak	
III.	GAIAREN EGOERA	
A.	Nazioartean ikasturtea errepikatzearekin lotutako ikerketak:	17
	• Amerikako Estatu Batuak	
	• Quebec	
	• Europa	
	• Espainiako estatua	
B.	Ikasturtea gainditzearekin lotura duten hezkuntza-arloko politikak.	25
	1. Europar Batasuneko derrigorrezko hezkuntzan ikasturtea errepikatzea	
	2. 2010. urterako Europako helburuak	
	3. Estatuko legegintzako testuingurua	
	4. Euskadiko curriculumaren legegintzako testuingurua	
C.	Estatu mailan eta Euskadin ikasturtea errepikatu duten ikasleen tasak.	30
	1. Egokitasun-tasak.	
	2. Errepikatu dutenen proportzioa.	
	3. Euskadiko errepikatze-tasen bilakaera	
D.	Estandarizatutako ebaluazioetan errepikatu duten ikasleen emaitzak Euskadin	39
	1. Nazioarteko ebaluazioak: PISA proiektua eta TIMSS	
	2. Estatuko eta Euskadiko beste ebaluazio batzuk	
IV.	IKERKETAREN ONDORIO OROKORRAK	49
	- Euskadiko Hezkuntza Sisteman Gaiak duen Egoeran oinarritutakoak.	
	- Galde-sortetan bildutako iritzien azterketan oinarritutakoak	
	- TIMSS 2007 probako datuen azterketan oinarritutakoak	
V.	ERANSKINAK:	
I.	eranskina. Errendimendua TIMSS 2007an eta ikasgelako ebaluazioetan	77
	1. TIMSS 2007. Laginaren ezaugarriak	
	2. TIMSS 2007ko batez besteko puntuazioak	
	• Egoera akademikoa eta TIMSS 2007ren emaitzak	
	• Ikasleen errendimendua taldeko errepikatzailen ehunekoaren arabera	
	• Emaitzak egoera akademikoaren eta sexuaren arabera	
	• Egoera akademikoa eta errendimendua TIMSS mailen arabera	
	• Ikasgelako kalifikazioak eta TIMSS 2007ren puntuazioak	
II.	eranskina. Ikasketaburuaren galde-sortaren deskribapen-azterketa	105
III.	eranskina. Ikasleen galde-sotarekin deskribapen-azterketa	119
IV.	eranskina. Ikaslearen galde-sorta	145
V.	eranskina. Ikasketaburuarentzarako galde-sorta	153
VI.	eranskina. TIMSS ebaluazioaren errendimendu mailen taula	161
VII.	eranskina. Erreferentzia bibliografikoak	163

Gure esker ona agertu nahi diegu TIMSS 2007 nazioarteko ebaluazioa aplikatzen parte hartu duten eta eragozpenik gabe honekin batera aurkezten dizuegun txostena garatzea ahalbidetu duen galdetegia bete duten DHBko 2. mailako zentroetako Ikasketa Buruzagitzei eta ikasleei.

I. SARRERA

Ikasturtea errepikatzeko edo hurrengora igotzeko erabakia hezkuntza-arloan gori-gori dagoen gaia da. Ondorio garrantzitsuak dituen apustua da; hezkuntza-politikaren inguruko erabakiak hartzen dituzten pertsonentzat edo ikaskuntza espero den erritmoaren arabera egiten ez duten ikasleei zuzeneko erantzuna eman behar dietenentzat, izan ere, ikasleen eskolako ibilbidea zein ibilbide pertsonala neurri batean edo bestean baldintza daiteke.

Ikasturtea errepikatzea eskola erakunde sozial gisa ezarri zutenetik indarrean dagoen aukera da; hau da, helburu eta gaitasun jakin batzuk esleitzen dizkieten mailak finkatzen diren unetik. Maila horiek, helburu jakin batzuk lortzea finkatzeaz gain, zehaztutako helburu horiek erdiesten ez dituztenentzat oztopo bihurtu daitezke. Irakaskuntzan programa uniformeak antolatzen Britainia Handian hasi ziren XVI. mendean; Estatu Batuetan XIX. mendearen hasieran ezarri zuten, eta Kanadan (Quebec) XX. mendearen hasieran¹. Espainiako estatuan, 50eko hamarkadan hasi ziren eskola unitarioak helburu eta abilezia maila ezberdineko eskola graduatu bihurtzen.

Ikasturtea errepikatzea herrialde ugarian ohiko neurria den arren, hezitzaileak, politikariak eta familiak arduratuta daude horren onuraren inguruan, eta eztabaida sortu dute errendimendu baxuko ikasleei ikasturtea errepikaraztea egokia ote den ala ez erabakitzeko. Errepikatzearen aldekoek argudiatzen dutenez, errendimendu baxuko ikasleak mailaz igotzeak prestatuta ez dauden hezkuntza-egoerara bidaltzea eragin ohi du. Lehen ikasturteak errepikatzea ikasketarako gaitasuna errazteko eta autoestimua handitzeko pizgarria dela uste dute, oinarrizko gaitasunak hobetzen baitira; goi mailako ikasturteetan, ordea, lan akademikoarekiko arduratsukoak bihurtzen lagun diezaieke ikasleei.

Neurri horren aurka daudenek ikerkuntzako urte ugarian agerian geratu denez, ikasturteak errepikatzeak ikasleei akademikoki edo sozialki ez diela laguntzen erakusten duten ebidentziak aipatzen dituzte. Duela zenbait hamarkadatik, ikasturtea errepikatzearen inguruko ikerketa zabala dago (batez ere, Estatu Batuetan eta Kanadako eremu anglofonoan; horien ondoren, Europan beste batzuk egin zituzten) eta hausnarketa haiek babesten dituzte, ikerketa enpirikoko elementuak erabilia. Ikerketa gutxi erakusten du ikasturtea errepikatzeak abantailak dituela eta ia aho batez aipatzen dituzte eragin negatiboak, hurrengo kapituluan xehetasun gehiagoz ikusiko dugun moduan.

Hezkuntzari buruzko begirada sakonagoak agerian uzten du herrialde garatuetan ikasturtea errepikatzea, era batean edo bestean, ikasketetan porrot egin duten ikasleekin erabili izan dela tradizioz. Oro har, ikasturtea errepikatzea egoera ugariaren aurreko konponbide moduan erabiltzen da; eta gaur egun, egoera horiei “*eskola-porrota*” deitzen zaie. Neurri hori, gehienetan, laguntza edo esku-hartze gehigarririk gabe eskaini ohi da; hori dela eta, oinarrizko ikaskuntzetan porrota jasan duen ikaslea porrot egin zuen aurreko ikasturtekoaren oso antzekoa den ingurune akademikoan kokatu ohi da. Gainera, faktore berria gehitu behar diogu, talde berrira egokitu beharrak eragiten dion egokitzapen pertsonalarekin lotuta, eta talde sozialaren aldaketak ekar ditzakeen ondorio emozionalak biltzen dituena.

Egile ugariaren ustez, eskola-porrota eta ikasturtea errepikatzea zalantzarik gabe lotuta daude; “... *eragileen (irakasleak, familiak eta ikasleak) ustez, oro har, porrota benetan burututa geratzen da errepikatzea erabakitzen denean; eskola-porrotaren zantzu nabarmena dela esan dezakegu*” (Hutmacher, 1993)².

Eskola-porrota eta errepikatzea eskola uztearekin lotzen denean ere nolabaiteko adostasuna dagoela esan dezakegu. Europar Batasunaren kasuan, errepikatzen duten ikasleen ehunekoa eta oinarrizko titulazioa lortu gabe eskola uztearen inguruko ehunekoa eskola-porrotaren adierazleak dira esate baterako.

¹ Louisette Pouliot et Pierre Potvin, «La puce à l'oreille au sujet du redoublement» Vie pédagogique, n° 116, septembre-octobre 2000

² Hutmacher (1993): “Quand la réalité résiste à la lutte contre l'échec scolaire”

Eskola-porrotaren kontzeptua eta horren definizioa desberdina da mutilaren, nesken edo gaztearen garapena edo erakundearen arauaren erreferentzia azpimarratu nahi izatearen arabera. Ikasturtea errepikatzeke joerarik ez duten herrialdeetan, ordea, honela definitzen dute eskola-porrotak: "... *garapen pertsonalaren gabezia edo norberaren aurrerapenaren geldialdia*"; aldiz, gainerako tokietan, eskola-porrotak honela definitzen dute "... *ikasturtea errepikatzea, ziurtagiririk gabe amaitzea edo ikasketak uztea*"³.

Europako estatu gehienetan, bi nozio horiek praktikan batera gertatzen dira (norberaren garapena eta erakunde mailako araua); hori dela eta, definitzea zailagoa da, eta are gehiago fenomeno horri lotutako aldagai ugari dagoela kontuan hartzen badugu. Edonola ere, eta aukeratutako interpretazio-paradigma edozein izanda ere, beti erakusten du hezkuntza-sistemak aukera-berdintasuna lortuko duten neurriak garatzeko ezintasuna duela.

ELGaren ustez, hiru faseko prozesua da eskola-porrotak: lehen fasea ikaslearen errendimendua batez bestekoa baino baxuagoa denean eta ikasturteren bat errepikatu behar duenean gertatu ohi da; bigarrena, aldiz, derrigorrezko hezkuntza amaitu aurretik ikasketak uztean gertatu ohi da, eta hirugarrena, eskolako garaian lortu behar zituzten oinarriko ezagutzak ez dituzten gazteek laneko bizitzan txertatzean dituzten zailtasunetan geratu ohi da agerian.⁴

Eskola-porrotaren ondorioak hainbat alderdi kontuan hartuta aztertzen dira; horien artean, hezkuntza-sistementzat porrot-fenomenoak ekarri ohi duen finantza-karga ere aintzat hartzen da. Zenbait herrialdek (Frantziak edo Belgikak, esate baterako) egindako estimazioen arabera, errepikatzerik eta eskola uzterik egongo ez balitz, hezkuntza-gastua % 30 eta % 10 artean (hurrenez hurren) gutxitu ahalko litzateke (Eurydice, 1994). Espainiako estatuan egindako kalkuluen arabera, DBH errepikatzea Hezkuntzara bideratutako aurrekontuen 1.500 milioi euroren baliokidea da urtean (Hezkuntza Ministerioa).⁵ Estatu Batuen kasuan, ikasturtea errepikatzeak 10 bilioi dolarreko gastua eragin ohi du herrialdean; hau da, prestakuntza hobetzeko eta errepikatu beharra desagerrarazteko beharko litzatekeen kostua baino handiagoa (McCollum et al. 1999)⁶.

Era berean, eskola-porrotak izan ohi dituen gizarte-ondorioak ere aztertu dituzte. EURIDYCE (1993)⁷ txostenak agerian uzten duenez, garatutako herrialdeetan arrakasta akademikoa duten, prestakuntza ona duten eta lan-munduan txertatzeko segurtasuna dutelako *pribilegiatuak* diren ikasleen eta porrot egin duten edo *baztertuta* dauden, eta ordaindutako laneko jarduerara sartzeko zailtasun handiak izango dituzten ikasleen artean arraila dago. Horrez gain, kalitateko hezkuntza gizartean guztiek parte hartuko dutela bermatzeko adinakoa den prestakuntza pertsonalaren mailarekin bateratzea zaila dela erakusten du.

Ikerketa gehienek emaitzak hobetzeko ikasturtea errepikatzea ez dela eragingarria bermatzen dutela dirudien arren, hezkuntza-sistema ugarian errotuta dagoen ohitura da oraindik ere. Quebeceko Hezkuntza Ministerioak egindako txostenak neurri horrek indarrean jarraitzeko dauden arrazoi batzuk azaltzen ditu⁸. Alde batetik, iritzi publikoak presioa egiten du politikoengan ebaluaziorako neurri zorrotzak ezar ditzaten; bestalde, emaitza altuak lortu eta ikasgeletan taldeak ahalik eta modurik homogeenoean mantendu nahi dituzte. Era beren, irakasleen sinesmenek eragin handia dute neurri hori mantentzeko garaian. Irakasleen artean, oso orokorra da etorkizuneko porrotak ekidingo duten heldutasuna lortzen eta oinarriko gaitasunak garatzen ikasleei laguntzeko ikasturtea errepikatzeak ondorio positiboak dituela dioten sinesmen kolektiboa, nahiz eta ikasleak ikasturtea gainditu izan balu gertatuko zatekeenaren inguruko konstantziarik ez izan.

³ Riviere, R. (1991): «L'échec scolaire est-il une fatalité» Editions Hatier. Paris.

⁴ Marchesi, A. eta Hernandez Gil, C (koord.) (2003): "El fracaso escolar. Una perspectiva internacional. Cap. 2 "El informe de la OCDE sobre el fracaso escolar". ELGA (1998) Alianza ensayo. Madrid.

⁵ Oscar Herrero. Magisterio Español aldizkaritik ateratakoa (2007/03/15ean kontsultatutakoa).

⁶ McCollum, P.A. Cortez, O.H., Maroey and F. Montes. (1999) Failing our children: Finding alternatives to in-grade retention. San Antonio, TX: Intercultural Development Research Association

⁷ EURYDICE (1993): Exclusión social, fracaso escolar: los retos de la democracia en la comunidad europea.

⁸ Education Québec «Ouvrir toutes les portes de la réussite. Redoublement: mythes, croyances et solutions de remplacement» DASSC, Septembre 2003.

Hausnarketa horiek guztiek agerian uzten dute ikasturtea errepikatze gaia aztertze gaia kontuan hartu beharreko funtsezko gaia, benetan, eskola-porrotaren egoera dela, hori baitago oinarri-oinarrian errepikatze gaia aukera mahaigaineratzen denean. Hezkuntza-sistemaren erantzunak, egiazki, eskola-porroteko egoerei eman beharreko erantzuna izan beharko luke; hori dela eta, erantzun hori ezin da proposatu honelako dilema soil eta alternatibo gisa: errepikatzea komeni den ala ez, edo mailaz igo beharko litzatekeen ala ez. Eskola-porrota jasan duten ikasleei behar bezalako erantzuna emateko, hainbat ideia indartu beharra dago; besteak beste, hauek:

- Modu eragingarrian jarduteko beharrezko oinarritzko gaitasunak zein diren identifikatu beharra, bai gaur egun, bai ikasleen etorkizuneko bizitzan.
- Ikasle bakoitzaren oinarritzko prestakuntza bermatzeko hezkuntza-sistemara egokitu beharra. Izan ere, ez dugu ahaztu behar gizartea gero eta konplexuagoa dela bertako aldaketa bizkorak eta sortzen diren prestakuntza-arloko eskaera berriak direla eta.
- Promozio-politikei esker, ikasleek eskolaren ondoren bizitzan aurrera egitea ahalbidetuko dieten oinarritzko hezkuntza-helburuak erdiesteko beharrezko abileziak jasoko dituztela ulertzea.
- Ikasturtea errepikatzea zein automatikoki mailaz igotzea, beste neurri gehigarririk gabe, ez dira nahikoa oinarritzko ikasketetan porrot egin duten ikasleei modu eragingarrian laguntzeko. Seguru asko, beharrezkoak izango dira beste neurri gehigarri batzuk. Neurri horietan, hezkuntza-sistema errealitatera eta ikasle bakoitzaren beharretara egokitzeak oinarritzko rola betetzen du.

Hitz gutxitan esanda, eskolako porrotaren eta arrakastaren inguruko hausnarketa berritzailea egiten hasi beharko genuke. Itxuraz, ikasturtea errepikatzea eta automatikoki mailaz igotzea ez dira erantzun egokiak besterik gabe ikaslearen errendimendu baxua hobetzeko. Oinarritzko gaitasunak zein diren ikertzea eta hezkuntza-sistemak gaitasun horiei nola erantzun beharko liekeen aztertzea arazo horiei erantzuna emateko hausnarketa-bidea izan daiteke.

Kontzeptuen definizioa

Aurkeztuko dituzten ikerketetan eta sarreran errealitate bereko antzeko alderdiak lantzeko hainbat kontzeptu ageri da: ikaslea mailaz igotzea, ikasturtea errepikatzea, adinaren arabera egokitasuna eta abar. Hitz bakoitzak zer esan nahi duen aurretik zehaztea komeni da; izan ere, ikerketa osoan erabiliko dira deskribapenari dagokion zatian (datuak eta tasak) nahiz emaitzen azterketan.

— Egokitasun-tasa

Adinaren arabera dagokion ikasturtean matrikulatuta dauden ikasleen ehunekoa aipatzen du; hau da, sekula errepikatu ez dutenena.

— Promozio soziala edo automatikoa

Ikaslearen errendimendua baxua izan arren eta lortutako kalifikazioek ez badiote gainditzea ahalbidetzen, hurrengo mailara pasatuko da automatikoki.

— Ikasturtea errepikatzea

Hezkuntza maila berean ikasturte akademiko bat baino gehiago eman duen ikaslearen ingurukoa da.

— Bikaintasun kontzeptua hezkuntzan

Sistemaren ebaluazioetan ebaluatutako arloari dagokion errendimenduko mailarik altuenean kokatuta dauden ikasleen ehunekoa.

— Kontuen errendimendua

Sistema horren arabera, ikasleek, eskolek eta barrutiek egindako kanpoko eskaerak errendimendu akademikoa bete behar dute ezarritako edo finkatutako estandar jakin batzuen arabera. Horren helburua bikaintasuna bilatzea da.

IKERKETAREN HELBURUAK ETA METODOLOGIA

II. IKERKETAREN HELBURUAK

Hauek dira **helburu nagusiak**:

1. Nazioartean, Estatu mailan eta Euskadiko Hezkuntza Sistemaren derrigorrezko hezkuntzan ikasturtea errepikatzeak biltzen duen panorama deskribatzea.
2. Ikasle batek ikasturtea errepikatzearekin lotuta hezkuntza-zentroetan erabiltzen dituzten estrategiak deskribatzea.
3. Hezkuntza-prozesuan ikasturtea errepikatzea egokian den edo ez balioestea; zehazki:
 - ikaslearen ikaskuntza akademikoa berreskuratzeko duen balioa eta autoestimua akademikoan eta sozialean duen eragina.
 - zentroaren antolaketan duen eragina (talde homogeneoak)

Helburu horiek helburu operatibo hauetan zehatz ditzakegu:

- Errepikatu duen ikaslearen eta antzeko ezaugarriak dituen eta mailaz igo den ikaslearen arteko epe luzeko emaitzak alderatuko dituzten ikerketen eta azterketen emaitzak ezagutaraztea.
- Ikasturtea errepikatu duten ikasleen tasa ezagutzea eta hezkuntza-sistemen arteko egoera alderatzea.
- TIMSS 2007 nazioarteko proba estandarizatuko errendimendua alderatzea ikasturtea errepikatu duten ikasleen eta adinaren arabera ondo kokatuta daudenen artean.
- Bi unetan zentroetan garatutako estrategiak deskribatzea: ikasturtea errepikatu beharra ekiditeko hartutako neurriak eta *a posteriori* ikasturtea errepikatzen ari den ikaslearentzat ematen direnak.
- Zentroek ikasturtea errepikatzeari ematen dioten balioa deskribatzea ikaslea eta curriculum antolatzeko elementu gisa eta ikaslearen ikaskuntza berreskuratzeko elementu gisa.
- Ikasleak ikasturtea errepikatzearen inguruan duen pertzepzioa eta ikuspegi emozionalean horrek dituen ondorioak deskribatzea: autokontzeptua eta autoestimua.
- Zentroetan hausnarketa egiten laguntzea, gai horren inguruko hobekuntzako neurriak ezartzeko.

METODOLOGIA

Metodologia mistoa, kuantitatiboa eta kualitatiboa erabili ohi dira. Nazioarteko beste hezkuntza-errealitate batzuetan gai horren inguruan egindako ikerketak biltzen dituen **ikerketak bibliografiko**ekin hasi ohi da; batez ere, Amerikakoak eta Europakoak. Estatu mailan eta Euskadiko Hezkuntza Sistemaren horrekin lotuta garatutako hezkuntza-politikak eta testuinguru legala ere jasotzen ditu.

Proposatutako helburu batzuk **datu kuantitatiboan eta modu objektiboan erraz har daitezkeen datuen** bidez lantzen dira batez ere; horiek dira, esate baterako, PISA eta TIMSS proba estandarizatueta lortutako puntuazioak, ikasle errepikatzailaren tasak, lortutako kalifikazio akademikokoak eta abar. Datu horiei esker, ikasturteren bat errepikatu duten ikasleen eta adinaren arabera behar bezala kokatuta daudenen errendimendua alderatu ahalko dugu gero. Gainera, errepikatze-tasen bilakaera aztertzea eta neurri hori aplikatzearen ondorio batzuk ateratzea ahalbidetzen dute.

Eskola-testuinguruarekin lotutako alderdi batzuk **azterketa kuantitatiboaren eta kualitatiboaren** bidez aztertzen dira ikastetxeetan garatutako estrategiak deskribatu ahal izateko. Estrategia horiek prebentziozkoak edota ikasturtea errepikatzearen alternatiboak izan daitezke. Era berean, neurri hori aukeratzaren denean *a posteriori* hartu ohi diren estrategiak ere aintzat hartzen ditu. Errepikatzeak, gainera, balio du zentroekin lotuta betetzen duen funtzioa eta ikaskuntza berreskuratzerekin lotuta horrek duen eragingarritasuna balioesteko ere.

- Azterketaren lagina**

Txosten hau egiteko prestatutako galdetegi espezifikoerantzun zien ikasleen kopurua 3.001 pertsonakoa izan zen. Euskadin ikasleek parte hartzeko ikasleen lagin hori nazioarteko erakundeak (IEA)⁹ aukeratu zuen ISEI-IVEIk emandako datuak eta baldintzak abiapuntutzat hartuta Euskadiko Hezkuntza Sistemaren ezaugarrien arabera.

Bete beharreko baldintza DBHko 2. mailako ikasle guztiak ordezkatu behar izatea zen. Euskadiko hezkuntza-sistemak, sareek eta hizkuntza-ereduek osatzen dituzten mailak kontuan hartuta prestatu zuten. Lagina prestatzeko, lehen etapan maila ugaritako zentroak hautatu zituzten, ausaz, zentro bakoitzeko ikasleen kopuruarekiko proportzionalak ziren probabilitateekin; bigarren etapan, IEAk ausaz aukeratu zuen azkenean proban parte hartuko zuen zentro bakoitzeko ikasgela.

Azken irizpide hori kontuan hartuta, TIMSS 2007 puntuazioen inguruko datuak aztertu dituzte. Azterketa aldatu egiten da kopurutan ikerketa hau osatzen duten gainerako kapituluaren azterketetan aintzat hartutako eta zentroetako mailak kontuan hartzen dituzten lagineko datuei dagokienez.

Hori dela eta, probak eta galdetegiak egiteko garaian TIMSS 2007 ebaluazioari dagokion DBHko 2. mailako ikasleek eta lagineko DHBko zentroetako ikasketen buruzagitzek parte hartu dute ikastetxe bakoitzeko ikaskuntza-irakaskuntza prozesuarekin lotura duen galdetegia betetz. Galdetegia, jarraian ikus daitekeen moduan, mailak kontuan hartuta banatzen da.

Lurraldeak	Ikastetxeak
Araba	13
Bizkaia	63
Gipuzkoa	36
GUZTIRA	112

Jabetza	Ikastetxeak
Publikoa	57
Hitzartua	55
GUZTIRA	112

Lagineko ikasleak		
	Kopuru	%
Egokitasun-egoeran	2.369	78,94
Ikasturteren bat errepikatu ikasleak	632	21,06
GUZTIRA	3.001	100

Hezkuntza Behar Bereziak dituzten, beren curriculum Curriculum Egokitzapenean bilduta dagoen eta TIMSS proba egitea erabaki zuten ikasleek ikerkuntzarako galdetegia betetzeko aukera zuten. Guztira, 60 ikasleek bete zuten galdetegia (ez da lagin adierazgarria). Hezkuntza Behar Bereziak dituzten lagineko ikasleen % 32,2 dago egokitasun-egoeran eta % 67,8k ikasturteren bat errepikatu du.

⁹ International Association for the Evaluation of Educational Achievement

- **Aplikazioan erabilitako tresnak**

- Euskadiko TIMSS 2007 lagineko zentroko zerrendak.
- Ikasleentzako galdetegi espezifikoak. Eskolako historiari, eta ikasturtea errepikatzearen ondorioari eta pertzepzioei buruzko galderak eta eragin emozionalak balioestea ahalbidetzen duten itemak biltzen ditu (auto-kontzeptua...). Ikus IV. eranskina.
- Zentroko Ikasketa Buruzagitzarako galdetegi espezifikoak. Errepikatzeko-irizpideen, proposatutako alternatibaren eta zentro bakoitzaren neurri horren inguruan egiten duen kudeaketaren inguruko galderak biltzen ditu. Ikus V. eranskina.
- TIMSS 2007 probaren emaitzak.

- **Aplikazioaren ezaugarriak**

Galdetegiak banatzeko, zentroek TIMSS 2007 nazioarteko ebaluazioan parte hartu behar zutela aprobetxatu zuten: horri esker, zentroen eta ikasleen lagin bera erabili genuen. DHBko zentroetako ikasketen buruzagitzari zuzendutako galdetegi ebaluazio hura aplikatu zuen pertsonak entregatu zuen betetzeko, eta jarraian jaso egin zuen. Ikasleek galdetegi espezifikoak bete zuten TIMSS 2007 ebaluazioa amaitu bezain laster.

GAIAREN EGOERA

III. GAIAREN EGOERA

Galde-sortaren Egoera osatzen duten ikasturtea errepikatzearen inguruko ikerketak eta azterketak hautatzeko garaian, irizpide hauek erabili dituzte:

- Ikerketen kalitatea. Nazioartean egiaztatuta eta bermatuta daudenak biltzen ditu.
- Denbora mailako gertutasuna. Lehentasuna eman zaie azkenekoei, balio tekniko bera baitute eta gaurkotasun handiagoa bermatzen baitute.
- Kultur mailako gertutasuna. Lehentasunez aukeratu dituzte kulturaren eta hezkuntza-sistemen garapenaren ikuspegitik gertu dauden testuinguruetan eta herrialdeetan egindako ikerketak.

A. Ikasturtea errepikatzearekin lotura duten ikerketak

➤ Amerikako Estatu Batuak

Azken 25 urteotan, AEBn ikasturtea errepikatzea oso ohikoa bihurtu da (nahiz eta eztabaidagarria ere baden), ikasleen errendimendu akademiko baxua konpondu ahal izateko (Abidin, Golladay&Howerton, 1971; McCoy&Reynolds, 1999; US Department of Commerce, Bureau of the Census, 1966, 1990). Ikasturtea urtero errepikatzen duten ikasleei dagokienez, % 5 eta % 10 artean izan ohi dira; hau da, urtean, 2,4 milioi haur baino gehiago.

Derrigorrezko eskolatzean gertatzen den errepikatze-tasa altu horrek lotura du hezkuntza-sisteman zentroetako *kontuen errendimenduari* eta ikasleek ikasturtea gainditu ahal izateko bete behar zituzten *mailari* eman zitzaion garrantziarekin; hezkuntza-politika hori Clinton presidente izan zen garaian zabaldu zuten batez ere. Zentroetako kontuen errendimenduaren eraginez, ikasleen errendimenduaren arabera neurtutakoa zati batean, hezkuntza-arloko profesional ugari pentsatu zuten promozio soziala (promozio automatikoa ere deitzen zaio) amaitzeaz zegoela eta ikasturtea errepikatzea errendimendu akademiko baxua zuten ikasleentzako ildo zela.

Gaur egun, ardura handia dago errepikatze-tasak handitu egin direlako; izan ere, hezkuntza-politikaren joera ikusita (legegintzari dagokionez), zentroetako kontuen errendimendua nabarmentzen ari dela eta ikasleen gaitasun mailak handitzen ari direla ematen du. Ikasleek, esate baterako, maila batetik bestera igarotzeko, irakurketa-gaitasuneko proba gainditu behar dute (AEBko Hezkuntza Saila, 1999).

Ikerketaren arloan, maila errepikatzeak izan ohi dituen ondorio akademikoak eta sozio-emozionalak aztertzen dituzten lan ugari dago. AEBko lehen ikerketak 1900. urtekoak dira, eta 1989. urtera arte, ikasleen errendimendua hobetzeko errepikapenak zuen eragingarritasunaren inguruko emaitzak askotarikoak ziren. Gai horren inguruan bildutako ikerketen inguruko hainbat berrikusketa egin dituzte. Horien artean, hiru nabarmendu behar ditugu: lehenengoa, Jacksonek 1975ean egin zuena; Holmes & Matthewsek 1984an egindakoa, eta azkena, Holmesek egindakoa, 1989koa. Horiez gain, aipatu beharrekoak dira berriagoak diren hauek ere: Shane R. Jimersonen berrikusketa-lana¹⁰ edo Shepardek eta Smithek urte berean egindakoa adibidez. Jarraian, berrikusketa nagusi horien laburpena ageri da.

1975ean, Jacksonek¹¹ aurkeztu zuen ebidentzien lehen ikuspegi orokor sistematikoa ikasturtea errepikatzeak zituen ondorioen inguruan. Eragin haiek ikerketetan ikusitakoak ziren. Berrikusketa hark 1911 eta 1973 artean argitaratutako 30 ikerketa biltzen zituen eta errendimendu baxua zuten ikasleek edo moldagabezia sozio-emozionala zuten ikasleek ikasturtea errepikatuta edo hurrengo mailara igarota probetxu handiagoa lortzen zuten aztertzea zuen xede. Ikerketak hiru taldetan banatu zituen, diseinu motaren arabera: naturalista, *“pre-post”* (aurrekoa-ondorengoa) eta esperimentalak. Jacksonek iradoki zuenez, posible zen ikasturtea errepikatzeak ikasleentzat nolabaiteko onura ekartzea, baina ikasturtea gainditzeak, itxuraz, are mesede handiagoak ekartzen zituen. Era berean, hau ondorioztatu zuen: *“... ez dago zailtasun akademiko*

¹⁰ Shane R. Jimerson. (2001) Meta-analysis of grade retention Research: implications for Practice in the 21st Century. University of California. School Psychology Review, 2001, 30. liburukia, 3. zk., 420-437. or.

¹¹ Jackson, G.B. (1975). The research evidence on the effects of grade retention. Review of Educational Research, 45. liburukia, 4. zk., 615-635. or.

larriak edo egokitzeko zailtasun handiak dituzten ikasleentzat ikasturtea errepikatzea mailaz pasatzea baino onuragarriagoa dela agerian uzten duen ebidentzia multzo fidagarriak" (627.or.). Gainera, ikasleei maila errepikarazten dieten hezkuntzako profesionalek neurri hori ebidentzia enpiriko baliozkorik gabe egiten dutela iradoki zuen, hau da, zailtasun akademikoak dituzten ikasleentzat esku-hartzearen estrategia hori zailtasun akademikoak edo egokitzeko zailtasunak dituzten ikasleek ikasturtea gainditzea baino mesedegarriagoa dela erakusten duen ebidentzia enpirikorik gabe.

la hamarkada bat geroago, 1984an, Holmesek eta Matthewsek¹² ikerketen meta-azterketa egin zuten Lehen eta Bigarren Hezkuntzako mailetan zeuden ikasleen kasuan maila errepikatzeak zituen eraginak aztertzeko. Azterketa horrek estatistikoki azpimarragarriak diren aldeak agerian utzi zituen, alderatzerako arlo guztietan mailaz igo diren ikasleen alde. Oro har, mailaren bat errepikatu zuten ikasleek errendimendu akademiko baxuagoa, auto-kontzeptu baxuagoa eta eskolarekiko zuten jarrera ez horren aldekoa erakusten zuten hurrengo mailara pasatu zirenekin alderatuta. Ondorioztatutakoaren arabera, ikasturtea errepikarazten jarraitzen duten hezkuntzako profesionalek, eragin potentzial negatiboak positiboak baino ugariago direla erakusten duen ebidentzia pilatua izan arren, ikasturtea errepikarazten jarraitzen dute. Era berean, hau aipatzen dute: "...errepikatzearen aldekoek frogatu behar dute beren planak eragingarriak direla erakusten duten arrazoi sinesgarriak daudela, porrot egin duten horrenbeste planen aurrean"¹³ (232. or.)

Shepardek eta Smithek¹⁴ 1989. urtean berriro berrikusi zituzten Holmesek aztertutako berrogeita hamalau ikerketak eta argi geratu zen ikasturtea errepikatzea ez zela eragingarria haien ustez; horrekin lotuta, baieztapen kategorikoak egin zituzten: lehenengoa: errepikatzeak ez du abantailarik ekartzen emaitzak hobetzeko edo egokitzapen pertsonalerako. Bigarrena: errepikatzeak lotura du eskola uztearekin. Hirugarrena: errepikatzeak ez du hobekuntzarik ekartzen epe luzera begira.

1989. urtean, Holmesek ikerketa haien beste berrikusketa bat egin zuen beste 19 ikerketa gehigarriekin batera; guztira, urte hartara arte argitaratutako kontrolatutako 63 ikerketa bildu zituen. 19 ikerketa gehigarri horiek ikasle errepikatzailen jarraipena biltzen dute eta koefiziente intelektualari eta errendimendu akademikoari dagokionez aurretik antzekoak diren ezaugarriak dituzten eta ikasturtea gainditu duten ikasleen taldeekin alderatzen ditu (proba estandarizatuak emaitzen bidez neurtuta). Holmesek egiaztatu zuenez, errepikatu zuten ikasleen batez besteko emaitzak promozioa izan zuten maila bereko gainerako ikasleenak baino nabarmen baxuagoak dira. Era berean, bilakaera negatiboa da afekzio-irizpide ia guztiak kontuan hartzen baditugu; gainera, askotan, irakasleek ikasle errepikatzailak gutxiesteko joera izan ohi dute.

Berrikusketa horiek ikasturtea errepikatzearen aldeko ebidentzia enpirikoen gabezia erakusten zuten arren, era berean, agerian uzten zituzten errepikatzearen inguruko ikerketetan zeuden zalantza metodologiko batzuk (alderatzeko taldeak ez ziren baliokideak, kontroleko taldearen gabezia zegoen eta abar). Dena den, azken hamarkadan, esparru horretan hobekuntza metodologiko nabarmena gertatu da; horri esker, aurreko ikerketetan baino homogeneoagoak diren alderatze-taldeak finkatu dituzte.

Berrikusketa sistematikorik eguneratuenak, Shane R. Jimerson¹⁵ egindakoak, 1990 eta 1999 urteen artean errepikatzearen inguruan argitaratutako ikerketak biltzen ditu. Ikerketa horiek irizpide zorrotzen arabera aukeratu zituen datuen interpretazioan okerrak ekiditeko. Bi kategoria finkatu zituen: errendimendu akademikoa eta egokitzapen sozio-emozionala. Errendimendu akademikoa neurtzeko, errendimenduko test estandarizatuak eta *arauaren arabera* erabili zituzten; aldiz, egokitzapen sozio-emozionaleko adierazleak heterogeneoagoak ziren (autoestimua, errendimenduko itxaropenak, portaera-arazoak eta abar).

¹²Holmes C.T. & Matthews K. M. (1984). The effects of Nonpromotion on Elementary and Junior High School pupils: A meta-Analysis. Review of Educational Research, 54. liburukia, 2. zk., 225-236. or.

¹³ Holmes C.T. (1986). A synthesis of research on nonpromotion: A five year follow-up. Paper presented at the annual meeting of the American Educational Research Association, San Francisco, CA. (ERIC Document Reproduction Service No. ED 269 165).

¹⁴ Shepard, L.A. & Smith, M.L.(1990). Synthesis of research on grade retention. Educational Leadership, 47 (8) 84-88.

¹⁵ Shane R. Jimerson. Op. Cit.

Horrekin lotuta, garrantzitsua da ikerketa horietako gehienen oinarria eskolatzegaraiko lehen urteetan ikasturtea errepikatu duten ikasleak direla, eta adin aurreratuagoko ikasleen (DBHko adinari dagokiona) kasuan errepikatzeak dituen eraginetara zuzendutako ikerketa gutxi dagoela.

➤ Quebec (Kanada)

Tradizioz, errepikatzea edo eskolako maila berean beste urtebete ematea ohikoa zen behar adinako maila lortzen ez zuten ikasleen artean. 60ko hamarkadaren hasieran, promozio automatikoko politikak hasi ziren garatzen Kanadan. Baina 80ko hamarkadaren hasieran, Ipar Amerikako influentzia zela eta, eta hezkuntzarloan bikaintasuneko helburuak erdiesteko helburuarekin, joera hori eten eta berriro hasi ziren oinarritzko gaietan ikasleek ezagutzak jaso zituztela egiaztatzeko azterketa formalak eta zorrotzak ezartzen.

90eko hamarkadaren hasieran, hezkuntza- eta gizarte-zirkuluetan alarma sortu zen eskola utzi zutenen ehuneko handia zela eta. Bigarren mailako Hezkuntzan gertatzen zen eskola-uzte horrek Lehen mailako Hezkuntzako aurreko ikasturteetan gertatzen zen atzerapenen pilaketarekin lotura zuzena zuela uste zen; hori zela eta, ekintza-planean dauden neurriak hartu zituzten (Chacun ses devoirs, 1992)¹⁶. Ardura hori beste ikerkuntza batzuen emaitzekin sendotu egin zen; Europan, Amerikan eta Kanadan egindako ikerketa batzuetan antzeko ondorioak atera zituzten: *“Errepikatzeak ez du eragin positiborik; ez da nahi bezain eragingarria eta, gainera, egile askoren arabera, nahi ez ditugun eraginak izan ditzake”*¹⁷.

Eskola-atzerapena desagerrarazteko neurri gisa errepikatzea komeni dela babesten duten ikerketa gutxien artean, Alexanderrek, Entwislek eta Dauberrek (1994) prestatutakoa aipa dezakegu; bertan, hiriko gizarte-egoera ahuleko ingurune sozialeko ikasleen kasuan, zenbaitetan, eskolarekiko eta emaitza hobeen aldeko jarrera hobetzen dela zehaztu zuten¹⁸.

Hezkuntza-eremuetan, errepikatzea eragiten duten kausek eskola-atzerapenarekin lotura zuzena uste dute. Ikasturtea errepikatzeak ikasleari aurreko ikasturtean jaso ez dituen ezagutzak biltzeko aukera eman beharko liokeela uste dute. Quebecoko Hezkuntza Ministerioak egindako ikerketan ageri diren zentzuen % 95ek uste du, gainera, ikasleari heldutasun handiagoa lortzeko aukera emango liokeela errepikatzeak. Nabarmendu beharreko beste arrazoi batzuen artean, ikasleei arrakastako egoera ezagutzeko aukera ematea eta, horri esker, epe luzerako porrota ekiditea aipatzen dute.

Lehen Hezkuntzako adinean ikasturtea errepikatzeako prozesuan sartuta daudenen sinesmenei eta ohiturei buruz egindako ikerketak¹⁹ agerian uzten duenez, errepikatzaileek, gehienetan, ikasturtea egin zutenean lortutako emaitzak baino hobekiak lortzen dituzte, baina emaitza horiek ez dira egonkorrak izaten denborari dagokionez eta berriro ere jaitsi egiten dira. Ikasturtea errepikatu eta handik bi urtera, errepikatzaileen emaitzak mailaz igotako eta “zailtasunak dituen” ikasleentzat bezain ahulak izaten dira, nahiz eta errepikatzailea ikasturtea gainditu zuena baino urtebete zaharragoa izan.

Ikerketa horretan, era berean, Lehen Hezkuntza errepikatzeak ikasleak eskola utziko duela aurrez ikusteko balio duela baieztatzen da. Eskola uzteko arriskua handiagoa da etapa hori amaitu ez duten ikasleen kasuan; gainera, Lehen Hezkuntza errepikatu eta 13 urterekin Bigarren Hezkuntzara igaro direnen erdiek ikasketak uzten dituela estimatu dute; hau da, dagokion adinean, 12 urterekin, etapa hori ekin dioten ikasleek baino lau aldiz gehiagok. MEQen argitalpenaren arabera (1991)²⁰, Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan ikasketak utzi dituzten ikasleen % 97 aurretik errepikatu duten ikasleak dira eta eskola-atzerapeneko urtebete edo gehiago dute.

¹⁶ Ministère de l'Éducation du Québec. 1992. Chacun ses devoirs: plan d'action sur la réussite éducative.

¹⁷ Ministère de l'Éducation du Québec. (1994). Les pratiques du redoublement à l'école primaire: document du travail.

¹⁸ Education Québec (2003) «Ouvrir toutes les portes de la réussite. Redoublement: mythes, croyances et solutions de remplacement» DASSC. www.meq.gouv.qc.ca (2007/02/13an kontsultatutakoa).

¹⁹ Langevin L. et Dubé F.(1997). «Croyances et pratiques d'intervenants en regard du redoublement au primaire» Extrait du document. UQAM. Recogido en Ouvrir toutes les portes de la réussite. Education Québec. Septembre 2003.

²⁰ Ministère de l'Éducation de Québec. (1991). La réussite scolaire et la question de l'abandon des études: un résumé des plus récentes données disponibles.

1996. urtean, Quebecoko irakasleen sinesmenen inguruko ikerketa egin zuten; usteak 230 irakaslek betetako galdetegian bildu zituzten (Pouliot, 1998)²¹. Irakasle askoren ustez, errepikatzeak ikasle heldugabeei laguntzen die; horrek ez du autoestimuan eraginik izaten, ez du zailtasunik eragiten portaeran eta ez dio etiketa iraunkorrik jartzen. Dena den, aipatu beharrekoa da irakasle horiek iritzi desberdinak dituztela ikasle zaharragoen kasuan errepikatzeak duen eragina zenbatesteko garaian (hau da, Lehen Hezkuntzako eta DBHko azken mailetakoko ikasleei dagokienez). Profesional horien % 64k erantzun zuenez, ez zuten errepikatzeak dituen eraginaren inguruko ikerketarik ezagutzen. Horren inguruko ikerketaren bateko emaitzen berri zuten irakasleek nabarmen utzi zuten agerian ikaslearen autoestimua sufritu egiten zuela beren ustez, eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloan errepikatzeak ikasleari heltzen laguntzeko duen eragin positiboa zalantzan jarri zuten.

➤ Europa

Ikasturtea errepikatzearen inguruko ikerketa enpirikoaren arloan Europa mailan ikertzailerik ospetsuenetako bat Marcel Crahay da. Egindako ikerketen artean, bereziki aipatu beharrekoa da eskola-atzerapenen tasen inguruan ²² egin zuena hiru herrialde frankofonotan: Belgika, Frantzia eta Geneva kantoia. Aztertzen duen gaietako bat irakasleek errepikatzearen eragin kognitiboaren inguruan duten adierazpen mentala eta horren gizarte eta afekzio mailako kalteak dira. Horrez gain, errendimenduaren inguruko nazioarteko ikerketak jasotzen ditu; horiei esker, errepikatzea kendu dutenen eta oraindik joera horrekin aurrera jarraitzen duten irakaskuntza-sistemen eragingarritasuna aldera dezakegu. Errepikatzea bertutea den sinesten duten ala ez galdetzean, erantzuna ezezko biribila da; izan ere, ez dio ikasleari errendimendua hobetzen laguntzen.

1996. urtean, Crahay²³ egindako ikerketen inguruko meta-azterketa egin zuen eta bertan bildu zituen Holmesen ikerketak. Azterketa horretan, ikasturtea errepikatu duten ikasleek eta mailaz igo diren ikasleek taldeek izandako bilakaera alderatzen du. Bi taldeak aurrez ezaugarri baliokideak zituztelako aukeratu zituen. Kognizio-aurrerapenak zein eskolarekiko, absentismoarekiko, gizarteratzearekiko, oreka emozionalarekiko eta abarreko jarrerak aztertu zituen. Taula honetan ageri dira azterketa horien emaitzak efektu estandarra kontuan hartuta.

Taldearen arteko aldeak (hasieran alderagarriak) ikasturtea gainditu duten eta errepikatu duten ikaslearen artean.²⁴

Neurtutako irizpideak	Ikerketa kopurua	Errepikatzearen efektuaren eragina (Desbideratze tipikoaren zatikiak mailaz igo diren ikaslearen emaitzekin alderatuta)*
Eskolako errendimendua	47	-0,31
Ama-hizkuntzako emaitzak	18	-0,33
Irakurketako emaitzak	34	-0,30
Matematikako emaitzak	31	-0,25
Zientzietako emaitzak	3	-0,37
Irakaslearen proben emaitzak	3	-0,78
Erreakzio afektibo orokorrak	27	-0,21
Gizarte-garapena	27	-0,21
Ongizate emozionala	10	-0,12
Portaerarekin lotutako jarrerak	10	-0,23
Autokontzeptua	11	+0,06
Eskolarekiko jarrerak	10	-0,18
Eskola-asistentzia	5	-0,22
Efektu orokorra	63	-0,26

ITURRIA: Holmes, 1990 (Crahayk egokitutakoa, 1996)

* Ikasle errepikatzaileen eta ez errepikatzaileen artean eskuragarri dauden ikerketen bidez ikusitako eragin estandarren edo batez besteko diferentziaren arabera neurtu eta errepikatzen ez dutenen taldeko puntuazioen desbideratze tipikoarekin neurtutakoa.

²¹ Pouliot, L. (1.998). Les croyances au sujet du redoublement chez des enseignants de la maternelle et du primaire. Extrait du document de Louise Langevin et Fance Dubé. Op. cit.

²² Marcel Crahay. «Peut-on lutter contre l'échec scolaire?» Éditions De Boeck Université (3eme. édition 2.007). Bruxelles.

²³ Crahay M. 1.996. Op.cit.

²⁴ Grisay Aletta. 2003: Repetir curso o adecuar el currículo. En "El fracaso escolar: una perspectiva internacional" Marchesi A. Hernandez Gil C. Alianza Editorial. Madrid. 2003.

Eskolako jabetzeak neurtzen dituzten irizpideetan ikus daiteken moduan, errepikatzailen batez besteko emaitzak mailaz igo direnenak baino baxuagoak dira. Desbideratzerik altuena (-0,78) irakasleek ebaluatutako probetan ikus daiteke; hori dela eta, errepikatzailen errendimendua objektiboki gutxitzeaz gain, irakasleek errendimendu hori gutxiesteko joera dutela esan dezakegu.

Gainera, ikerketa osagarriak ere egin dituzte; horretarako, errepikatzearen hurrengo eskolako urteetan, hainbat aldiz, erregistratu dituzte errepikatzailen eta mailaz igo direnen taldeen emaitzak bi alderaketa mota egiteko:

- Eskolako maila berean alderatzea (*ikasturte akademiko beraren amaieran bi taldeen arteko emaitzak ebaluatzen dira; kasu horretan, errepikatzailerek ikasturtea gainditu dutenek baino urtebete gehiago dute*).
- Adin berean egindako alderaketa (*adin bereko bi talderen arteko emaitzak ebaluatzen dira; bi talde horiek, ordea, ikasturte desberdinetan daude: errepikatu dutenak eta mailaz igo direnak*)

Hurrengo taulan ageri dira alderaketa horiek; mailaz igo diren ikasleek ikasturtea errepikatu dutenek baino nabarmen bizkorrago egin dutela aurrera ikus daiteke. Gainera, alde hori handitu egiten da urteen poderioz.

Adin konstantean, errepikatu duten eta mailaz igo diren ikasleen arteko alderaketan oinarritutako ikerketak.

	Urtebete geroago	2 urte geroago	3 urte geroago	Handik 3 urtera baino gehiagora
Ikerketa kopurua	28	5	3	3
Errepikatzailen batez besteko emaitzak (mailaz igo direnen emaitzarekin alderatuta, desbideratze tipikoaren zatikietan)	-0,41	-0,64	-0,74	-0,88

ITURRIA: Holmes, 1990 (Crahayk egokitutakoa, 1996)

1984. urtean Belgikan egindako ikerketa batek herrialde hartako hiru hezkuntza-sistemak aztertu zituen. Horrekin lotuta, esan beharrekoa da Belgika²⁵ herrialde federala dela eta autonomia handia duela eskola-sistema hiru hizkuntza-komunitateetan (alemana, nederlandarra eta frantsesa) antolatzen. Lehen bietan, promozio automatikoa erabiltzen dute eta nazio baitako zein nazioarteko ebaluazioetako emaitzetan postu hobeak lortzen dituzte; hirugarren sistemak, aldiz, errepikatzearen aldekoagoak, ebaluazio horietan emaitza okerragoak izan ditu. Ikerketa horrek, era berean, herrialde ugarietako nazioarteko probetako emaitzak aztertu zituen eta ikasturtea errepikatzeari uko egin dieten eskola-sistemek ikasleen maila behar bezala berdintzen dutela dioten baieztapen estatistikorik ez dagoela ondorioztatu zuen.

Frantzian ere, ikasturtea errepikatzea eztabaidarako gai garrantzitsua da. Argitaratu berri duten ikerketa batek²⁶ adierazten duenez, errepikapena gainbeheran dagoen joera den arren, oraindik toki askotan aplikatzen duten neurria da (derrigorrezko hezkuntzaren amaieran, 1980. urtean errepikatze-tasa % 37,5koa zen; aldiz, 2000. urtean, % 19,5koa zen). Ikerketa horren ondorioetan ikus daitekeenez, errepikapena ez da eragingarria errendimendua hobetzeko; ikasturtea errepikatu duten ikasleek bereziki baxua den errendimendua izaten dute adinaren arabera ondo kokatuta daudenen errendimenduari alderatuta. Gainera, estigmatizatu egiten duela uste dute; izan ere, errepikatzailen izatea irakasleak egiten duen ebaluazioan modu inplizituan txertatutako osagai negatiboa izaten da eta, hori dela eta, ikasleak gogo gutxiago izaten du prestakuntza profesionala bideratzeko garaian. Ondorio horiek guztiak CM2 estandarizatutako ebaluazioaren aldi berean egindako ikerketan daude bilduta (Gilbert et al. 2004).²⁷

Ikerketa horrek alderdi berritzaile bat txertatu zuen eztabaidan: ikasturtea errepikatzeak eragin dezakeen zulentasun-gabezia. Izan ere, baliteke ikasle batek gelan zailtasunak izatea, baina ez beste batean, eta gainera, estandarizatutako ebaluazioan puntuazio hobeak lor dezake ikasgelan egindakoan baino. Ideia hori beste ikerketa batzuetan ere landu dute, eta horien artean, aipatu beharrekoa da Liejako Unibertsitatean

²⁵ Seibel, C. 1984. «Genèses et conséquences de l'échec scolaire: vers une politique de prévention» Revue Française de pédagogie, 67, 7-28. or. Citado por Aletta Grisay en «Repetir curso o adecuar el currículo» en Marchesi y Hernandez Gil. Op. Cit.

²⁶ Ministère Éducation Nationale, Enseignement Supérieur Recherche. 2005. «Le redoublement au cours de la scolarité obligatoire: nouvelles analyses, mêmes constants» (2007/02/16an kontsultatutakoa).

www.education.gouv.fr/stateval/dossiers/

²⁷ Ministère Education. Op. cit.

egindakoak (Grisay, 1984)²⁸ ; azterketa horietan, ikasgela motak eta irakasleek egiten duten ebaluazio motak aztertu zituzten. Ikerketak ateratako ondorio garrantzitsuetako bat da irakasleek ikasgelaren barruan ikasleen artean gertatzen den dispersioa doitzeko joera dutela. Horretarako, ebaluazio-irizpideak egokitzen ditu ikasgelako batez besteko mailaren arabera, eta horrek errepikarazteko erabakian eragin zuzena izaten du.

Ingalaterran egindako beste ikerketa berri batzuek (2007)²⁹ adin erlatiboak (jaiotze-hilabetea) Estatuko azterketen emaitzetan duen eragina aztertu dute. Aurkitutako ebidentziek erakusten dutenez, eskola-ikasturtearen amaierako hilabeteetan (abuztua, Ingalaterraren kasuan) jaiotako ikasleek irailean jaiotakoek baino emaitza okerragoak izaten dituzte. *Begi-bistakoa da jaiotze-datak kognizio-emaitzetan eragina izaten duela: irailean jaiotako ikasleek, batez beste, azterketa akademikoetan abuztuan jaiotako haurrek baino nabarmen hobekak diren emaitzak lortzen dituzte eskolatzea urtebete lehenago hasi zutelako (eta azterketak ere urtebete lehenago egiten dituztelako)*. Alde horien arrazoi nagusia hau da: Britainiako eskola-egutegiaren arabera, *abuztuan jaiotakoak irailean jaiotakoak baino ia urtebete gazteagoak dira kanpoko Estatuko probak egiten dituztenean*. Diferentzia hori eskolatzea hasten denean izaten da handiena, baina pixkanaka gutxitu egiten da derrigorrezko hezkuntzako hurrengo etapetan.

Ikerketa horrek aurrez Albertan (Kanada) gai horren inguruan egindako beste ikerketa batzuen osagarriak diren frogak biltzen ditu³⁰. Azterketa horiek ondorioztatutakoaren arabera, adinak azaltzen du ikasle gazteenen errendimendua ia urtebete lehenago jaio zirenean baino baxuagoa izatea Lehen Hezkuntzako 1. mailatik 5.era bitartean ingelesean; maila horretatik aurrera, ordea, aldea gutxitu egiten da eta ez da horren nabarmena. Hori dela eta, ikerketaren arduradunen ustez, ondoz ondoko laginetan azterketa horiekin aurrera jarraitzea komeni da, emaitzak biztanleria osorako estrapolagarriak diren edo laginerako eskusiboak diren zehazteko. Gainera, emaitzak taldeen batez bestekoaren ingurukoak direla eta banaka hartuta, bariantza handia dagoela azpimarratu zuten.

Gai hori lantzen du, era berean, soziologiako katedraduna den Julio Carabaña³¹ PISA 2006 ebaluazioko datuen azterketatik abiatuta egin berri duen ikerketak. Adinak duen eraginaren eta ebaluazioan parte hartu duen herrialde ugarietan hezkuntza-sisteman sartzearen eraginari dagokionez, ikasleen jaiotze-datak errendimenduan duen eragina aztertu eta hau aipatzen du: *"lehen eta laugarren hiruhilekoetan jaiotako arteko alderik handienak hogeitun puntu artekoak dira, eta herrialderik garatuenetan eta PISAn puntuaziorik altuenak lortu dituztenetan gertatzen da: Austria, Australia, Kanada, Suitza, Txekiar Errepublika... Dena den, horrekin bat datoz horren garatuta ez dauden beste batzuk: Kolonbia, Indonesia, Thailandia edo Uruguai, esate baterako*.

Espainiako autonomia-erkidegoak kontuan hartzen baditugu, ia guztietan dago 15 eta 25 puntu arteko aldea lehen hiruhilekokoan eta azken hiruhilekokoan artean. Dena den, alde horiek ez dira aipagarriak estatistikari dagokionez.*

Orain arte egindako ikerketetarako datu gehiago biltzeko, TIMS 2007 ebaluazioak Euskadin lortutako datuak abiapuntutzat hartuta azterketa egin dute DBHko 2. mailako ikasleak ordezkatzan dituen laginarekin. Ikusitakoaren arabera, lehen hiruhilekoan jaiotako ikasleen % 15ek errepikatzen du; aldiz, 4. hiruhilekoan jaiotako % 25ek errepikatzen du ikasturtea. Errepikatzaileen ehunekoa pixkanaka handitu egiten da hiruhileko batetik bestera. Lehen hiruhilekoan jaiotako egokien ehunekoa (% 85) 10 puntu altuagoa da 4. hiruhilekoan jaiotakoena baino (% 75).

²⁸ Grisay, A. 1.984. "Les mirages de l'évaluation scolaire. Recensement en français, notes et échecs à l'école primaire », Revue de la Direction de l'Organisation des Études, XXII, 8, 3-20.

²⁹ "When you are born matters: the impact of date of birth on child cognitive outcomes in England" 2007. www.ifs.org.uk/docs/born-matters-report.pdf

³⁰ Alberta Education. Accountability and Reporting Division (January 2008). Grade level of achievement 2006-07 pilot data. The Crown in Right of Alberta, as represented by the Minister of Education.

³¹ Carabaña, J. "Las diferencias entre países y regiones en las pruebas PISA" <http://www.magisnet.com/articulos.asp?idarticulo=3630>

Ikasleen ehunekoa jaiotze-hiruhilekoaren arabera

Hiruhilekoa	Ikasle egokia		Errepikatzailea	
	Kopurua	%	Kopurua	%
1. hiruhilekoa	480	85,1	84	14,9
2. hiruhilekoa	489	83,8	95	16,2
3. hiruhilekoa	448	78,4	124	21,6
4. hiruhilekoa	433	75,1	144	24,9

TIMSS 2007 ebaluazioan zientzietan eta matematikan lortutako puntuazioak jaiotze-hiruhilekoaren arabera kontuan hartuta, lehen hiruhilekoan jaiotako ikasle egokiek (eta, horrenbestez, laugarren hiruhilekoan jaiotako ikasleekin alderatuta ia urtebete zaharragoak direnek) puntuazio altuagoa lortzen dutela ikus dezakegu, baina alde horiek ez dira estatistikoki nabarmenak.

Jaiotze-dataren arabera ikasle egokiek TIMSS 2007n lortutako puntuazioa

Hiruhilekoa	Ikasleak	Zientziak		Matematika	
		Batez bestekoa	AT	Batez bestekoa	AT
1. hiruhilekoa	480	508,3	2,95	513,9	2,81
4. hiruhilekoa	433	501,8	2,99	503,9	2,90

Ikasle errepikatzaileekin ez dute azterketa hori egin, egokitasun-egoeran dagoenak baino urtebete edo bi urte gehiago baitarama hezkuntza-sistema horretan. Errepikatu zuen garaian jaiotze-datak eragina izan bazuen, orain ezin daiteke nabarmendu eragin maila.

Egindako azterketek ez dute erabakigarriak ematen; hori dela eta, gai horrekin lotuta ikertzen jarraitu beharko litzateke.

➤ **Espainiako estatua**

Espainiako estatuan, zenbait egilek, Marchesi eta Hernandez Gilek³² esate baterako, Holmesek aztertutako literatura serie luze bateko azkena baino ez dela aipatzen dute. Haien ustez, azterketa horrek XX. mendearen hasieratik egin izan dituzten lehen ikerketetatik ezagutzen ditugun gertaerak baieztatu baino ez ditu egiten. “... Beste ikertzaile batzuek joeraren alboko alderdiak aztertu dituzte eta ondorioak ez dira pozgarriak:

1. *Ikasle errepikatzaileak banakako babesa jasotzen duenean, haren emaitzak apur bat hobek izaten dira (Peterson et al. 1987).*
2. *Errepikatze joera ez da beti modu esplizituan azaltzen, baina haren “zeharkako” erak ere... ez dira eragingarriak. Hori gertatzen da heldugabetzat hartutako haurrak Lehen Hezkuntzan sartzeko garaia urtebete atzeratzen dutenean...*
3. *... ikasketa-zikloak dituzten erreformek ere ez dituzte emaitzak eskaintzen. Frantziako Hezkuntza Ministerioak derrigorrezko hezkuntzaren hasieran (Ernst et al. 1994) “hiru urteko zikloa” izeneko gailuaren inguruan egin zuen ikerketak ondorioztatutakoaren arabera, ordea, gailu horren mesedeak jaso dituzten ikasleek atzerapen horren zati bat errekuperatu dute...*
4. *Ikasturte bat errepikatu duten ikasleek besteek baino joera handiagoa dute eskola uzteko...*

Egile horiek koordinatutako beste lan batek³³ promozio automatikoa abian duten hezkuntza-zentroen herrialdeen (Finlandia, Norvegia, Suedia, Danimarka, Erresuma Batua, Irlanda eta Japonia); errepikapena ezohiko kasuetan soilik erabiltzen dutenen (Italia, Grezia eta Alemania) eta derrigorrezko eskolatzean gutxienez ikasturte bat errepikatu duten ikasleen proportzioa duten herrialdeen (Frantzia, Belgika, Portugal, Espainia) artean alderik badagoen aztertzen du. Hasierako premisa izango litzateke errepikatzea posible den herrialdeetan emaitzek hobek izan beharko luketela.

³² Marchesi, A. eta Hernandez Gil, C (coords.), Op.cit.

³³ Marchesi, A. eta Hernandez Gil, C (koord.) “El fracaso escolar. Una perspectiva internacional. 6. kapitulu. “Repetir curso o adecuar el currículo”. Aletta Grisay. Alianza ensayo. Madril, 2003.

Baina hipotesi hori ezin daiteke egiaztatu; izan ere, Finlandian, Suedian eta Norvegian, promozio automatikoa orokorra den herrialdeetan, irakurketan nazioarteko batez bestekoa baino nabarmen altuagoak diren emaitzak dituzte, eta Japoniak, aldiz, matematikan eta zientzietan. Gainera, derrigorrezko hezkuntzaren ondorengo Bigarren Hezkuntzara igarotzen diren ikasleen proportzioa industrializatutako herrialdeetako batez bestekoa baino altuagoa da. Errendimenduaren inguruko ebaluazio horiek Eskolako Errendimendua Ebaluatzeko Nazioarteko Elkarteak (IEA) egin ditu; horretarako, proba horiek (TIMSS) aplikatu ditu; PISA proben kasuan, aldiz, ebaluazioak ELGAK egin ditu parte hartu duten herrialde guztietan.

2004. urtean ikasturtea errepikatzearen inguruan Espainiako estatuko irakaskuntzako bi mila profesionali egindako inkestak³⁴ agerian uzten duenez, errepikapena eskola-porrota konpontzeko neurri eskasa da. Profesional horietako % 78,2ren ustez, ez da arazoari erantzuna emateko konponbide egokia eta irakaskuntzako kalitatea hobetzeko baliabide espezifikoak eta aurrekontu mailako ahalegin handiagoa eskatu dute. Lehen Hezkuntzako irakasleen % 82ren ustez, neurri hori eskasa da ikasteko zailtasunak dituzten ikasleen arazoak konpontzeko eta Bigarren Hezkuntzako irakasleei dagokienez, iritzi bera du % 75,1ek.

Ikerketen laburpena

- Errepikatzea ohiko joera da herrialde askotan.
- Ez dago zailtasun akademikoak dituzten ikasleentzat ikasturtea errepikatzea automatikoki mailaz igotzea baino mesedegarriagoa dela erakusten duen ebidentzia enpiriko fidagarrien multzorik.
- Mailaren bat errepikatu zuten ikasleek errendimendu akademiko baxuagoa, auto-kontzeptu baxuagoa eta eskolarekiko duten jarrera ez horren aldekoa erakusten dute hurrengo mailara pasatu zirenekin alderatuta.
- Ikerketa batzuen arabera, ikasturtea errepikatu duten ikasleek nolabaiteko hobekuntza izaten dute errendimenduan, baina hori ez da egonkorra denborari dagokionez, eta hurrengo urteetan berriro behera egiten du.
- Ikasturtea errepikatzeak lotura du eskola-porrotarekin eta hezkuntza-sistema garaiz aurretik uztearekin.
- Irakasle askoren ustez, errepikatzeak ikasle heldugabeei akademikoki lagundu egiten die, baina gehienek ez dituzte errepikatzearen ondorioen inguruko ikerketak ezagutzen.
- Ikerketa gehienak ikasturtea eskolatzearen lehen urteetan errepikatu duten ikasleetan oinarritzen dira.

³⁴ Centro de Innovación Educativa (CIE), Instituto de Evaluación y Asesoramiento Educativo (IDEA) “La situación profesional de los docentes” (2004ko otsaila).

B. Mailaz igotzearekin lotura duten hezkuntza-arloko politikak Europan.

1. Europar Batasuneko derrigorrezko irakaskuntzan ikasturtea errepikatzea

Ikasten ari den mailari dagozkion helburuak betetzen dituzten ikasleak hurrengo mailara igarotzen dira beren merezimenduei esker.

Hori ez denean gertatzen, oro har, ikasturtearen promozioarekin lotuta bi prozedura normalizatu egon ohi dira: hezkuntza maila berean jarraitzea edo ikasturtea errepikatzea, eta promozio automatikoa edo gizarte-sustapena.

Europar Batasuneko herrialde gehienek eskaintzen dute ikasturtea errepikatzeko aukera. Erabaki hori, gehienetan, errendimendu akademikoaren arabera hartzen da; baina, zenbaitetan, beste faktore batzuk ere hartu behar dira kontuan: gaixotasun luzea, ikasteko zailtasun bereziak edo gelakideak baino gazteagoa izatea; hau da, adinaren arabera dagokion ikasturtean ez egotea. Ikasturtea errepikarazteko erabakia hartzeko eskuduntza, oro har, hezkuntza-zentroek izaten dute. Hori gertatzen da, esate baterako, Belgikan, Alemanian, Italian, Luxenburgon, Maltan, Herbeheretan, Austrian, Finlandian eta Europako beste 11 estatutan. Herrialde horietan, teorikoki ikasleari ikasturtea errepikaraztea posible den arren, praktikan ezohiko kasuetan soilik gertatu ohi da.

Beste herrialde batzuetan, ordea, ikasleak automatikoki igarotzen dira hurrengo mailara derrigorrezko hezkuntzan; gainera, laguntza osagarria jasotzen dute zailtasunak dituztenek. Hori da, esate baterako, herrialde hauen kasua: Danimarka, Grezia, Irlanda, Zipre, Suedia, Erresuma Batua, Islandia, Liechtenstein eta Norvegia. Dena den, promozio automatikoaren aldeko herrialdeetan ere posible da aparteko gorabeherak direla eta ikasturtea errepikatu ahal izatea; gaixotasuna dela eta denbora luzez ez joan izanagatik edo zentrokoak ez diren pertsona kualifikatuak gomendio hori egin dutelako (psikologoek, gizarte langileek eta abarrek) adibidez. Erabaki horiek zentroko zuzendaritzarekin eta eragina jasango duen ikaslearen familiekin batera hartu ohi dira.

Neurri hori posible den herrialdeetan (Belgikan, Espainian edo Zipren, esate baterako), errepikatzeko muga batzuk egon ohi dira, eta eskolatze-garaiko une jakin batzuetan soilik egin daiteke.


Herrialde bakoitzean ikasturtea errepikatzearen inguruko ezaugarriak oinarritzko hiru aldagaien bidez azaltzen dira:

1. Ikasturtea errepikatzeko edo ez errepikatzeko aukera eta herrialde bakoitzeko errepikapen-sistemaren berezitasunak (zikloa amaitzean edo edozein hezkuntza mailatan, errepika daitekeen ikasturte kopurua eta abar).
2. Ikasleak ikasturtea errepikatzeko dituen arazoak.
3. Errepikatzea komeni den ala ez erabakitzen duten pertsonak edo erakundeak.

Jarraian ageri den grafikoan ikus daiteke gaur egun Europar Batasuneko herrialdeetan nola arautzen duten ikasturtearen errepikapena Lehen Hezkuntzan.³⁵

³⁵ EURYDICE. Las cifras clave de la educación en Europa 2005. Europako Batzordea. Hezkuntza eta Kultura. EUROSTAT.

1. grafikoa. Lehen Hezkuntza hurrengo mailara igarotzearen inguruko gomendio ofizial nagusiak (CINE 1), 2002/2003



Ohar osagarriak

Belgika: Lehen Hezkuntza bi aldiz soilik errepika dezakete ikasturtea.

Danimarka eta Grezia: errepikatzeak ikasleari mesede egingo diola uste izateko aparteko arrazoiak badaude soilik errepika dezakete.

Alemania eta Austria: automatikoki igaro ohi dira Lehen Hezkuntzako lehenengotik bigarren ikasturtera. Une horretatik aurrera, ikasleek emaitzen arabera errepika dezakete ikasturtea.

Estonia: aparteko gorabeherak gertatzen badira soilik errepika dezakete ikasleek lehen edo bigarren maila (arrazoi medikoak, adibidez).

Espania: ikasturtea behin errepika dezakete, baina hiru zikloetako edozeinen amaieran soilik.

Italia: hurrengo mailara igarotzea aparteko kasuetan soilik eragozten dute: irakasleen ustez hori beharrezkoa bada, txosten berezia aurkeztu behar izaten diote *Consiglio de interclasse* izenekoari.

Zipre: Lehen Hezkuntza, behin bakarrik errepika dezakete maila.

Letonia: Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren adierazpenaren arabera (2003ko azaroaren 27an egindakoa), eskola-batzordeak ez du gurasoen baimenik behar ikasleak ikasturtea errepikatu beharko lukeen edo ez erabakitzeko.

Hungaria: ikasleak lehen mailatik bigarrenean automatikoki igaro ohi dira. Horren ondoren, ikasturtea errepika dezakete eskatutako maila lortu ez badute.

Malta: Lehen Hezkuntza, ikasleek aparteko kasuetan soilik errepikatzen dute maila. Zentroko zuzendariak egindako gomendioa erabakigarria izaten da. Lehen Hezkuntzaren amaieran *Junior Lyceum* izeneko azterketa gaituz ez duten ikasleek gurasoek beren seme-alabek azken maila errepikatzea eska dezakete hurrengo urtean berriro egin dezaten azterketa.

Herbehereak: ahal den neurrian, ikasturtea ez errepikatzen saiatzen dira. Errepikapena ikasketari eta garapenari dagokionez ikaslea ikaskideak baino askoz ere atzeratuago dagoenean soilik gertatzen da, zentroak ez badu beste irtenbiderik topatzen.

Polonia: lehen hiru mailetan, ikasturtea aparteko gorabeherak direla eta soilik errepika dezakete eta zentroak laguntza psikologikoko zentroetako espezialistekin eta gurasoekin kontsulta egin ostean.

Portugal: ez da ohikoa ikasleak lehen zikloan maila errepikatzea.

Eslovenia: egitura bakarreko (9 urteko iraupena du) lehen eta bigarren mailako ikasleek ikasturte bakoitza errepika dezakete gurasoen baimena badute soilik. Garai bateko 8 urteko egitura bakarrekoaren (pixkanaka desagertzen joan da 2003/2004tik) azken etapan daudenek maila errepika dezakete gurasoen baimena eskatu beharrik izan gabe.

Lehen mailako eta Bigarren mailako irakaskuntza hau ikus daiteke:

1. Europako iparraldeko herrialdeek hezkuntza-sisteman *egitura bakarra* izateko joera dute eta horrek ikasleak maila batetik bestera **automatikoki igotzea** biltzen duela ematen du. Danimarkak, Norvegiak eta Suediak errepikapena aparteko kasuetan soilik erabiltzeko aukera dute.
2. Aldiz, Bigarren Hezkuntza *ibildide bereiztuak* dituzten herrialdeek **ikasturtea urtero errepikatzea** baimentzen duen legeria dute. Hori gertatzen da, adibidez, Alemanian, Austrian edo Herbeheretan.

3. *Enbor komuna* oinarri duen irakaskuntza-eredua aukeratu duten herrialdeek tarteko legeriak aukeratu dituzte. Ikasturtea errepikatu ahal izateko gorabeherak arautzen eta mugatzen dituzte: oro har, **zikloak amaitzean errepikatzea**. Horien artean, Italiak ikasturtea errepikatzekeo tradizioa mantentzen du; Erresuma Batuak, aldiz, promozio automatikotik gertu dagoen joera du.
4. Errepikatzekeo arrazoiei dagokienez, irizpideak zentro bakoitzak finkatzen ditu. Dena den, errendimendu akademikoa izaten da herrialde gehienetan arrazoi nagusia (Belgika, Alemania, Espainia, Finlandia, Irlanda, Frantzia eta Luxenburgoko). Eskola-garaiko zati handian zentrorra ez joatea, ospitaleratze luzea edo ikaskideak baino gazteagoa izatea dira arrazoi horietako batzuk Grezian, Danimarkan eta Irlandan, esate baterako.
5. Errepikatzearen inguruko erabakia, kasu gehienetan, modu kolektiboan hartzen du tutoreak zentroko zuzendaritzarekin edo beste profesional batzuekin batera. Luxenburgoko, Danimarkan eta Erresuma Batuan, adibidez, erabakia familiekin adostuta hartzen dute.

Hurrengo taulan ikus daiteke derrigorrezko hezkuntzan Europar Batasuneko kide diren herrialde batzuetan nola arautzen duten gaur egun ikasturtea errepikatzekeo aukera.

Ikasturtea errepikatzea Europar Batasuneko herrialdeetan. 2001-2002 ikasturtea³⁶

Herrialdea	Lehen Hezkuntza	Bigarren Hezkuntza
Irakaskuntzako egitura bakarra		
Danimarka	Promozio automatikoa ¹	Promozio automatikoa
Finlandia	Urtero egin daiteke ²	Urtero egin daiteke
Islandia	Promozio automatikoa	Promozio automatikoa
Norvegia	Promozio automatikoa	Promozio automatikoa
Portugal	Errepikapena ezohikoa da ³	Urtero egin daiteke
Suedia	Promozio automatikoa	Promozio automatikoa
Enbor komuna		
Espainia	Ziklo bakoitzaren amaieran egin daiteke	Promozio automatikoa ⁹
Frantzia	Zikloa amaitzean egin daiteke	Urtero egin daiteke
Grezia	Errepikapena ezohikoa da	Urtero egin daiteke
Italia	Urtero egin daiteke	Urtero egin daiteke
Irlanda	Promozio automatikoa	Promozio automatikoa
Erresuma Batua	Promozio automatikoa	Promozio automatikoa
Irakaskuntzako bereizitako egiturak		
Alemania	Urtero egin daiteke ⁶	Urtero egin daiteke
Austria	Urtero egin daiteke	Urtero egin daiteke
Belgika	Urtero egin daiteke ⁷	Urtero egin daiteke
Liechtenstein	Urtero egin daiteke	Urtero egin daiteke
Luxenburgoko	Urtero egin daiteke	Urtero egin daiteke
Herbehereak:	Urtero egin daiteke	Urtero egin daiteke
Suitza ⁸	Urtero egin daiteke	Urtero egin daiteke

- 1 Atzeratu egin daiteke promozio automatikoa, irakasleen ustez, errepikapena ikaslearentzat mesedegarria izan daitekeen gorabeherak badaude.
- 2 Legeriak ikasturtea errepikatzea baimentzen duen arren, ezohiko eran soilik aplikatzen da; hori dela eta, promozio automatikoa da orokorra.
- 3 Ezohikoa izaten da 1. zikloko ikasturtea errepikatzea eta 2. zikloa amaitzean, ikasleak hiru ikasgaitan (matematika eta hizkuntza barne) atzerapen handia badu soilik egiten da.
- 4 Lehen hezkuntzako etapan errepikatzekeo aukera ikasturte bakarrekoa izaten da.
- 5 2006ko maiatzaren 3ko 2/2006 Legeak (LOE) 2007-2008 ikasturtetik aurrera, hiru ikasgai baino gehiago gaintzen ez dutenentzat ikasturtea errepikatzekeo aukera aurrez ikusten du.
- 6 Alemanian eta Austrian ikasleak automatikoki igarotzen dira 1. mailatik 2.era.
- 7 Lehen Hezkuntzan, ikasturteen errepikapenen kopurua kultur komunitate bakoitzeko araudiak mugatzen du.
- 8 Batasunetik kanpo dagoen herrialdea. Informazioa ematea du xede.

³⁶ Iturria: Cifras claves de la educación en Europa, 2002. El año de referencia de la información corresponde al curso 2001-2002. Eurydice, 2003.

2. 2010. urterako Europako helburuak

2010. urterako Lisboan 2000. urtean egin zuten Europako Kontseiluan proposatutako Europako hezkuntza-helburuen baitan, Europar Batasuneko herrialdeetan komunak diren ekimenen prozesua ireki zuten hezkuntza-arloko emaitzak hobetze aldera.

2010. urtean bete beharreko hiru helburu estrategiko zehaztu zituzten: hezkuntzako eta prestakuntzako sistemen kalitatea hobetzea, hezkuntzako eta prestakuntzako sistema guztietara sarbidea erraztea eta sistema horiek ingurune zabalagora irekitzea. Era berean, hezkuntza maila ugariarako zehaztu zituzten helburu espezifikoak (Stockholmen 2001ean egin zuten Europako Kontseilua). Horien artean, ikasturtea errepikatzearekin zuzenean lotuta dagoen helburua aipatu behar da:

“Ikasle guztien errendimendu akademikoa hobetzeko neurriak ezartzea, eskola-porrota gutxitzea eta egokitasun-tasa hobetzea”.

Europako Batzordeak helburu horiek hainbat herrialdek parte hartzen duen laneko taldeen bidez garatzen ditu³⁷. Espainiako estatuak bere gain hartu zuen hezkuntza hobetzeko prozesu horretan modu irmoan parte hartzeko konpromisoa; Lisboako estrategian zehaztutako hezkuntza-helburuak erreferentzia-guneak izan dira LOErekin garatu nahi dituzten hezkuntza-arloko erreformetarako³⁸.

Lege berri horren abiapuntutik, garrantzi bereziko helburu diren hiru talde daude:

- adin goiztiarretan eta derrigorrezkoaren ondorengo irakaskuntzan eskolatzea handitzearekin lotutakoak.
- derrigorrezko irakaskuntzan ikasle guztien arrakasta ahalbidetzea proposatzen dutenak
- bizitza osoko ikaskuntza, herritartasuna, aukera-berdintasuna eta gizarte-kohesioa bultzatzen dutenak.

Ugari dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasle guztien arrakastarako eta hobekuntzarako Estatu mailan eta autonomia mailan garatzen ari diren ekintzak. Horien artean, ikerketa honen gaiarekin duten lotura dela eta, hauek aipatu behar dira:

1.- Haur Hezkuntzatik eta Lehen Hezkuntzatik abian jarriko diren ekintzak eta etapa horietarako prebentzio-neurriak

-Haur Hezkuntzan

- 0 eta 6 urte arteko irakaskuntzetako hezkuntza-izaera. Helburua hezkuntza-etapa horretan ahalik eta haur gehien txertatzea da, lehen urteetatik hasita eta neska-mutil guztiak doan 3 urtetik aurrera.
- Bigarren zikloan atzerriko hizkuntzara gerturatzea bultzatzea.
- Irakurketan eta idazketan, oinarrizko gaitasun numerikoetan, informazioaren eta komunikazioaren teknologietan, eta adierazpen bisualean eta musikarekin lotutakoan hastapen goiztiarreko esperientziak bultzatzea.

-Lehen Hezkuntzan

- LOEren helburu askoren oinarria ikasketako zailtasunen prebentzioa, horiek goiz detektatzea eta laguntza behar duten ikasleei ikasten laguntzea eta errefortzua eskaintzea da.
- Oinarrizko gaitasunak curriculumean sartzeak ahalbidetuko du, adinik goiztiarretatik hasita, irakaskuntzak ikasleek gaitasun horiek lortzera bideratzea, eta horri esker etorkizuneko ikasketetan emaitza hobekak lortu ahal izango dituzte.

³⁷ Informe 2006 sobre los objetivos educativos y puntos de referencia 2010. Comisión General de Educación. Grupos de Trabajo para el seguimiento de los objetivos europeos y españoles 2010. Secretaria General de Educación. Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa.

³⁸ Hezkuntzako Lege Organikoa, 2/2006 Legea, 2006ko maiatzaren 3koa.

- Lehen Hezkuntzako bigarren zikloaren amaieran egiten diren diagnostikoaren ebaluazioek zentzuzko ikasleen hezkuntza hobetzeko eta hezkuntza-administrazioei hobekuntzako planen proposamena eta hezkuntza-babeserako neurri espezifikoak hartzeko erabakiak hartzen lagundu beharko liekete.

2.- *Ikasle guztien arrakasta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.*

- *Ikasle guztien ikaskuntza hobetzeko eta oinarrizko gaitasunak eskuratzeko neurriak.*
 - Atzerriko hizkuntzak ikasteko errefortzua hizkuntza horietan komunikazio-gaitasuna lortzea errazteko, honek xedatutakoaren arabera: *Hizkuntzak ikasteko Europako erreferentziazko testuinguru komuna (MCER)*³⁹.
 - Irakurketako gaitasunak garatzeko ordu espezifikoak esleitzea curriculumean.
 - Ikasgai instrumentalen orduetara handitzea: batez ere, hizkuntzetakoa eta matematikakoa.
- *Aniztasunaren trataerako neurriak*
 - *Arlo instrumentaletan errefortzuak eta laguntzak, eta tutoretzako ekintza handitzea.*
 - *DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleei zuzendutako oinarrizko ikaskuntza sendotzea egokitutako curriculumekin, banakakoekin eta taldean egindakoekin.*
 - *Curriculum-dibertsifikazioko programak Bigarren Hezkuntzako hirugarren mailatik hasita DBHko 2. maila egin eta, gutxienez, ikasturte bat errepikatu duten ikasleei zuzenduta.*

3.- Espainiako estatuko legegintzako testuingurua

2006ko maiatzaren 3an onartu zuten Hezkuntzako Lege Organikoak (LOE), 2/2006 Legeak, une horretara arte indarrean zeuden lau arauetako hiru ordezkatu zituen. 2002ko Kalitateko Legea (LOCE), 1990ean aldarrikatutako LOGSE eta 1995ean onartutako LOPEG indarrak gabe uzten ditu. Dena den, bateragarria da 1985eko LODE izeneko Hezkuntzaren Eskubideari buruzko Lege Organikoarekin, hezkuntza-sistema arautzen duten legeak homogeneizatzen eta soiltzen dituela ulertzen baita.

Ikasturtea errepikatzearekin lotuta, onartu berri duten legeko (LOE) 28. artikulua ezartzen ditu 2007-2008 ikasturtetik aurrera aplikatzen hasiko diren ikasleen ebaluaziorako eta sustapenerako arauak. Horrekin lotuta, esan beharrekoa da legeak Lehen Hezkuntzako maila bat errepikatzeak aukera biltzen duela. Arau orokor moduan, hiru edo ikasgai gehiago gainditu ez dituzten DBHko ikasleek ikasturtea errepikatu behar dute, baina hurrengo mailara igaro ahalko dira suspenditutako hiru ikasgairekin ebaluazio-saioaren ostean, irakaskuntzako taldeak egokitzat jotzen badu.

Lege honetan, arau osagarriak ageri dira ikasturtea errepikatu behar duten edo ikasgaiak suspendituta izan arren, hurrengo ikasturtera igaroko diren ikasleei hezkuntza-zentroak eman beharreko laguntza lantzeko. Horrekin lotuta, hau aipatzen du:

- Ikasgai guztiak gainditu gabe hurrengo mailara igarotzen direnek irakaskuntzako taldeak ezarritako errefortzu-programak jarraitu eta programa horiei dagozkien ebaluazioak gainditu beharko dituzte.
- Ikasleak ikasturtea behin bakarrik errepikatu ahalko du, eta bi aldiz, gehienez, etaparen baitan. Bigarren errepikapena etapako azken mailan egin behar duenean, urtebete luzatuko da adin-muga. Salbuespen gisa, ikasleak laugarren maila bigarren aldiz errepikatu ahalko du etapako aurreko ikasturtean ez badu errepikatu.
- Errepikapenen plangintza egiteko garaian, curriculum-baldintzak ikaslearen beharretara egokitu beharko dira eta ikusitako zailtasunak gainditzera zuzenduta egon beharko dute.

Maila errepikatzea		
LOGSE 1990	LOCE 2002	LOE 2006
<ul style="list-style-type: none"> - Irakasleen esku dago. - DBHn bi aldiz eta Lehen Hezkuntzan behin bakarrik errepika daiteke 	<ul style="list-style-type: none"> - Errepikatu egiten da bi ikasgai baino gehiago suspendituz gero - DBHko maila bakoitzeko behin, eta Lehen Hezkuntzan, behin. 	<ul style="list-style-type: none"> - Gainditu gabeko bi ikasgairekin hurrengo mailara igaro ahalko dira ikasleak, eta suspenditutako ikasgaiak lau badira, errepikatu. - Irakasleek erabakiko dute gainditu gabeko hiru ikasgairekin ere errepikatu behar duten

³⁹ Instituto Cervantes (2002): Marco común europeo de referencia para las lenguas: aprendizaje, enseñanza y evaluación. Consejo de Europa. Ministerio de Educación y Deporte (Anaya). Madrid.

4.- Euskadiko curriculumaren legegintzako testuingurua

2007ko urriaren 16ko 175/2007 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarrizko Hezkuntzako curriculumua ezartzen eta finkatzen duenak, espresuki aipatzen du ikasturtea errepikatzea eta gainditzea.

LOEk, 28. artikuluan, hau zehazten du: *“Hezkuntza-administrazioek arautuko dituzte ebaluazioaren arduradun den irakaskuntzako taldearen ekintzak”*. Hori dela eta, Dekretu horrek lege horrek ezarritako Lehen Hezkuntzarako eta DBHrako errepikatzeak baldintzak mantentzen ditu eta Euskadiko jarduerak arautzeko promozio- eta ebaluazio-arloko beharrezko orientabideak aipatzen ditu.

Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarrizko Hezkuntzako curriculumua ezartzen duen Dekretu horrek, hau aipatzen du 33. artikuluan:

3.-... *“Salbuespen moduan, irakaskuntzako taldeak hiru ikasgaitan ebaluazioa negatiboa izanda mailaz igotzea erabaki dezake hiru irakasgai horiek ez badira hauek: gaztelania eta literatura; euskara eta literatura, eta matematika. Betiere, horien izaerak hurrengo ikasturtearekin arrakastaz aurrera jarraitzea ez diola eragotziko uste badu...”*.

4. *“Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, mailaz igo ez diren ikasleek beste urtebete eman beharko dute ikasturte berean, edo DBHko lehen maila denean, hezkuntzako esku-hartze espezifikoko proiektuan parte hartzera igaro beharko dute. Neurri horiek, era berean, pertsonalizatutako plan espezifikoa izan beharko dute. Plan hori aurreko ikasturtean ikusitako zailtasunak gainditzera zuzenduta egongo da”*.

6.- *“Ikasturtea errepikatu ostean, DBHko ikasleak hurrengo mailara igarotzeko baldintzak beteko ez balitu, irakaskuntzako taldeak... kasu hauetako bakoitzean eskuragarri dauden aukeren arteko erabakia hartu beharko du:*

- a) *Lehen mailan balego, bigarren mailara igotzea erabaki ahalko du errefortzuko neurriekin, edo hezkuntza-arloko esku-hartze espezifikoko proiektura sartzea erabakiko du.*
- b) *Bigarren mailan balego, hiru aukera hauen arteko erabakia hartuko du: hirugarren mailara igotzea, hasierako kualifikazio profesionaleko programara, edo bi ikasturteko curriculum-dibertsifikazioko programara igarotzea. Azken bi kasu horietan, ikasturtea hasteko urte naturalean ikasleak 15 urte baditu egin ahalko da aukera hori.*
- c) *Hirugarren mailan balego, hiru aukera hauen arteko erabakia hartuko du: laugarren mailara igotzea, hasierako kualifikazio profesionaleko programara, edo ikasturte bateko curriculum-dibertsifikazioko programara igarotzea.*

C.Estatu mailan eta Euskadin ikasturtea errepikatu duten ikasleen tasak.

Ikasleen arrakasta akademikoa hainbat erreferentziaren bidez neurtu ohi dute; horien artean, hauek aipatu behar dira: adinaren eta ikasturtearen arteko egokitasun-tasa, mailaz igo diren gainditutako ikasleen ehunekoa eta maila edo ziklo bakoitzean errepikatzen duten ikasleen proportzioa.

1. Egokitasun-tasa

Arrakasta akademikoa neurtzeko modua da, eta adinaren arabera dagokion ikasturtean kokatutako eta, horrenbestez, mailarik errepikatu ez duten ikasleen ehunekoa adierazten du.

Jarraian, 12 urterekin Lehen Hezkuntza 10 ikasturtetan amaitu duten ikasleen egokitasun-tasen bilakaera ageri da.

Autonomia-erkidego bakoitzean Lehen Hezkuntza burutu duten 12 urteko ikasleen ehunekoa (Egokitasun-tasen bilakaera)⁴⁰

* 2004-2005eko azken ikasturtearen arabera eta egokitasun-tasarik txikienetik handienara ordenatuta.


	GUZTIRA			MUTILAK			NESKAK		
	1994-95	1999-2000	2004-05	1994-95	1999-2000	2004-05	1994-95	1999-2000	2004-05
Ceuta	62,7	75,8	72,5	60,1	72,2	65,6	65,2	79,6	80,3
Balear Uharteak	74,9	81,4	76,4	69,7	77,8	72,1	80,5	85,2	80,8
Kanarias	67,3	80,7	77	61,2	76,3	72,2	73,7	85,2	82,2
Melilla	57,4	75,3	79,8	53,2	70,5	75,8	62,5	81	84,5
Murtzia (77,4	85,8	80	73	82,8	76,8	81,8	89	83,5
Andaluzia	72,1	85	81,4	67,8	82,3	78,2	76,8	87,8	84,8
Gaztela-Mantxa	80,1	86,6	83,1	75,5	83,7	79,7	85,2	89,6	86,6
Gaztela eta Leon	83	88,6	83,7	79,4	85,9	80,7	86,8	91,4	86,9
Galizia	78,9	85,7	83,8	74,2	82,2	79,9	84,1	89,5	87,9
Extremadura	76,9	86,8	84,2	72,4	83,2	80,4	81,6	90,6	88,3
GUZTIRA	79,7	87,5	84,3	76	85,1	81,6	83,6	90,1	87,2
Madrilgo komunitatea	85,9	89,3	84,9	83,4	87,3	82,9	88,5	91,3	87
Aragoii	87,5	90,3	85,5	85,4	88,8	83,2	89,6	91,9	87,8
kantabria	81,7	88,9	86,4	78,2	85,7	84,2	85,4	92,2	88,8
Valenzia	79,9	88,2	86,4	76,3	86,1	83,9	83,8	90,4	89
Nafarroa	86,8	92,1	87	84,5	90,6	86	89,2	93,8	88
Errioxa	88,5	91,6	87,3	85,6	90,8	86	91,7	92,5	88,8
Asturias	84	90,2	87,4	80,5	87,9	85,1	87,6	92,6	89,8
Euskadi	86,9	91	88,1	84,8	89,4	86,3	89	92,6	90
Katalunia	85,2	92	90,5	82,4	90,5	89,4	88,2	93,6	91,7

Egokitasun-tasak bilakaera ona izan du azken urteotan; hau da, Lehen Hezkuntza dagokion adinean amaitu duten ikasleen ehunekoa handitu egin da. Dena den, azken ikasturtean, 2004-2005ean, apur bat jaitsi dela esan dezakegu 2000. urteko datuekin alderatuta.

Egokitasun-tasak altuagoak dira nesken artean mutilenen artean baino aztertutako ikasturte guztietan, bai erkidego guztiei dagokienez, bai Euskadiko ikasleen kasuan.

Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, Euskadiko ikasleen egokitasun-tasa Estatuko batez bestekoa baino altuagoa da aztertutako ikasturte guztietan.

**Egokitasun-tasaren bilakaera 12 urterekin.
Estatuko eta Euskadiko datuen alderaketa**



15 urte bete dituzten eta beren adinari dagokien ikasturtean eskolatuta dauden (DBHko 4. maila) ikasleei dagokienez, egoera hau ikus daiteke.

⁴⁰ Iturria: Las cifras de la Educación en España. Estadísticas e Indicadores. Edición 2006 actualizada. (web orri honetatik hartuta: MEC/ Estadísticas/ educación/ Las cifras de la Educación en España. Estadísticas e Indicadores). <http://www.mec.es>

Egokitasun-tasa.
15 urteko ikasleen ehunekoa 4. DBHn autonomia-erkidegoen arabera


	2004-2005 ikasturtea	2005-2006 ikasturtea
Ceuta	43,3	43
Melilla	47,8	48,7
Kanariar uharteak	50,5	50,8
Balearr uharteak	51,7	51,3
Extremadura	52	51,7
Gaztela-Mantxa	52	53,5
Murtzia	55	54,6
Valentziako komunitatea	55,8	55,7
Kantabria	57,7	57,2
Andaluzia	53,8	57,7
GUZTIRA	58,4	57,7
Gaztela eta Leon	57,5	58,2
Galizia	59,2	58,3
Errioxa	58,7	58,9
Aragoi	59,4	59
Madrilgo komunitatea	59,2	59,3
Asturias	63,8	62,4
Nafarroa	67,9	66,6
Katalunia	70,3	68,5
Euskadi	69,5	71,1

* 2005-06 ikasturtean egokitasun-ehuneko txikienetik handienara ordenatuta.

2004-2005 ikasturtean, adinaren arabera dagokion ikasturtean dauden 15 urteko ikasleen Estatuko batez besteko ehunekoa % 58,4koa da. Euskadin, ehunekoak 10 puntutan gainditzen du batez besteko tasa eta aztertutako adin guztietan, egokitasun-tasarik altuenak dituzten hiru erkidegoetako bat da. Kataluniaren tasa apur bat baxuagoa da. 2005-2006 ikasturtean, tasarik altuena Euskadikoa izan zen.

Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, 15 urteko Euskadiko ikasleen egokitasun-tasa Estatuko batez bestekoa baino altuagoa da aztertutako ikasturte guztietan.

Egokitasu-tasaren bilakaera 15 urterekin.
Estatuko eta Euskadiko datuen alderaketa



Lehen Hezkuntzako etapan gertatzen den moduan, DBHko nesken taldeko egokitasun-tasak mutilenak baino altuagoak dira aztertutako erkidego guztietan. Euskadin, adinari dagokion mailan dauden 15 urteko nesken taldea mutilena baino 12 puntu handiagoa da; alde hori Estatuko batez bestekoaren antzekoa da.

4. DBHko (15 urte) ikasleen egokitasun-tasa 2004-2005ean, autonomia-erkidegoaren eta sexuaren arabera

DBHko 4. Mailako egokitasuna (15 urte) sexuaren arabera		
	Mutilak	Neskak
Ceuta	38,5	48,6
Melilla	40	56,5
Balear Uharteak	45,9	57,9
Kanariar Uharteak	43,4	57,9
Gaztela-Mantxa	45	59,3
Extremadura	44,6	59,8
Andaluzía	47,6	60,4
Murtzia	49,1	61,1
Valentzia	48,8	62,9
Madrilgo komunitatea	54,8	63,7
Kantabria	51,7	63,8
GUZTIRA	52,2	64,9
Gaztela eta Leon	50,1	65,2
Aragoi	52,2	67
Errioxa	51	67,2
Galizia	51,2	67,4
Asturias	57,9	69,8
Nafarroa	61,8	74,3
Euskadi	63,5	75,7
Katalunia	64,9	76,1

Nesken ehunekoa erreferentziatzat hartuta, egokitasun-ehunekorik txikienetik handienara ordenatuta.

2. Errepikatu dutenen proportzioa.

Ikasturtea errepikatzen duten ikasleen datuak aurreko atalean ageri direnen osagarriak dira. Lehen Hezkuntzako hiru zikloetan eta DBHko mailetan 2004-2005 ikasturtea errepikatu zuten ikasleen proportzioa biltzen du autonomia-erkidegoak kontuan hartuta.

Lehen Hezkuntzako errepikapenen ehunekoa autonomia-erkidegoen arabera. 2004-2005 ikasturtea

	2. maila	4. maila	6. maila
GUZTIRA	3,6	3,9	5,9
Aragoi	4,7	5,6	7,4
Asturias	3,9	3,5	5,7
Balear Uharteak	7,1	7,7	8,9
Kanarias	7	6,2	9,4
Kantabria	3,4	4,3	6
Gaztela eta Leon	4,8	5,6	7,5
Gaztela-Mantxa	5,4	5,4	7,3
Katalunia	1,6	1,1	1,5
Ceuta	6,7	7,6	9,1
Valentzia	1,4	2,7	6,8
Extremadura	4,3	5,2	6,7
Galizia	3,1	3,7	5,4
Madrilgo komunitatea	4,3	4,6	6,2
Melilla	6,9	7,4	8,2
Murtzia	5	5,6	8,7
Nafarroa	3,5	3	4
Euskadi	2,9	3,2	4,2
Errioxa	2,6	2,2	4

Iturria: Zientzia eta Hezkuntza Ministerioko Estatistika Bulegoa. Unibertsitatekoak ez diren mailetakoa Espainiako Irakaskuntzaren inguruko informazioa.

Lehen Hezkuntzako errepikapenen ehunekoa autonomia-erkidegoen eta sexuaren arabera.
2004-2005 ikasturtea

	2. maila		4. maila		6. maila	
	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak
GUZTIRA	4,2	3	4,5	3,4	6,9	4,8
Aragoi	5,2	4,1	6,2	4,9	8,6	6,1
Asturias	4,4	3,4	4,1	2,9	6,3	5,2
Balear Uharteak)	7,9	6,2	8,6	6,6	10,6	7,1
Kanarias	8,3	5,5	7,3	5	11	7,6
kantabria	3,6	3,1	4,7	3,8	6,4	5,5
Gaztela eta Leon	5,6	3,8	6,3	4,8	8,7	6,3
Gaztela-Mantxa	6,3	4,3	6,2	4,7	8,6	5,9
Katalunia	1,8	1,4	1,2	1,1	1,7	1,2
Valenzia	1,6	1,2	3	2,4	8,1	5,5
Extremadura	5,6	3	6,2	4,1	8	5,2
Galizia	4	2,2	4,7	2,7	6,7	3,9
Madrilgo Komunitatea	4,8	3,8	5	4,2	7,2	5,2
Murtzia	6	4	6,6	4,6	9,8	7,5
Nafarroa	4,1	2,9	3,1	2,8	4,5	3,3
Euskadi	3,1	2,7	3,8	2,6	4,8	3,5
Errioxa	3,3	1,8	2,7	1,6	4,1	3,9
Ceuta	7,8	5,5	10,1	4,9	11,2	6,7
Melilla	7,1	6,7	8,6	6,1	8,7	7,6

Iturria: Hezkuntzako kopuruak Espainian. Estatistikak eta Adierazleak. 2006ko edizioa, eguneratuta.

DBHn ikasturtea errepikatu duten ikasleak autonomia-erkidegoen arabera. 2004-2005 ikasturtea.

	Errepikatzaileak DBH	Matrikulatutakoak DBH	DBHko 1. (Errep. %)	DBHko 2. (Errep. %)	DBHko 3. (Errep. %)	DBHko 4. (Errep. %)
Extremadura	12.036	56.394	19	28,3	23,1	14,4
Kanariar uharteak	18.956	89.784	19,1	28,4	21,5	14,8
Melilla	756	3.768	21,1	29,6	16,4	10,4
Gaztela-Mantxa	18.451	92.154	19,1	28,1	19,3	12,4
Ceuta	753	3.808	17,8	24,8	19,4	17,1
Balear uharteak	7.277	40.017	16,6	24,3	18,2	12,6
Murtzia	11.392	64.397	17,2	23,3	18	11,4
Errioxa	1.988	11.255	17,2	23,1	18,4	10,9
Gaztela eta Leon	17.171	97.501	15,4	23,4	19,7	11,6
Kantabria	3.710	21.212	14,7	23,3	18,7	13,3
Madril	40.730	238.026	15,5	22,2	17,8	12,7
GUZTIRA	239.605	1.449.311	14,8	21,1	17,8	12
Aragoi	7.659	46.640	15,6	22,5	17,1	9,7
Valentziako komunitateak	31.648	193.937	14,7	20,5	18,7	10,4
Asturias	5.774	35.555	14,3	21,2	19,3	10,1
Galizia	16.566	104.411	14,8	21,3	17,4	9,5
Katalunia	34.524	258.746	10,6	14,1	15,1	13,7
Nafarroa	2.435	21.515	9,7	13,9	12,1	9,5
Euskadi	7.779	70.191	9,2	14,2	11,5	9,4

ITURRIA: Bertan eginda, 2004-2005 ikasturterako Zientzia eta Hezkuntza Ministerioko datuen arabera.
Andaluziak ez du daturik eman⁴¹

Adin guztietan, Euskadik Estatuko batez bestekoa baino errepikapen-indize baxuagoak ditu. DBH osoan, errepikapeneko indizerik baxuenak DBHko 1. eta 4. mailetakoak dira. Euskadiko ikasleen ehunekoak Estatuko batez bestekoarekin alderatzen baditugu, alderik nabarmenenak DBHko 2. eta 3. mailetan daudela ikusiko dugu.

⁴¹ Lacasa J.M. "La repetición nos cuesta alrededor de 1.500 millones anuales" en Magisnet (kontsulta: 2007/03/14)


4. DBH aurretik errepikapenak izan dituzten ikasleen ehunekoa

	Guztira	Errepikapena Lehen H.	Errepikapena DBHn
Ceuta	56,7	25	31,7
Melilla	52,2	16,7	35,5
Kanariar uharteak	49,5	19,2	30,3
Balear Uharteak	48,3	21,4	26,9
Gaztela-Mantxa	48	14,6	33,4
Extremadura	48	13,9	34,1
Andaluzia	46,2	16,4	29,8
Murtzia (Eskualdea)	45	15,6	29,4
Valentzia komunitatea	44,2	12,6	31,6
Gaztela eta Leon	42,5	13,2	29,3
Kantabria	42,3	12,2	30,1
GUZTIRA	41,6	13,6	28
Errioxa	41,3	11,3	30
Galizia	40,8	14,7	26,1
Madril (Komunitatea)	40,8	12,7	28,1
Aragoi	40,6	11,3	29,3
Asturias (Printzerria)	36,2	11,5	24,7
Nafarroa (Foru Erkidegoa)	32,1	9,5	22,6
Euskadi	30,5	10,5	20
Katalunia	29,7	8,2	21,5

% kalkulatzeko, kontuan hartu da biztanleriako talde horrek 12 urte zituenean eta DBHko 1. mailara igaro behar zuenean zuen egoera (2000-2001 ikasturtea). Handienetik txikienera ordenatuta.

Adin guztietan, Lehen Hezkuntzan zein DBHn, errepikatu duten mutilen ehunekoa neskena baino altuagoa da. DBHko 2. mailan, errepikatu duten mutilen ehunekoa ia neskenaren bikoitza da. Gainerako mailetan, mutil errepikatzaileen ehunekoak handiagoa izaten jarraitzen du, nahiz eta aldea ez izan horren nabarmena.

Errepikatutako ikasleen ehunekoak, sexuaren eta hezkuntza mailaren arabera. Estatuko eta Euskadiko datuen konparazioa.
2004-05 ikasturtea.




Hezkuntza mailak eta 2004-2005ean maila errepikatu zuten Euskadiko ikasleen datuak aztertzean⁴², DBHn errepikapena handitu egin dela ikusiko dugu; % 10 ingurukoa da. Hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan, ehunekorik altuena DBHko 2. mailakoa da; maila errepikatu duten ikasleak % 14,2 dira, eta baliteke horren arrazoi nagusia izatea errepikapenak zikloaren amaieran egitea proposatzen duen araudia aplikatu izana.

Derrigorrezko Hezkuntzako datuak osatzeko, Batxilergoan, bigarren mailan errepikatzen dutenen ehunekoa (% 11,4) lehen mailan errepikatzen dutenenaren bikoitza dela ikusiko dugu (% 5,3). Lanbide Heziketari dagokionez, maila ertaineko zikloan gehiago errepikatzen dute maila (% 10,9) goi mailan baino (% 7,5).


⁴² EUSTAT. Euskal Autonomia Erkidegoko Txosten Sozioekonomikoa. 2006.

Errepikatzen duten ikasleen ehunekoa, ikasmaien arabera.
Euskadi. 2004-05 ikasturtea



Hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan, errepikatzaileen presentzia altuagoa da zentro publikoetan hitzartutakoetan baino. Ehuneko handiago hori hezkuntza-ziklo guztietan ikus daiteke, eta bereziki, DBHn.

Derrigorrezko Hezkuntzan errepikatutako ikasleak, zentrozen titulartasunaren arabera. 2004-05 ikasturtea




3. Euskadiko errepikatsen bilakaera

Lehen Hezkuntza eta DBH errepikatu duten ikasleen ehunekoak izan duen bilakaera aztertzen du 2000 eta 2005 ikasturteen arteko aldi akademikoan. Bost ikasturte horietan, Lehen Hezkuntzako 6. mailaren bilakaerak ia ez zuen aldaketarik izan; errepikatu zuten ikasleen proportzioa % 5 ingurukoa zen.


DBHn, aldi horretako daturik aipagarriena 4. maila errepikatzen duten ikasleen ehunekoa gutxitu izana da. DBHko 2. maila errepikatu dutenen artean, igoera txikia dago. 3. eta 4. mailako errepikatzaileen proportzioa apur bat jaitsi da epe horretan.

Euskadiko ikasle errepikatzailen % ren bilakaera




Aldi horretan, hezkuntza maila guztietan dute ikasturtea errepikatu duten mutilek neskena baino proportzio handiagoa. Bi talde horien arteko aldea handitu egiten da eskolatzean aurrera egiten duten heinean; hau da, DBHren kasuan, errepikatu egin duten nesken eta mutilen arteko aldea 10 puntu artekoa da; aldiz, Lehen Hezkuntzan, alde hori txikiagoa da.

Euskadin errepikatzen duten ikasleen ehunekoa, sexuaren arabera




Azterketa alderatzailea: Katalunia eta Euskadi

Atal honetan, 2000-2001 eta 2004-2005 ikasturteen arteko aldi mailaz igo ziren DBHko 4. mailako ikasleen ehunekoen arteko azterketa alderatzailea ageri da. Alderaketa horretan, erreferentzia gisa errepikapeneko ehunekorik baxuenak izan dituzten bi erkidegotako batez bestekoa hartu dugu: Katalunia eta Euskadi.



Aurreko grafikoan ikus daitekeen moduan, aztertutako lau ikasturtetan, DBHko 4. mailara igaro diren Euskadiko ikasleen ehunekoa altuagoa da. Kataluniak derrigorrezko eskolatzeari osoan errepikatu duten ikasleen indize baxuak ditu; baina DBHko azken ikasturtean, errepikatzaileen ehunekoa nabarmen areagotzen da eta ia batez bestekoaren berdina da.

DBHko 4. mailara igaro diren erkidego horietako ikasleen ehunekoari buruzko informazioa osatzeko, errepikatu duten ikasleen ehunekoari dagozkion datuak bildu ditugu eta hurrengo grafikoan ageri dira:



Laburpena

- Errepikapen-indize baxuek agerian utz dezakete sistema gai dela eragingarriak diren estrategia alternatiboak edo osagarriak ezartzeko. Ikasturtea errepikatzeak, gehienetan, lotura du ikaslearen porrot akademikoarekin, baina baita sistemaren porrotarekin ere: nahi diren emaitzak lortzen ez dituzten ikasleek berriro egin dezakete topo porrot eginarazi zien egoerarekin.
- Egokitasun-tasak eta, horrenbestez, arrakasta akademikoarenak nabarmen dira altuagoak emakumeen kasuan hezkuntza maila guztietan: mailaz igo diren eta adinari dagokien mailan dauden nesken proportzioa handiagoa da; era berean, ikasturtea errepikatu duten nesken ehunekoa txikiagoa da.
- Gainditu dutenen eta mailaz igo diren ikasleen ehunekoa, derrigorrezko etapetan, publikoan baino handiagoa da sare hitzartuko zentroetan.
- DBHn, zantzu positibo batzuk daude: promozioa izan duten ikasleen ehunekoa handitu egiten da eta bereziki altuagoa da beste autonomia-erkidego batzuetako datuekin alderatuz gero. Dena den, errepikatu duten ikasleak oraindik ere hezkuntza-sistemaren oinarriko erronka direla esan dezakegu, errepikapena eskola-porrotaren adierazletzat hartzen badugu. Izan ere, lehenik eta behin, Derrigorrezko Hezkuntzak duen izaera muinbakarra kontuan hartu behar da; bigarrenik, eskola-porrotak etapa hori gainditu ez duten ikasleen etorkizun akademikorako eta profesionalerako dituen ondorioak aintzat hartzekoak dira.

D. Estandarizatutako ebaluazioetan errepikatu duten ikasleen emaitzak Euskadin

Azken urteotan, Euskadiko hezkuntza-sisteman hainbat ebaluazio egin dute; ebaluazioak nazioartean, Estatu mailan zein hezkuntza-sisteman bertan egin dituzte eta horiei esker, emaitza batzuk sendoak direla ikus dezakegu. Ebaluazio horien helburuetako bat ikasleen errendimendua neurtzea da, proba estandarizatuen bidez; horietan agerian geratzen da ikasturteren bat errepikatu duten ikasleek errendimendu baxuagoa dutela. Jarraian, zehatz-mehatz ageri da ebaluaziorik esanguratsuenetan errepikatzaileek izandako errendimendua:

1.- Nazioarteko ebaluazioak

➤ PISA Proiektua

PISA nazioarteko ebaluazioa da, Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) bultzatutakoa. Hiru urtez behin egitean da, eta horren helburua 15 urteko ikasleen gaitasunak neurtzea eta alderatzea da, hiru arlotan: Irakurketa, Matematika eta Zientziak. PISA 2003 Matematikaren arloan oinarritu zen, eta PISA 2006, Zientzien arloan, dena den, neurri txikiagoan bada ere, bietan ebaluatu ziren beste bi arloak ere.
www.isei-ivei.net/publicaciones


- Euskadiren emaitzak PISA 2003n.**

15 urteko ikasleek matematikan duten errendimendua neurtzen zuten PISA 2003ren emaitzek agerian utzi zuten ikasturterik errepikatu ez zuten ikasleek puntuaziorik altuenak lortzen zituztela; emaitza haiek ikasturteren bat errepikatu zutenenak baino nabarmen altuagoak ziren.

Hurrengo taulan ageri dira DBHko hezkuntza maila bakoitzeko ikasleen ehunekoak eta talde bakoitzak proban lortutako emaitzak.

Hezkuntza maila eta Matematikako PISA 2003ren emaitzak

Hezkuntza maila	ikasleen %	Batez besteko puntuazioa	Akats tipikoa	Desb. tip. (AT)
DBHko 2. maila	1,6	391,09	11,35	75,50 (8,61)
DBHko 3. maila	22	432,47	3,04	67,77 (1,91)
DBHko 4. maila	76,3	525,22	2,65	72,00 (1,12)



DBHko 4. mailan eskolatutako ikasleek matematikan puntuazio hobeak ditu; Euskadiko batez bestekoa 24 puntutan gainditzen dute. Horien ondoren, bi ikasturte errepikatu dituzten eta emaitzarik baxuenak izan dituzten DBHko 3. mailakoak eta DBHko 2. mailakoak daude. Hala ere, esan beharrekoa da alde horiek, kasu guztietan, estatistikoki nabarmenak direla.

Gauza bera gertatzen da talde horietako ikasleek gai hauetan lortu duten errendimenduari: irakurketa, zientziak eta problemak ebaztea. Ikasturteren bat errepikatu duten ikasleek lortutako emaitzak ikasturterik errepikatu ez dutenenak eta adinaren arabera talde egokian daudenenak baino nabarmen baxuagoak dira.

Ikasleen banaketa hau izan zen **sexuari eta hezkuntza mailari dagokionez PISA 2003n**:

Maila	Maila bakoitzeko ehunekoak		
	Neskak	Mutilak	Guztira
2. DBH	1,4	1,9	% 1,6
3. DBH	15,9	28,3	% 22
4. DBH	82,8	69,7	% 76,3

15 urteko nesken % 82,8 DBHko 4. maila egiten ari ziren; hau da, adinaren arabera kokatuta zeuden. Aldiz, mutilen % 69,7 soilik zeuden zegokien ikasturtean kokatuta. Egokitasunaren ehunekorik baxuena errepikapenen kopuru handienarekin edo ikasleak maila berean egotearekin bat dator.

Talde horiek hezkuntza maila bakoitzean lortutako puntuazioa hau da:

Hezkuntza maila eta Matematikako PISA 2003ren emaitzak sexuaren arabera

Maila	Matematikako batez besteko puntuazioa		Puntuen diferentzia
	Nesak	Mutilak	
2. DBH	387,3	393,9	6,59
3. DBH	428,6	434,6	5,96
4. DBH	517,5	534,5	17,03
Batez bestekoa	501	502	1,00

Ebaluazio horretan, gainera, emaitzetan aldagarritasun gehien eragiten duen faktorea DBHko 3. mailan egotea dela egiaztatu zuten; hau da, adinaren arabera, dagokion ikasturtean egotea⁴³. % 41,3ko emaitzen guztizko bariantzatik, horren % 63,7 ikasleekin lotutako faktoreek eragindakoa zen, eta % 37,2, berriz, zentroko faktoreen bariantzaren eragina. PISA 2003ko emaitzetan, DBHko 4. mailan eskolatutako ikasleek puntuazio iraunkorra 63,48 puntutan handitzen zuten.

Horrez gain, argi geratu zen PISA 2000 ebaluazioan⁴⁴ errepikatutako ikasturteen kopurua zela irakurketako errendimenduarekin korrelazio handiena zuena eta, gainera, korrelazio negatiboa zuela; horrek eskola-porrota aurrez ikusteko tresna garrantzitsu bihurtzen zuen.

PISA 2003ren kasuan, ikasturtea errepikatzeke joera mantentzen duten herrialdeen artean, emaitzen bi profil ikus ditzakegu. Alde batetik, Frantziak, Belgikak eta Alemaniak, esate baterako, errendimenduko maila altuetan batez bestekoa baino emaitza hobekak dituzten ikasleek ehunekoak dute, eta batez bestekoa baino gutxiagokoa, mailarik baxuenetan. Aldiz, beste herrialde batzuek, Greziak, Italiak, Portugalek eta Espainiak, esate baterako, ikasleek ehuneko altuagoa dute mailarik baxuenetan, eta urria, errendimendu oneko mailetan.

Euskadiren kasuan, egoera mistoa da: errendimendu baxuko mailetan, batez bestekoaren azpitik zeuden ikasleek ehunekoak lortu zituen, baina errendimendu altuagoko mailetan zeuden ikasleek ehunekoak ere txikia zen.

PISA 2003. Matematikako emaitzak eta errendimendu maila bakoitzeko ikasleek %

	Batez bestekoa	0 eta 1. mailak	2, 3 eta 4 mailak	5 eta 6. mailak
		%	%	%
Errepikapena duten herrialdeak				
Belgika	529	16,5	57,1	26,4
Frantzia	511	16,6	68,3	15,1
Austria	506	18,8	66,9	14,3
Alemania	503	21,6	62,2	16,2
Euskadi	502	16,3	74	9,7
Luxenburgo	493	21,7	67,5	10,8
Espainia	485	23	69,1	7,9
Italia	466	31,9	61	7
Portugal	466	30,1	64,6	5,4
Grezia	445	38,9	57,1	4
Promozio automatikoa duten herrialdeak				
Finlandia	544	6,8	69,9	23,4
Islandia	515	15	69,5	15,5
Danimarka	514	15,4	68,7	15,9
Suedia	509	17,3	66,9	15,8
Erresuma Batua	508	17,8	67,4	14,9
Irlanda	503	16,8	71,8	11,4
Norvegia	495	20,8	67,8	11,4
ELGAko batez bestekoa	500	21,4	63,9	14,7

⁴³ ISEI-IVEI. "Segundo informe de la Evaluación PISA 2003. Resultados en Euskadi". 94. or. www.isei-vei.net/publicaciones

⁴⁴ INECSE: Resultados en España del Estudio PISA 2000. Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa. 2005. 68. or.

- Euskadiren emaitzak PISA 2006n.


PISA 2006 ebaluazioan, berriro egiaztatu genuen ikasturteren bat errepikatu zuten ikasleek errepikatu ez zutenek eta DBHko 4. maila egiten ari direnek baino nabarmen baxuagoak ziren emaitzak lortu zituztela zientzietan. Alde handi horiek zientzien arloan (PISAren edizio hartako ebaluazio-eremu nagusia zen) zein irakurketan eta matematikan ikus ditzakegu.

Hezkuntza maila eta Zientzietako PISA 2006ren emaitzak

Hezkuntza maila	% ikasleak	Batez besteko puntuazioa	Akats tipikoa	Desb. tip. (AT)
2. DBH	3,9	366,2	7,3	70,4 (6,5)
3. DBH	19,7	429,6	3,6	67,8 (2,6)
4. DBH	76,4	518,0	3,3	72,8 (1,5)

Euskadiko 15 urteko ikasleek zientzien ikasgaietan lortutako batez besteko puntuazioa 495 puntukoa izan da. Dena den, bakoitzaren maila akademikoaren arabera aldeak handiak dira. DBHko 4. mailako ikasleek emaitza hobekiak izan dituzte; ikasturtea errepikatu dutenekin alderatuta, 89 puntu gehiago izan dituzten eta 152 puntu gehiago DBHko 2. mailan daudenekin eta, ustez, 2 ikasturte errepikatu dituztenekin alderatuta. Hala ere, esan beharrekoa da alde horiek, kasu guztietan, nabarmenak direla.

Zientzietako emaitzak PISA 2006 Hezkuntza mailaren arabera



Ikasleen banaketa hau izan zen **sexuari eta hezkuntza mailari dagokionez PISA 2006n**:

Maila	Maila bakoitzeko ehunekoak		
	Nesak	Mutilak	Guztira
2. DBH	2,7	5,1	3,9
3. DBH	14,2	25,2	19,7
4. DBH	83,1	69,6	76,4

15 urteko nesken % 83,1 DBHko 4. maila egiten ari ziren; hau da, adinaren arabera kokatuta zeuden. Aldiz, mutilen % 69,6 soilik zeuden ikasturte horretan kokatuta. Egokitasunaren ehunekorik baxuena errepikapenen kopuru handienarekin edo ikasleak maila berean egotearekin bat dator.

Talde horiek hezkuntza maila bakoitzean lortutako puntuazioa hau da:

Hezkuntza maila eta zientzietako PISA 2006ren emaitzak sexuaren arabera

Maila	Zientzietako batez besteko puntuazioa		Puntuen diferentzia
	Neskak	Mutilak	
2. DBH	361,6	368,6	7
3. DBH	426,1	431,6	5
4. DBH	512,2	524,8	13
Batez bestekoa	495,9	493,3	3

➤ TIMSS ebaluazioa

International Association for the Evaluation of Educational Achievement erakundeak (IEA) egindako TIMSS azterketak lau urtez behin biltzen du hainbat herrialdetan Matematika eta Zientzien irakaskuntzari buruzko informazio zabala. 2003an, Euskadik ebaluazio horretan parte hartu zuen 2. DBHko mailari dagokion lagin adierazgarriekin.
www.isei-ivei.net/publicaciones

• Euskadiren emaitzak TIMSS 2003n.

Jarraian, Euskadik TIMSS 2003 proban lortutako emaitzak ageri dira ebaluatutako arloetan (matematika eta zientziak) ikasturteren bat errepikatu zutenen eta errepikatu ez zutenen artean banatuta.

Ikasturtea errepikatzea eta Matematikako emaitzak. TIMSS 2003

	Kopurua	%	Batez bestekoa	Aldea
Ez du errepikatu	2.029	80,7	498	
Ikasturtea errepikatu du	485	19,3	442	56

Ikasturtea errepikatzea eta Zientzietako emaitzak. TIMSS 2003

	Kopurua	%	Batez bestekoa	Aldea
Ez du errepikatu	2.029	80,7	496	
Ikasturtea errepikatu du	485	19,3	457	39

Ikasleen % 81 adinaren arabera zegoen mailan ari zen ikasten; aldiz, % 19k ikasturteren bat errepikatu zuen. Bi taldeen artean, 56 puntuko aldea zegoen Matematikako emaitzetan, eta 39koa Zientzietan. Alde horiek, bi kasuetan, estatistikoki azpimarragarriak dira.

Datuak sexuaren arabera aztertzen baditugu, ikasturtea errepikatu duten mutilen ehunekoak neskena ia % 9n gaitzen duela ikusiko dugu.

Ikasturtea errepikatzea eta Matematikako emaitzak sexuaren arabera. TIMSS 2003

	%	Neskak		Mutilak		Aldea
		Batez best	%	Batez beste		
Ez du errepikatu	85,2	499	76,4	496		+3
Ikasturtea errepikatu du	14,8	439	23,6	445		-6
Aldea		60		52		

Matematikaren arloan, errepikatu duten eta errepikatu ez duten neskek lortutako emaitzen artean 60 puntuko aldea ikus daiteke (azken horiek 60 gehiago). Mutilen kasuan, aldea 52 puntukoa da. Bi kasu horietan, ikasle egokien eta errepikatzaileen arteko aldeak nabarmenak dira.

Ikasturtea errepikatzea eta Zientzietako emaitzak sexuaren arabera. TIMSS 2003

	%	Neskek		Mutilak		Aldea
		Batez bestekoa	%	Batez bestekoa	%	
Ez du errepikatu	85,2	489	75,4	504	-15	
Ikasturtea errepikatu du	14,8	437	24,6	469	-32	
Aldea		52		35		

Era berean, Zientzietan, errepikatu dutenek errepikatu ez dutenek baino nabarmen baxuagoak diren emaitzak izan dituzte. Nesken arteko aldea 52 puntukoa da; alde hori 35 puntutara gutxitzen da errepikatu duten eta errepikatu ez duten mutilen kasuan.

Errepikatzaileen batez besteko emaitza orokorra (442 puntu matematikan eta 457 zientzietan) nabarmen baxuagoa da errepikatu ez zutenekin alderatuta. Emaitza hori TIMSSeko maila baxuarekin ⁴⁵ bat dator. Dena den, ikasturtea errepikatu zuten maila horretako ikasle batzuek lortu zuten puntuazio altuagoa hurrengo taulan ikus daitekeen moduan. Proba hori maila altuko eta tarteko ikasleek soilik gainditu zutela kontuan hartzen badugu, onartu beharrekoa da errepikatu zuten ikasleen % 29k gainditu zuela TIMSS proba Matematikan, eta % 36k, Zientzietan.

Errepikatzaileen emaitzak TIMSS 2003n izandako errendimendu mailen arabera

Maila	Matematika		Zientziak	
	%	Batez bestekoa	%	Batez bestekoa
Oso baxua	22,8	369	18,1	370
Baxua	48,5	437	45,8	439
Tartekoa	25,9	503	27,5	507
Altua	2,8	568	8,6	577
Aurreratua	-		-	

- Euskadiren emaitzak TIMSS 2007n.

Jarraian, Euskadik TIMSS 2007 proban lortutako emaitzak ageri dira ebaluatutako arloetan (Matematika eta Zientziak) ikasturteren bat errepikatu zutenen eta errepikatu ez zutenen artean banatuta.

Ikasturtea errepikatzea eta Matematikako emaitzak. TIMSS 2007

	Kopurua	%	Batez beste	Aldea
Ez du errepikatu	1.850	80,6	511,9	68,5
Ikasturtea errepikatu du	446	19,4	443,4	

Ikasturtea errepikatzea eta Zientzietako emaitzak. TIMSS 2007

	Kopurua	%	Batez beste	Aldea
Ez du errepikatu	1.850	80,6	508,6	56,2
Ikasturtea errepikatu du	446	19,4	452,4	

Adinaren arabera dagokien mailako ikasketak egiten ari ziren ikasleen ehunekoak 2003. urtean egindako ebaluazioan lortutakoaren berdina da (% 81); dena den, lortutako puntuazioak nabarmen hobetu dira bi gai horietan. Errepikatu duten ikasleen taldean ia ez da aldaketarik izan bi urteetako puntuazioan. Egokien eta errepikatzaileen arteko aldea 68,5 puntukoa da Matematikan, eta 56koa, Zientzietan; alde horiek, bi kasuetan, estatistikoki azpimarragarriak dira.

⁴⁵ TIMSS ebaluazioak bost maila ditu: Aurreratua (>625), Altua (625-550), Tartekoa (550-475), Baxua (475-400) eta Oso Baxua (>400). Emaitzen lehen txostena, 37. orrialdean.

Datuak sexuaren arabera aztertzen baditugu, ikasturtea errepikatu duten mutilen ehunekoak neskena % 9n gainditzen duela ikusiko dugu.

Ikasturtea errepikatzea eta Matematikako emaitzak sexuaren arabera. TIMSS 2007

	%	Neskak		Mutilak		Aldea
		Batez bestekoa	%	Batez bestekoa	%	
Ez du errepikatu	85	507,1	76	516,7	-9,6	
Ikasturtea errepikatu du	15	433,3	24	449,2	-15,9	
Aldea		73,8		67,5		

Errepikatu duten nesken eta egokitasun-egoeran dauden nesken artean matematikako emaitzetan dagoen aldea 74 puntukoa da; hau da, TIMSS 2003n baino handiagoa. Mutilen arteko aldea ere areagotu egin da eta 67 puntukoa da. Bi kasu horietan, aldeak estatistikoki azpimarragarriak dira.


Ikasturtea errepikatzea eta Zientzietako emaitzak sexuaren arabera. TIMSS 2007

	%	Neskak		Mutilak		Aldea
		Batez bestekoa	%	Batez bestekoa	%	
Ez du errepikatu	85	499,3	76	518,3	-19	
Ikasturtea errepikatu du	15	435,6	24	462	-26	
Aldea		63,7		56,3		


Era berean, Zientzietan, errepikatu dutenek errepikatu ez dutenek baino nabarmen baxuagoak diren emaitzak izan dituzte. Nesken arteko aldea 64 puntukoa da; alde hori 56 puntutara gutxitzen da errepikatu duten eta errepikatu ez duten mutilen kasuan. Biak TIMSS probaren aurreko edizioan jasotakoak baino handiagoak dira.

Errepikatzaileek TIMSS 2007k Zientzietan eta Matematikan proposatutako 5 errendimendu mailen artean duten banaketa eta Euskadik TIMSS proban parte hartu duen bi edizioetan izandako bilakaera aztertzen baditugu, emaitza jarraian ageri den grafikoan ikusi ahalko dugu:

TIMSS errendimendu mailetan ikasle errepikatzaileen ehunekoa Matematika



TIMSS errendimendu mailetan ikasle errepikatzaileen ehunekoa Zientzietan



Bi gai horietan, igoera txikia gertatu da ikasleen ehunekoan tarteko mailan, maila altuan eta aurreratuan; aldiz, jaitsiera arina izan da maila baxuko ehunekoan, eta handitu egin da oso maila baxuan kokatuta dauden ikasle errepikatzaileen ehunekoa, batez ere zientzien arloan.

Laburbilduz, aipatutako nazioarteko bi ebaluazioek hainbat ikerketa alderatzaile sorrarazi dituzte ikasturtea errepikatzearen aldeko apustua egin duten herrialdeek eta promozio automatikoa nahiago dutenek lortutako errendimenduaren inguruan. Hasieran, emaitzak errepikapena erabiltzen duten herrialdeetan hobeak izango zirela uste zuten, errepikapena erabiltzen ez duten edo salbuespen moduan erabiltzen duten herrialdeekin

alderatuta, laginak, teoriarik, ez baitu atzerapena bildu duen ikaslerik jasotzen. Baina hipotesi hori ez da kasu guztietan egiaztatu⁴⁶.

Alderaketa horiek agerian uzten dute aldagai bakarra duen azterketak ("ikasturtea errepikatzea edo gaintitzea", esate baterako) ezin duela bere horretan soilik azaldu eta deskribatu hezkuntza-sistemaren errendimendua bezain egoera konplexua. Edonola ere, sistemaren beste aldagai batzuekin batera aztertu beharko litzateke; adibidez: erabaki horiekin batera abian jartzen diren neurri osagarriak, eskola-porrota arintzeko hezkuntza-sistemek garatzen dituzten programak, ikasgelako ebaluazio motak, hezkuntza-arloan egindako gastua, zentroen autonomia eta abar.

2.- Estatuko eta Euskadiko beste ebaluazio batzuk.

➤ Lehen Hezkuntza 2004

1999an egindakoaren jarraipena den eta 2004an egindako ebaluazio honekin jakin nahi da Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek Euskara, Gaztelania, Matematika eta Gizarte eta Natura Ingurunearen Ezagueraren arloetan curriculum ofizialean finkatutako edukiak zer neurritan bereganatu dituzten.


www.isei-ivei.net/publicaciones

Beste ebaluazio batzuetan bezalaxe, Lehen Hezkuntzako ebaluazioan lotura argia dago ikasturtea errepikatu izanaren eta lortutako errendimenduaren artean.

Bildutako informazioak ikasleak bi kategoriatan sailkatzen ditu:

- Ikasturtea errepikatu ez duten 6. mailako ikasleak.
- Lehen Hezkuntzan ikasturtea errepikatu duten 6. mailako ikasleak.

Lehen Hezkuntzako 6. mailako ebaluazioa 2004an




⁴⁶ Marchesi. Op. cit.

Hamar ikasle bategatik ikasturtea errepikatu du Lehen Hezkuntza amaitu aurretik. Ez dago alde nabarmenik errepikatu duten nesken eta mutilen artean.


Ebaluatutako gaien inguruan (gaztelania eta euskara, matematika eta inguruaren ezaguera gaiak, Euskadiko curriculum espezifikoa eta Estatuko komunari dagozkionak) jarraian ageri diren grafikoetan ikus daitezkeen moduan, ikasturtea errepikatu duten ikasleek errepikatu ez duten ikasleek baino emaitza baxuagoak dituzte kasu guztietan; alde horiek estatistikoki azpimarragarriak dira.

Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta ikasturterik errepikatu ez duten ikasleek 40 puntutan edo gehiagotan gainditu dituzte beren emaitzak Inguruaren Ezaguerako eta Matematikako probetan. Hizkuntza-arloetan, egokitasun-egoerako ikasleek lortutako emaitzek errepikatu dutenenak 30 puntutan baino gehiagotan gainditu dituzte.


Euskara: TRI puntuazioak ikasturte bat errepikatzearen arabera




Gaztelania: TRI puntuazioak ikasturte bat errepikatzearen arabera




Inguruaren Ezaguera (Euskadiko curriculum): TRI puntuazioak ikasturte bat errepikatzearen arabera



Matematika: TRI puntuazioak ikasturte bat errepikatzearen arabera



Inguruaren Ezaguera (Curriculum komuna): TRI puntuazioak ikasturte bat errepikatzearen arabera



Hitz gutxitan, hau ondoriozta dezakegu:

- Ebaluazio horietan errepikatu duten ikasleen errendimenduko datuak oso sendoak dira.
 - Guztietan ikusten da modu konstantean eta antzerakoan ikasturtea errepikatzeak ez dirudiela eskola-porrota duen ikaslearen gaitasunak hobetzeko eta ikasleak aurreko ikasturteetan lortu ez zituen ikaskuntzak eskuratzeko neurri eragingarria.
- Faktore hori da (errepikatutako ikasturte kopurua) errendimenduari korrelazio handiena duena. Hori dela eta, eskola-porroterako oso auresale garrantzitsua dela esan dezakegu aipatu ditugun ikerketa ugarietan ikus daitezkeen moduan.

ONDORIO OROKORRAK

IV. ONDORIOAK

Jarraian ageri diren ondorio orokorrak txostena prestatzeko erabili ditugun hiru informazio-iturriri esker atera ditugu:

- eskolatzetasei, egokitasun-tasei, eskola utzi dutenen tasei eta abarrei buruz gaiari bildutako datu bibliografikoak nazioartean eta Euskadin.
- TIMSS 2007 izeneko nazioarteko probako galdetegiari bete zuten DBHko 2. mailako ikasleek lortutako emaitzei buruzko datuak.
- hauek betetako galdetegi espezifikoetan jasotako iritziak:
 - DBHko 2. mailako ikasleak, Euskadiko hezkuntza maila horren erakusgarria den lagina.
 - Aipatutako ikasleen zentroetako ikasketen buruzagitzak; lagin hau ez da ikasketetako buruen lagin adierazgarria.

Ondorioetako bakoitzak, horiek justifikatzen dituzten datu estatistikoekin batera, ulermen egokirako behar adinako informazioa biltzen du; dena den, hemen aurkezten ditugun hausnarketak hobeto sakontzeko, baliteke beharrezkoa izatea zentroetako ikasketaburuek eta ikasleek betetako galdetegiarekin, eta TIMSS 2007ren errendimenduarekin lotura duten azterketa deskriptiboari dagozkien erantsitako kapituluak irakurtzea.

Gaiaren egoeran bildutako informazioarekin lotutako ondorioen helburua Euskadiko hezkuntza-sistemaren ezaugarriak islatzea da, egokitasun-egoeran dauden ikasleen tasei, ikasturtea errepikatu duten ikasleen tasei, derrigorrezko hezkuntza arrakastaz gainditzea lortu duten ikasleei eta abarrei dagokienez. Emaitza horiek guztiak nazioarteko ebaluazioetan lortutakoak dira, ikaslearen egoera akademikoaren arabera.

Galdetegiak oinarri dituzten ondorioek lotura espezifikoagoa dute eskolatutako zentroetako buruzagitzek eta ikasleek errepikatzeak kauekin, horien baliozkotasunarekin eta ikasgelako ebaluazioetan ateratako emaitzearekin lotuta dituzten iritziarekin.

TIMSS 2007 proba oinarri duten ondorioek ikasleek ikasgelan lortutako ebaluazioetako emaitzak ikasle horiek TIMSS 2007 kanpoko proban lortutako puntuazioekin lotzen dituzte.

EUSKADIKO HEZKUNTZA SISTEMAN GAIAREN EGOERAREN INGURUKO ONDORIOAK:

- 1. Euskadik, autonomia-erkidegoen artean, ikasleen egokitasuneko ehunekorik altuenetako bat du Derrigorrezko Hezkuntzako etapan; hori dela eta, ikasturtea errepikatzen dutenen tasari baxuenetakoak ditu.**

• Egokitasun-tasak.

Lehen Hezkuntza zein DBH amaitzean, Euskadiko ikasleen egokitasun-tasak altuenak izan dira azken 10 urteotan gainerako Autonomia-Erkidegoetako datuekin alderatzen baditugu.

Autonomia-erkidego bakoitzean Lehen Hezkuntza burutu duten 12 urteko ikasleen ehunekoa (Egokitasun-tasen bilakaera⁴⁷⁾⁴⁸

	1994-95	1999-2000	2004-05	2005-06
Ceuta	62,7	75,8	72,5	72,5
Balear uharteak	74,9	81,4	76,4	76,1
Kanariar uharteak	67,3	80,7	77	76,4
Murtzia	77,4	85,8	80	79,1
Melilla	57,4	75,3	79,8	80,7
Gaztela-Mantxa	80,1	86,6	83,1	82,1
Galizia	78,9	85,7	83,8	83,2
Extremadura	76,9	86,8	84,2	83,3
Gaztela eta Leon	83	88,6	83,7	83,6
GUZTIRA	79,7	87,5	84,3	84,2
Madrilgo Komunitatea	85,9	89,3	84,9	84,3
Kantabria	81,7	88,9	86,4	84,3
Asturias	84	90,2	87,4	84,5
Aragoi	87,5	90,3	85,5	84,6
Andaluzia	72,1	85	81,4	84,7
Nafarroa	86,8	92,1	87	85,4
Valentzia	79,9	88,2	86,4	86,6
Euskadi	86,9	91	88,1	87,9
Errioxa	88,5	91,6	87,3	88,5
Katalunia	85,2	92	90,5	90,4

* 2005-2006ko ikasturtearen arabera eta egokitasun-tasarik txikienetik handienara ordenatuta.

Lehen Hezkuntza 12 urterekin amaitu duten Euskadiko ikasleen egokitasun-tasa Estatuko batez bestekoa baino altuagoa da aztertutako ikasturte guztietan.

Hezkuntza Ministerioak adinaren arabera dagokion mailan eskolatutako 15 urteko ikasleekin lotuta emandako datuak erreferentziatzat hartzen baditugu (DBHko 4. maila), Euskadi da egokitasun-tasarik altuena duena.

Taulan ikus daitekeen moduan, 2005-2006 ikasturtean, 15 urteko ikasleen Estatuko egokitasun-tasa % 57,7koa zen; aldiz, urte berean, Euskadiko tasak ehuneko hori 13 puntu bano gehiagoan gainditzen zuen. Izan ere, DBHko 4. mailan eskolatutako 15 urteko ikasleen ehunekoa 71,1ekoa zen.

**15 urteko ikasleen ehunekoa 4. DBHn autonomia-erkidegoen arabera
Egokitasun-tasa. 2005-06 ikasturtea.⁴⁹**

Ceuta	43
Melilla	48,7
Kanariar uharteak	50,8
Balear uharteak	51,3
Extremadura	51,7
Gaztela-Mantxa	53,5
Murtzia	54,6
Valentzia	55,7

⁴⁷ Egokitasuna: Adin kronologikoari dagokion ikasturtean matrikulatuta dauden eta, horrenbestez, ikasturterik errepikatu ez duten ikasleen ehunekoa.


⁴⁸ Iturria: Las cifras de la Educación en España. Estadísticas e Indicadores. 2006ko edizioa eguneratuta eta 2008 (web orri honetatik hartuta: MEC/ Estadísticas/ educación/ Las cifras de la Educación en España. Estadísticas e Indicadores). <http://www.mec.es>

⁴⁹ Hezkuntza, politika sozial eta kiroletako Ministerioa. Hezkuntzako Estatistikak. Las cifras de la Educación en España. Estatistikak eta Adierazleak. 2008ko edizioa.

Kantabria	57,2
GUZTIRA	57,7
Andaluzia	57,7
Gaztela eta Leon	58,2
Galizia	58,3
Errioxa	58,9
Aragoi	59,0
Madrilgo Komunitatea	59,3
Asturias	62,4
Nafarroa	66,6
Katalunia	68,5
Euskadi	71,1

* Egokitasun-ehunekorik txikienetik handienara ordenatuta

Grafikoan Euskadiko 15 urteko ikasleek 2001-02 ikasturtetik hasi eta 2005-06 ikasturtera arte agertu dituzten egokitasun-tasen bilakaera eta Estatuko batez bestekoaren bilakaerarekiko alderaketa ikus daitezke. Euskadiren kasuan, nahiko egonkor mantendu da (% 70, gutxi gorabehera); aldiz, Estatuko batez bestekoa pixkanaka gutxitu egin da, eta 2005-06 ikasturtean, % 58koa zen.



Ikasleen sexua aintzat hartzen badugu, Euskadin, Lehen Hezkuntzan zein DBHn, nesken eta mutilen taldeari dagozkion egokitasun-tasak altuagoak dira Estatuan dagozkien batez bestekoak baino.

• Ikasturtea errepikatu duten ikasleen datuak

Ikasturtea errepikatu duten ikasleen datuek egokitasun-tasa altuari buruzko informazioa osatzen dute. Gainerako autonomia-erkidegoekin alderatuz gero, Euskadik, adin guztietan, errepikapen-indizerik baxuenetakoa du; batez ere, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari dagozkion datuetan.

**Lehen Hezkuntzako errepikapenen ehunekoa autonomia-erkidegoen arabera.
2004-2005 ikasturtea**

	2. maila	4. maila	6. maila
GUZTIRA	3,6	3,9	5,9
Aragoi	4,7	5,6	7,4
Asturias	3,9	3,5	5,7
Balear Uharteak	7,1	7,7	8,9
Kanariak	7	6,2	9,4
Kantabria	3,4	4,3	6
Gaztela eta Leon	4,8	5,6	7,5
Gaztela-Mantxa	5,4	5,4	7,3
Katalunia	1,6	1,1	1,5
Ceuta	6,7	7,6	9,1
Valentziako komunitatea	1,4	2,7	6,8
Extremadura	4,3	5,2	6,7
Galizia	3,1	3,7	5,4
Madrilgo Komunitatea	4,3	4,6	6,2
Melilla	6,9	7,4	8,2
Murtzia	5	5,6	8,7
Nafarroa	3,5	3	4
Euskadi	2,9	3,2	4,2
Errioxa	2,6	2,2	4

Iturria: Zientzia eta Hezkuntza Ministerioako Estatistika Bulegoa. Unibertsitatekoak ez diren mailetako Espainiako Irakaskuntzaren inguruko informazioa.

**DBHko errepikapenen ehunekoa autonomia-erkidegoen arabera.
2004-2005 ikasturtea**

	1. DBH	2. DBH	3. DBH	4. DBH
GUZTIRA	14,8	21,1	17,8	12
Aragoi	15,6	22,5	17,1	9,7
Asturias	14,3	21,2	19,3	10,1
Balear uharteak	16,6	24,3	18,2	12,6
Kanariar uharteak	19,1	28,4	21,5	14,8
Kantabria	14,7	23,3	18,7	13,3
Gaztela-Mantxa	19,1	28,1	19,3	12,4
Gaztela eta Leon	15,4	23,4	19,7	11,6
Katalunia	10,6	14,1	15,1	13,7
Ceuta	17,8	24,8	19,4	17,1
Valentzia	14,7	20,5	18,7	10,4
Extremadura	19,0	28,3	23,1	14,4
Galizia	14,8	21,3	17,4	9,5
Madrilgo Komunitatea	15,5	22,2	17,8	12,7
Melilla	21,1	29,6	16,4	10,4
Murtzia	17,2	23,3	18	11,4
Nafarroa	9,7	13,9	12,1	9,5
Euskadi	9,2	14,2	11,5	9,4
Errioxa	17,2	23,1	18,4	10,9

ISEI-IVEIk prestatutako lana, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak 2004-05 ikasturterako emandako datuak oinarritzat hartuta. Andaluziak ez zuen daturik eman.

2004-2005 ikasturteko datuen arabera, errepikapen-tasarik baxuena zuten mailak hauek ziren: DBHko 1.a, 3.a eta 4.a. Errepikapeneko indizerik handiena DBHko 2. mailakoa da; baliteke horren arrazoa une hartan indarrean zegoen araudiaren aplikazioa izatea; izan ere, behar izanez gero, errepikapenak zikloa amaitzean egitea proposatzen zuen araudiak. Euskadik du errepikatzaileen indizerik baxuenetako bat maila guztietan; DBHko 2. mailaren kasuan, ikasleen % 14,2k errepikatu zuten eta zifra hori Estatuko batez bestekoa (% 21,1) nabarmen baxuagoa da.

• PISA 2006 lagineko 15 urteko ikasleen datuak

PISA 2006 ebaluazioan parte hartu zuten 15 urteko ikasleen inguruko datuek ere berretsi egin dute Euskadiko hezkuntza-sistemako egokitasun-tasa altua eta errepikapenen ehuneko baxua. Zabalduko laginarekin ebaluazioan parte hartu zuten eta hezkuntza-testuinguru komuna duten autonomia-erkidegoekin alderatuta, dagokion adinarekin eskolatzean jarraitzen duten ikasleen ehunekorik altuena Euskadin dagoela ikus dezakegu; hau da, errepikapenen ehunekorik txikiena duen autonomia-erkidegoa da.

Hurrengo taulan, DBHko 2. eta 3. mailai dagozkien zutabeek maila horietan eskolatutako 15 urteko ikasleen ehunekoa erakusten dute; hau da, urte bat edo bi errepikatu dituztenen ehunekoa. Kasu guztietan, Euskadiko ehunekoa Estatuko batez bestekoa baino baxuagoa da. DBHko 2. mailan 15 urterekin dauden eta, ustez, bi ikasturte errepikatu dituzten ikasleen ehunekoa baxuena da Kataluniakoarekin batera. DBHko 3. mailan dago errepikatu duten ikasleen ehunekorik txikiena.

DBHko 4. mailari dagokion zutabeak erakusten du dagokion adinaren arabera mailan dauden ikasleen ehunekoa. Euskadin, ikasleen % 76,3 daude 4. mailan; hau da, 2006. urteari dagokion PISA ebaluazioko lagineko egokitasun-tasarik altuena du.

15 urteko ikasleen ehunekoa hezkuntza mailaren eta autonomia-erkidegoaren arabera.
PISA 2006 lagineko datuak

	2. DBH	3. DBH	4. DBH
Euskadi	3,90	19,68	76,37
Nafarroa	4,63	25,09	70,24
Katalunia	3,10	27,06	69,77
Asturias	6,09	28,09	65,70
Aragoi	6,99	30,59	62,38
Gaztela eta Leon	6,38	31,36	62,26
Errioxa	5,19	32,55	62,20
Galizia	10,66	28,72	60,62
Kantabria	6,52	32,92	60,56
Andaluzia	10,13	37,24	52,32
Espainia	7,04	33,00	59,84

2. Egokitasun-tasa altua izateaz gain, Euskadik Europar Batasuneko batez bestekoaren inguruko mailak ditu alderdi hauetan:

- DBHn graduatua lortu duten ikasleen ehunekoa.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondorengo ikasketak amaitu dituzten ikasleak.
- derrigorrezko eskolatzea amaitzean prestakuntzarekin aurrera jarraitzen duten pertsonak eta
- derrigorrezko aldia amaitu aurretik eskola utzi dutenen tasa baxua.

1995 eta 1998 artean, Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA)⁵⁰ eskola-porrotari buruzko proiektua eta fenomeno horren hiru alderdi azpimarratzen zituen txostena prestatu zuen. Lehenengoak ikasleen errendimendu akademiko baxua aipatzen zuen; bigarrenak, aldiz, DBHn graduatua edo herrialde bakoitzean dagokion titulazioa lortu gabe ikasketak utzi izana. Azkenik, hirugarrenak prestakuntza egokia lortu ez duten ikasleentzat horrek ekarri ohi dituen gizarte- eta lan-arloko ondorioak biltzen zituen.

⁵⁰ OCDE (1998) Overcoming failure at school, Paris, OCDE

Eskola-porrotaren lehen adierazpena, errendimendu akademikoa, ikasturtea errepikatu dutenen eta egokitasun-egoeran daudenen tasen bidez neur daiteke. Lehen ere aipatu dugun moduan, Euskadin ikasturteren bat errepikatu duten ikasleen ehunekoa konparatiboki baxua da. Dena den, errepikapenen ehuneko baxuak ez du bermatzen mailaz igotzea lortu duten ikasleek eskolatze-aldia dagokion titulazioarekin amaituko dutenik edo ikasle horiek derrigorrezkoen ondorengo ikasketekin aurrera egingo dutenik. Hori dela eta, edozein hezkuntza-sistematako kalitate-parametrotzat har daitezkeen eskola-porroteko bi adierazpen hauek aztertzen dira batera.

• **DBHn graduatua lortu duten ikasleen ehunekoa.**

DBHn graduatu titulua lortu duten ikasleen ehunekoak aztertzen baditugu, oinarrizko titulazio hori lortu duten ikasleen tasarik altuenak dituzten erkidegoak Euskadi eta Nafarroa direla ikusiko dugu. Ikasturte ugaritako datuak ditugunez, denboran datuak egonkorak direla esan dezakegu. Erreferentziatzat 2004-2005 ikasturtea hartzen badugu (datuak eskuragarri dauden azken ikasturtea da), DBHn graduatua lortu duten ikasleen kopururik handiena duen autonomia-erkidegoa Euskadi dela ikusiko dugu.

**DBHn graduatua lortu duten ikasleen ehunekoaren bilakaera.
Autonomia-erkidegoak. 2001etik 2005era arteko ikasturteak**

	2001-02	2002-03	2003-04	2004-05
Ceuta	63	63	73	69
Valentzia	74	75	77	73
Extremadura	69	61	74	75
Katalunia	70	70	70	76
Andaluzia	70	73	74	76
Murtzia	74	75	75	77
Kanariar uharteak	69	71	72	78
Balear uharteak	75	73	74	78
Madrilgo komunitatea	73	75	77	78
Kantabria	76	79	76	79
Gaztela-Mantxa	71	74	76	79
Gaztela eta Leon	74	75	79	80
Melilla	74	70	74	81
Galizia	75	77	79	81
Aragoi	79	82	80	83
Errioxa	74	75	79	84
Asturias	79	81	80	84
Nafarroa	83	84	84	85
Euskadi	80	81	84	86

Iturria: Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa, 2001-02 ikasturteetik hasi eta 2004-05era artekoak.

OHARRA: datu horiek ISEIk prestatu ditu aipatutako ikasturteetan DBHko 4. mailarako matrikulatutako eta mailaz igo diren ikasleak kontuan hartuta. Webgune honetatik aterata: MEC/estadísticas de la educación.

Euskadin, egokitasun-egoeran dauden (ikasturterik errepikatu ez dutenak) ikasleen ehunekoa handia izateaz gain, DBHn graduatua lortu duten ikasleen ehunekoa ere altua da. DBHko titulazioa lortu duten ikasleen % 86 horretatik, gutxi gorabehera, % 16 ikasturteren bat errepikatu duten ikasleena dela ondoriozta dezakegu.

Egokitasun-tasa DBHko 4. mailan eta graduatuen ehunekoa. 2004-2005 ikasturtea


	Euskadi	Katalunia	Nafarroa
Egokitasun-tasa DBHko 4. mailan	69,5	70,3	67,9
DBHn graduatua lortu dutenen ehunekoa	86	76	85

Lehen aipatu dugun ELGaren txostenaren arabera, derrigorrezko hezkuntzako aldia biztanleria osoarentzat oinarrizko prestakuntza bermatzeko gutxieneko denbora da, baina hezkuntza-sistemek herritar guztientzat ahalik eta prestakuntza handiena lortzea izan beharko lukete helburu. Euskadin, ikasturteren bat errepikatu

duten ikasleen ehunekoa baxua da eta derrigorrezko ikasketak amaitu eta DBHko graduatua lortu dutenena, aldiz, altua da, baina zer gertatzen da derrigorrezko eskolatze-aldia amaitu denean? Derrigorrezko ikasketen ondorengoak osatu dituzten edo heziketa utzi duten ikasleen inguruko datuek horren inguruko informazioa eskaintzen dute.

- **Dagokion adinean derrigorrezkoaren ondorengo Bigarren Hezkuntza osatu duten ikasleen ehunekoa.**

Hezkuntza-sistemaren kalitatea ezagutzeko erabil daitekeen beste datu osagarri bat aurrez ikusitako adinean derrigorrezkoaren ondorengo bigarren Hezkuntza amaitu duten ikasleen ehunekoa ezagutzea da. “Education at a Glance 2006” txostenaren arabera, 2003-04 ikasturtean, prestakuntzako aldi hori hasi zuten Espainiako estatuko ikasleen % 66k soilik amaitu zuen batxilergoko ikasketak edo erdi mailako heziketa-zikloak zegokion adinean; aldiz, ELGAko herrialdeetako batez bestekoa % 81ekoa izan zen. Euskadin, adinaren arabera zegokion mailan matrikulatutako ikasleen % 79,4k⁵¹ amaitu zuen derrigorrezkoaren ondorengo bigarren hezkuntza.




Osagarritzat har daitezkeen 2005-2006⁵² ikasturtearen inguruko beste datu batzuk 20 eta 24 urte arteko adin-tarteko biztanleen ingurukoak dira. Horiek jarraian ageri den grafikoan daude bilduta eta Euskadiko ikasleen % 81,2k adin horretan derrigorrezkoen ondorengo ikasketetan titulazioaren bat lortzen duela jartzen du. Europar Batasuneko batez bestekoa (% 77,8) baino altuagoa du, baina oraindik 2010. urterako Batasunak aurrez ikusitako helburua (% 85 lortzea) ez du erdietsi.

⁵¹ Euskadiko Hezkuntza Ikuskaritzak emandako datuak 2003-2004 ikasturtearen inguruan “Eskola uztea.DBH-ko bigarren zikloa” lanean. ISEI-IVEI (2007).


⁵² ISEI-IVEI. Hezkuntza adierazleak euskal sisteman. Iturria: EUSTAT. 2007ko ekaina

Derrigorrezkoaren ondorengo Bigarren Hezkuntzako titulazioa duen 20-24 urteko biztanleria.
2006. urtea




Autonomia-erkidegoen arabera, 20 eta 24 urte artean derrigorrezkoaren osteko ikaskuntzan titulazioa lortu duten 20 eta 24 urte arteko biztanleriaren inguruko datuak jarraian ageri den taulan ikus daitezke. 2006. urtean, Euskadi bigarren erkidegoa izan zen (% 81,2) hezkuntza-aldi hori behar bezala amaitu zuten ikasleen ehunekorik handiena izan zutenen artean (Nafarroak bakarrik gainditu zuen % 82,9ekin). Europar Batasunak 2010. urterako ezarritako helburua biztanleriaren % 85ek derrigorrezkoaren ondorengo Bigarren Hezkuntza amaitzea zen 20 eta 24 urtekoen artean.

Derrigorrezko Ondorengo graduatua dutenen ehunekoa autonomi-
erkidegoen arabera 2006. urtea



Urte batetik bestera gertatu diren gorabeherak direla eta, ehuneko horiek urte jakin batzuetan izan duten bilakaera aztertzea komeni da. 1992 eta 1999 artean, adin-tarte horretan derrigorrezkoaren ondorengo Bigarren Hezkuntzako titulazioren bat lortu zuen biztanleriaren ehunekoak goranzko joera jarraitua izan zuen. Dena den, 2000. urtetik 2006ra bitartean, gorabeherak ez zuten % 81eko ehunekoa gainditu.

Bilakaera hori sexuen arabera aztertzen badugu, derrigorrezkoaren osteko titulazioa lortu zuten emakumeen ehunekoa gizonetzkoena baino handiagoa izan zela ikusiko dugu taulan bilduta dagoen aldiko urte horietan. Gainera, nesken datuak kontuan hartzen baditugu, azken hiru urteetan, 2010. urterako Europar Batasunak zehaztutako helburuaren gaineko kontsolidazioa egon zela esan dezakegu; dena den, era berean, aipatu beharrekoa da aurretik ere behin baino gehiago gainditu zuela ehuneko hori.



- **18 eta 24 urteen artean eskola utzi dutenen ehunekoa.**

Hezkuntza-sistemaren kalitatearen inguruko informazioa ematen duen beste aldagaietako bat derrigorrezko eskolatzea amaitzean prestakuntza amaitutzat ematen duten, eta ondorioz, 18 eta 24 urteen artean prestakuntza-jarduerarik egin ez duten ikasleen ehunekoa da.


2006ko datuak ikusita⁵³, Euskadin adin-tarte horretan eskola utzi dutenen ehunekoa % 14,5koa da; hau da, Europako batez bestekoa baino txikiagoa: % 15,4. Ehuneko horrek Euskadi Europar Batasunak 2010. urterako ezarritako helburutik 4 puntura kokatzen du (helburua adin-tarte horretan eskola utzi dutenen ehunekoa % 10 baino gutxiagokoa izatea da).⁵⁴

Datu hori sexuen arabera aztertzen badugu, neskek dagoeneko helburu hori erdietsi eta gainditu dutela ikusiko dugu; izan ere, derrigorrezkoaren ondorengo prestakuntza utzi duten neskek % 8,1 bakarrik dira. Mutilek helburu hori erdiesteko duten distantzia are handiagoa da; izan ere, eskola utzi dutenen kopurua % 16,5koa da, eta Europar Batasunak 2010erako aurrez ikusitako helburua erdiesteko 6 puntu baino gehiago geratzen zaie.

⁵³ ISEI-IVEI. Hezkuntza Adierazleak Euskal Sistematan. Iturria: Eurostat. 2007ko ekaina.


⁵⁴ ISEI-IVEI (2007) Eskola Uztea. DBHko 2. zikloa.

18 eta 24 urteen artean eskola utzi dutenen ehunekoa. 2006. urtea



Beste herrialde batzuetako datuak aztertzeaz gain, interesgarria da horiek denboran izan duten barneko bilakaera ezagutzea. Hurrengo taulan ikus daitekeen moduan, azken 14 urteotan 18-24 urte artekoek derrigorrezko prestakuntzaren ondoren ikasketak utzi dituzten ikasleen kopurua %11 gutxitu da.

18 eta 24 urte artean Euskadin eskola utzi dutenen ehunekoaren bilakaera



Euskadin, lehen aipatu dugun moduan, neskek 2010erako zehaztutako helburua lortu dute; izan ere, ia 1999. urtetik, eskola utzi dutenen ehunekoa % 10 baino gutxiagokoa izan da.


ISEI-IVEIk DBHko bigarren zikloan eskola uztearen inguruan egin berri duen ikerketak⁵⁵ azterketa hori osatzeko informazioa biltzen du. Euskadin derrigorrezko eskolatze-aldian sistema utzi duten ikasleen tasa baxua dela ikus dezakegu. Dena den, ez dugu ahaztu behar helburua pixkanaka zerora arte gutxitzea dela; izan ere, eskola modu goiztiarrean uzteak norberaren garapenean, garapen sozialean eta laneko arloan duen eragina nabarmena da.

Euskadiko absentismoko eta eskolatu gabekoen ehunekoa		
	2004-05	2005-06
Lehen Hezkuntza	0,75	0,8
DBH	1,32	1,3

TIMSS 2007 PROBAKO DATUEN AZTERKETA OINARRI DUTEN ONDORIOAK

3. Matematikan eta Zientzietan TIMSS 2007 proban lortutako batez besteko puntuazioen arteko aldeak estatistikoki azpimarragarriak dira egokitasun-egoeran dauden eta errepikatu duten ikasleen artean.

Matematikako ebaluazioan TIMSS 2007 proban Euskadiko ikasleek lortutako batez bestekoa 498,6koa da, eta Zientzietakoa, aldiz, 497,7koa. Batez besteko horiek egokitasun-egoeran dauden (hau da, ikasturterik errepikatu ez dutenak) ikasleekin alderatzen baditugu, matematikan lortutako puntuazioak batez bestekoa 13 puntutan gainditzen duela ikusiko dugu; zientzietan, aldiz, 11 puntu gehiagokoa da. Bestalde, ikasturte bat edo bi errepikatu dituzten ikasleek TIMSSen Euskadiko batez bestekoak baino askoz ere baxuagoa den errendimendua lortu dute; aldea 55 puntukoa da matematikan, eta 45ekoa zientzietan.



Ikasturteren bat errepikatu duten ikasleek TIMSS 2007 ebaluazioan lortutako emaitzei dagokienez, esan dezakegu errepikatu ez dutenek lortutako emaitzak berdintzeko edo, gutxienez, haietara gerturatzeko ez duela balio izan.

TIMSS 2007 ebaluazioko errendimendu mailei dagokienez, egokitasun-egoeran dauden ikasleen % 70ek inguruk lortu ditu maila ertaina eta altua; aldiz, ikasturteren bat errepikatu duten ikasleen kasuan, maila horietara % 35 inguru bakarrik iristen dira bi ikasgaietan. Ehuneko hori ikasgelako ebaluazioetan 4 ikasgaiak gainditu dituzten ikasle errepikatzaileenaren antzekoa da.

⁵⁵ Op.Cit.

4. Korrelazio positiboa dago ikasgelako ebaluazioetan lortutako kalifikazioen eta TIMSS 2007 ebaluazioan izandako emaitzen artean.

Ikasgelako ebaluazio arruntak egitean irakasleek ematen dituzten kalifikazioak edo notak errendimenduaren iragarle onak dira ikasleek ikasgelako ebaluazioetan eta TIMSS 2007 ebaluazioan lortutako puntuazioen azterketari esker egiaztatu ahal izan denez; izan ere, ikasgelan lortutako batez besteko nota handiagoa, oro har, ebaluazio horretan ere batez besteko puntuazio handiagoarekin bat dator. Korrelazio positiboa dago, nahiz eta kalifikazio bakoitzeko dispersioa oso zabala izan.

TIMSS 2007ko puntuazioaren eta ikasgelan lortutako kalifikazioen arteko korrelazioa altua da egokitasun-egoeran dauden ikasleen kasuan; aldiz, baxua da ikasturteren bat errepikatu duten ikasleen kasuan.

Hurrengo taulan ageri da ikasgelako Matematikako eta Zientzietako emaitzen ikuspegi orokorra eta TIMSS 2007 ebaluazioan lortutako batez besteko puntuazioa. Bertan, egokitasun-egoeran dauden ikasleak eta gutxienez ikasturte bat errepikatu dutenak ageri dira.

TIMSS 2007 ebaluazioko batez besteko puntuazioak⁵⁶ eta ikasgelako notak.

	Egokitasun-egoeran dauden ikasleak				Ikasturteren bat errepikatu duten ikasleak			
	Matematika		Zientziak		Matematika		Zientziak	
	1. ebal.	2. ebal.	1. ebal.	2. ebal.	1. ebal.	2. ebal.	1. ebal.	2. ebal.
Gutxiegia	474	467	467	472	432	439	444	447
Nahikoa	478	493	477	482	441	444	441	455
Ongi	505	505	495	496	453	449	465	460
Oso ongi	532	536	521	521	479	479	482	476
Bikain	555	552	539	538	439*	429*	451*	439*

Bi ikasgai horietako edozeinetan *nahiko* edo nota handiagoa lortu duten egokitasun-egoeran dauden ikasleek *maila ertaina edo tartekoa* (475-550 puntu) edo *altua* (550 eta 625 puntu artean) lortuko dute TIMSS 2007ko errendimenduan. Baina ikasturteren bat errepikatu duten ikasleen kasuan, ikasgelako ebaluazioan *oso ongi* nota lortu dutenek soilik jasoko dute *tarteko mailaren* izaera.


Egokitasun-egoeran dauden ikasleen notek eta TIMSS 2007 proban lortutako errendimenduak banaketa normala eta korrelazio positiboa dute; hau da, zenbat eta nota altuagoa ikasgelan, orduan eta errendimendu altuagoa TIMSS 2007n. Dena den, errepikatzaileen* taldean desberdintasunak ikusi dira ikasgelan lortu dituzten eta TIMSS 2007 proban lortutako errendimenduaren artean. Bikain nota duten ikasleek TIMSSen lortutako batez besteko puntuazioa baxuagoa da ikasgelan ongi kalifikazioa lortu dutela dioten ikasleena baino. (Ikus III. eranskina)

Ikasgelako kalifikazioek eta TIMSS 2007ko batez besteko puntuazioak hurrengo grafikoan korrelazio positiboa erakusten duten arren, egoera egokian dauden ikasleek eta ikasle errepikatzaileek TIMSSen lortutako errendimendu mailetan duten banaketa ikus daiteke ikasgelako 1. ebaluazioan zientzietan jasotako emaitzen arabera.

Lehen aipatu dugun moduan, batez besteko notak korrelazioa du eta ikasgelako kalifikazioetako maila handitzen den neurrian, TIMSS 2007ko errendimendu maila ere handitu egiten da; batez ere, egoera egokian dauden ikasleen kasuan. Dena den, kalifikazio bakoiztean TIMSS errendimendu mailetan ikasleek duten banaketa oso zabala da eta are gehiago errepikatzaileen kasuan. Ikasgelan "*ongi*" nota lortu duen egokitasun-egoerako ikasleak, esate baterako, TIMSS 2007n tarte zabala dute: 399 puntu izatetik (maila

⁵⁶ Maila aurreratua (>625 puntu); maila altua (550 eta 625 artean); maila ertaina (475 eta 550 artean); maila baxua (400 eta 475 artean); maila oso baxua (<400)

baxua) 581 puntu lortzeraino (maila altua). Ikasgelan kalifikazio bera lortu duten ikasle errepikatzaileen banaketa are zabalagoa da; TIMSSen 357 puntu lortuta maila oso baxuan dauden ikasleak eta 590 punturekin maila altua lortu duten ikasleak aurki ditzakegu.



Banaketa Matematikakoaren antzekoa da, nahiz eta dispersioa apur bat handiagoa den zientzietan.

Datu horiek Frantzian egindako ikerketak azaleratutakoaren antzekoak dira⁵⁷ ikasturtea errepikatzeak ekar dezakeen zuzentasun-gabeziari dagokionez; izan ere, baliteke ikasle batek gelan zailtasunak izatea, baina ez beste ikasgela batean; gainera, baliteke estandarizatutako ebaluazioan puntuazio hobea lortzea ikasgelan lortutakoarekin alderatuta. Datuak ikusita, egoera hori ikasle guztien artean orokorra dela esan dezakegu.

5. Ikasleek gelan lortutako kalifikazioek lotura zuzena dute irakasleek taldeari esleitutako maila ertainetik eratorritako ebaluazio-irizpideekin.

TIMSS 2007 kanpoko ebaluazioaren arabera, proban errendimendu berdina duten ikasleen artean ikasgelan lortzen dituzten kalifikazioetan aldeak egon ohi dira, eta alde horiek lotura izan dezakete irakasleek taldeari esleitutako batez besteko mailarekin.


Azterketa hau egiteko, taldeen TIMSSeko puntuazioak lau kuartiletan banatu dira; 1. kuartilean puntuaziorik baxuenak lortu dituzten taldeen % 25 dago, eta horrela bata bestearen segidan 4. kuartilera arte. Bertan daude TIMSS 2007n puntuaziorik altuenak lortu dituztenak. Kuartiletan bildutako puntuazio horiek ikasleek gelan lortutako beste kalifikazio batzuekin alderatzen dira.

Zientzien arloari dagokion grafikoak, adibidez, kuartilik baxuenean dagoen ikasleak ikasgelan bikain kalifikazioa lortu duela erakusten du; aldiz, 4. kuartileko taldean balego, haren nota ez litzateke gutxiegi baino handiagoa izango. Matematikaren arloko egoera oso antzekoa da, baina, begi-bistakoa denez, puntuazioak eta kalifikazioak ez datoz bat erabat.

⁵⁷ Ministère Éducation Nationale, Enseignement Supérieur Recherche (2005) “Le redoublement au cours de la scolarité obligatoire: nouvelles analyses, mêmes constants”

TIMSS 2007ko datuek, itxuraz, Grisay 1984an bildutakoa berretsi dute⁵⁸; hau da, irakasleek ikasleen artean ikasgelan baitan gertatu ohi den dispersioa doitzeko joera dute eta ebaluazio-irizpideak ikasgelari edo taldeari esleitutako erdiko mailara egokitzen dituzte.


Ikasle egokien TIMSS 2007ko emaitzak eskolan lortutako notak eta taldeko emaitzen arabera



Bestalde, nabarmendu beharrekoa da lagina banatzeko erabili ditugun lau kuartil horietako bitan, ikasgelan gutxiegi eta nahiko notak lortu dituzten ikasleek TIMSS 2007n lortutako errendimendua ia berdina dela (eta, zenbaitetan, baxuagoa). Dena den, denok dakigu kalifikazio bat edo bestea ateratzeak garrantzia duela; hau da, gainditzea edo ez gainditzea.

6. TIMSS 2007ko emaitzen eta taldeko errepikatzaileen ehunekoaren arteko korrelazio negatiboa dago. Zientzietako puntuazioetan dagoen aldea azpimarragarria da talde berean errepikatzaileen % 30 baino gehiago pilatzen direnean.

TIMSS 2007ko ebaluazioan parte hartu duten taldeetako errepikatzaileen tasa kontuan hartzen badugu, ehunekorik handienak (taldeen % 74) % 0 eta % 30 artean duela ikus daiteke.



Ikasturtea errepikatzeak korrelazio negatiboa du ikasleak TIMSS 2007n lortutako puntuazioari dagokionez. Gainera, hurrengo taulan ikus daitekeen moduan, oso korrelazio altua dago TIMSS 2007n zientzietan eta matematikan lortutako emaitzen eta taldeko errepikatzaileen ehunekoaren artean.


⁵⁸ Grisay, A. (1984) Op. cit.

TIMSS puntuazioaren eta taldeko errepikatzaileen %aren arteko korrelazioa

	Talde guztien arteko korrelazioa
Matematika	-0,656
Zientziak	-0,596

Errepikapenak taldearen batez besteko errendimenduan izaten dituen ondorioak aztertzen baditugu, ikasgelako errepikatzaileen ehuneko handitzen den neurri berean, taldeko emaitzen batez bestekoa gutxitu egiten dela ikus dezakegu. Egoera hori matematikan zein zientzietan ikus daiteke. (Ikus I. eranskina)


TIMSS 2007 ikasgelako emaitzak taldeko errepikatzaileen arabera



Puntuazioen artean dauden aldeak ez dira azpimarragarriak kasu guztietan. Horien arteko adierazgarritasuna biltzen du modu esplizituan I. eranskinak, baina datu orokorrak emate aldera, taldeko errepikatzaileak % 30 izatetik hasita, emaitzak adierazgarriak izaten hasten direla esan dezakegu.

Hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan, taldeko errepikatzaileen kopuruaren eta TIMSS 2007ko emaitzen arteko korrelazio negatiboak eragina du egokitasun-egoeran dauden ikasleen eta ikasturteren bat errepikatu duten ikasleen artean. Matematikan ere gauza bera gertatzen da. (Ikus I. eranskina)

Ikasle egokien eta errepikatzaileen TIMSS 2007 Zientzietako emaitzak taldearen errepikatzeko-ehunekoaren arabera



GALDE-SORTAN BILDUTAKO IRITZIAK OINARRITZAT HARTUTAKO ONDORIOAK


7. Ikasketaburuek zein ikasleek ikasturtea errepikatzearen kausak ikasleei egozten dizkiete eta askoz ere neurri txikiagoan, baita hezkuntza-sistemak eskaintzen dituen ikaskuntzako baldintzei eta familiaren laguntzari ere.

Zein dira ikasleek ikasturtea errepikatzeko kausak? Galdera horri erantzuteko, irakaskuntzako eta ikaskuntzako testuingurua hartu dugu kontuan eta hiru esparru zehaztu ditugu: 1) Eremu pertsonala edo ikaslearen baitakoa, 2) senideena eta 3) eskolakoa edo hezkuntza-zentrokoa. Eremu horietako bakoitzean, errepikapenerako kausen erlazioa proposatu da.

Ikasle gehienen ustez, ikasturtea errepikatzearen erantzukizuna ikasleek dute. Hauek dira aipatu dituzten kausa nagusiak: ikasleen % 78ren ustez, ahalegin-gabezia, eta % 57ren arabera, motibazioarekin lotutako faktoreak (interes-gabezia, esate baterako). Dena den, kausa nagusizat aurreko ikasturteetan jasotako ezagutza-gabezia aipatu duten ikasleen ehunekoa % 26koa baino ez da.

Ikasketaburuen iritziak bat datoz ikasleekin. Profesional horien ustez, ikasleek dute ahalegin-gabezia da errepikapenerako kausa nagusia eta, horren jarraian, motibazio- eta interes-gabezia aipatu behar dira. Hirugarren tokian, aurretiazko ezagutza-gabezia aipatu dute eta, jarraian, familiakoen laguntza-gabezia. Ikastetxeko testuinguruarekin lotutako alderdiak dira haien ustez errepikapenean eraginik txikiena dutenak; ikasleek ere iritzi bera agertu dute.

Errepikatzearen kausak, ikasleen eta ikasketaburuen arabera (%)



Datu horiek bat datoz IDEAK (Hezkuntzako Ebaluaziorako eta Aholkularitzako Institutua) 2000-2001 eta 2001-2002 urteetan eskola-porrotaren inguruan egindako ikerketan emandakoekin⁵⁹. Aipatutako ikerketan, era berean, ikasleen ustez ahalegin-gabezia da errepikapenerako kausa nagusia. Baina ikerketa horren arabera, errepikapenerako bigarren kausa da irakasleek irakaskuntza ez dutela ikasleen mailen arabera egokitzen. Ikerketa horren arabera, arrazoi hori azkena da lagineko ikasleen ustez, aurreko grafikoan ikus daitekeen moduan.


⁵⁹ Marchesi, A. eta Hernandez Gil, C (koord.) (2003) El fracaso escolar. Una perspectiva internacional. Alianza Editorial.

8. Ikasketaburuen arabera, ia zentro guztietan daude errepikapena saihesteko edo errepikatu duten ikasturtean ikasleei laguntza emateko neurriak.

Ikasketaburuzagitzen arabera, zentroek hartzen dituzten neurriak bi eratakoak dira: prebentzio-neurriak edo errepikapena ekiditen saiatzen direnak; besteak, aldiz, errefortzukoak edo aringarriak direla esan dezakegu, osagarriak baitira errepikapenaren aldeko apustua egin ostean.


Oso deigarria da datu hau: ikastetxe gehienetan (% 83), neurririk hedatuenak lotura zuzena du kanpoko laguntza bilatzearekin eta horretarako familiari informazioa eta orientabideak ematen dizkiote hezkuntza-erloto testuingurutik kanpo seme-alabari laguntza eman diezaioten. Zentroen % 54tan errepikapena izateko arriskua duten ikasleak banaka indartzen dituzte gainera; zentroen % 41en arabera, pertsonalizatutako jarraipen-plana egiten dute; ikasketaburuen % 38k edukietara egokitzen direla dio, eta zentroen % 31k aurreko ikasturtea gainditu gabe mailaz igo diren ikasleentzako banakako planak prestatzen dituela adierazi du.

Ikastetxeetako prebentzio-neurriak



Hezkuntza-zentroetan, aipatutako prebentzio-neurri horiez gain, ikasleak errepikatzen ari direnerako beste neurri osagarri batzuk hartzen dituzte. Kasu horietan, ikastetxe gehienek (% 76k) familiari eta errepikatu duten ikasleei laguntza eskatzen diete. % 41en arabera, errefortzuko neurriak hartzen dituzte; % 32k, ikasleentzako orientabide pertsonaleko plana egiten du, eta % 28k, aldiz, arreta indibidualizatua eskaintzen du.

Errepikatzearen neurri osagarriak




Hartutako prebentzio-neurriak baliagarriak direla esan dezakegu errepikapenaren maila baxua kontuan hartzen badugu. Errepikapenerako neurri osagarriak, aldiz, ez dira horren erabilgarriak lortutako emaitzak ikusita.

9. Errepikapenaren edo ikasturtearen promozio automatikoa egitearekin lotutako ikerketei eta azterketei buruzko informazioa izateak ez du zentroetako hezkuntza-arloko praktika aldatzen.

1975. urtean, Jacksonek iradoki zuen ikasturtea errepikaraztearen aldeko hezkuntza-arloko profesionalak esku-hartzeko estrategia hori zailtasun akademikoak dituzten ikasleentzat mailaz modu automatikoan igotzea baino mesedegarriagoa dela dioen baliozko ebidentzia enpirikorik gabe egiten dutela.

la hamarkada bat geroago, 1984an, Holmesek eta Matthewsek ondorioztatu zuten ikasturtea errepikarazten jarraitzen duten hezkuntzako profesionalak, eragin potentzial negatiboak positiboak baino ugariago direla erakusten duen ebidentzia pilatua izan arren, ikasturtea errepikarazten jarraitzen dutela.

Ikerketa horretan, lagineko ikastetxeetako ikasketaburuen % 20,5ek aipatu zuen gai horren inguruko ikerketak eta azterketa ezagutzen zituela.



Jarraian, errepikapena aplikatzeak dituen ondorioen gaineko ikerketei eta azterketei buruzko informazioa duten eta informaziorik ez duten zentroen artean alderik badagoen aztertuko dugu,

	Ikerketak ezagutzen dituzte (% 20,5)		Ez dituzte ikerketak ezagutzen (% 79,5)	
	Kopurua	%	Kopurua	%
Errepikapena ekiditen saiatzen dira	12	52,3	44	51,8
Ohiko neurria da	7	30,4	16	18,8
Ez da ohiko neurria	8	34,8%	34	40%

Zentroen % 50ek baino gehiagok, ikerketa enpirikoen inguruko informazioa izanda edo izan gabe, ekiditen saiatzen diren neurria dela dio. Ikerketa horiek ezagutzen dituzten taldean, zentroen antzeko ehunekoak onartu du ohiko neurria dela (% 30,4) eta ez dela ohikoa (% 34,8).


Jasotako informazioa ikusita, itxuraz, ez dago alde nabarmenik gai horren inguruko aurretiazko informazioa duten eta ez duten zentroetan ikasturtea errepikatzeko erabakia duen funtzionamenduan. Bi kasu horietan, ekiditen saiatzen diren neurria da eta, gainera, zentro gehienetan, ez da oso ohikoa. Edonola ere, komeni da laginak Euskadiko hezkuntza-sistemako zentroetako ikasketaburuzagitzak ez dituela ordezkatzen gogoraraztea.

10. Euskadiko hezkuntza-sisteman, ikasturtea errepikatzeko erabakia irakasleek batera hartu ohi dute ebaluazio-saioan.

Lagineko ia zentro guztietan (% 97n), ikasleei ikasturtea errepikarazteko erabakia ikaslearen irakasle guztien artean hartu ohi dute ebaluazio-saioan. Zentroen % 76k, gainera, orientazio-taldearen iritzia hartzen du kontuan, nahiz eta ez izan erabakigarria.

Hurrengo grafikoan ageri da zentroetako ikasketetako buruen ustez, "askotan eta beti" ikasturtea errepikatzearren inguruko erabakia hartzeko garaian parte hartzen duten profesionalen, senideen eta ikasleen ehunekoak.

Ikasturtea errepikatzeari buruzko erabakia



Zentroetako % 60k baino apur bat gehiagok “*tarteka edo inoiz ez*” dute kontuan hartzen familiaren iritzia eta are gutxiago dira ikaslearen iritzia aintzat hartzen dutenak (kasu guztien % 20).

11. Zentroetako ikasketaburuak behar adinako maila lortu ez duten ikasleek ikasturtea errepikatzearen aldekoak dira erabat.

Lagineko zentroetako ikasketaburuak % 88k uste du errepikapena mesedegarria dela; aldiz, onuragarria ez dela uste dutenak % 11 bakarrik dira. Iritzi horrekin bat etorritz, % 84ren ustez, promozio automatikoa ez da onuragarria.


Hasierako iritzia irmoa den arren, % 80k baino gehiagok uste du ikasturtea errepikatzea edo hurrengora igarotzea beste neurri osagarri batzuekin batera bakarrik direla eragingarriak.

Profesional horien ehuneko altuak, % 71,4k, errepikapenaren onuragarritasunaren oinarria errepikatu duten ikasleen errendimendu akademikoa hobetzea dela dio; eta % 48ren ustez, irakasleen lana errazten du.


Errepikapenaren onuragarritasunaren inguruan adierazitakoarekin bat eginez, profesional horien gehiengoak (% 84) uste du behar adinako maila lortu ez duten ikasleen kasuan, hurrengo ikasturtera igarotzea ez dela onuragarria, eskolen erritmoari jarraitzeko zailtasunak areagotu egiten baitira. % 13 bakarrik dago “*ados*” eta “*oso ados*” baldintza horietan hurrengo ikasturtera igarotzearen eragingarritasunarekin.

Profesionalen ia % 30ek uste du promozio automatikoak ikasleari erreferentzia-talde naturalean egotea ahalbidetzen diola eta hori modu positiboan balioesten du.

Errepikapenaren onuragarritasuna eta promozio automatikoa (%)



Hasiera batean, % 88k neurri hori onuragarria dela erantzun duen arren, ikasketaburuen % 80k zehaztu du errepikapena beste neurri osagarri batzuekin soilik dela eragingarria. Gainera, hasieran promozio automatikoa ez dela onuragarria erantzun dutenen artean, % 84k uste du neurri osagarriekin batera egiten denean soilik dela onuragarria.



Datu horiek agerian uzten dute ikasketaburu gehienek, hasieran, errepikapena promozio automatikoa baino onuragarriagoa dela uste duten arren, iritzi hori gero aldatu egiten dela eta aukera baten zein bestearen eragingarritasuna handitu egiten dela laguntza osagarriak eskainiz gero.

12. Ikasturtearen promozio automatikoa, ikasgela barnean zein kanpoan laguntzarekin, alternatiba ona dela uste dute, errepikapenaren abantailetan adostasun handia dagoen arren.

Ikasturtea errepikatu duten ikasleen ia erdia (% 42) ados dago erabakiarekin. Balioespen egin arren, gehiengo handiak nahiagoko luke hurrengo ikasturtera igo laguntza motaren bat jasota. Zehazki, % 66,7k dio nahiago izango zukeela mailaz igo eta ikasgelatik kanpoko laguntza jasotzea. Are ehuneko handiagoak, % 77,2k, nahiagoko zukeen ikasgela arruntaren baitan banakako laguntza jasota mailaz igotzea.

Ondo iruditzen zait errepikatu izana **42,1**


Errepikatu beharrean, hau nahiago izango nukeen

	%
Ikasgelan laguntza izatea	77,2
Ikasgelatik kanpo laguntza izatea	66,7

Ikasleen ehunekoa "Oso ados eta ados" maiztasunak batuta

Ikasketako buruen talde handiak uste du behar adinako maila lortu ez duten ikasleak hurrengo ikasturtera igarotzea baliozko aukera izan daitekeela errepikapenarekin alderatuta, baldin eta neurri jakin batzuk ere abian jartzen badira. Hauek azpimarratu behar dira:

Ikasturtea errepikatzearen alternatibak: promozioa eta neurri osagarriak. (%)



Bi taldeek (errepikatu duten ikasleak eta zentroetako ikasketaburuzagitzak) bi laguntza mota aipatzen dituzte ikasturtearen promozio automatikoarekin batera:

- Promozioa, ikasgela barruko laguntzarekin
- Promozioa, ikasgelatik kanpoko laguntzarekin

Ikasketaburuen ehuneko handi baten ustez, ikasgela arruntaren barruan banakako arreta ahalbidetzen duten errefortzua eta metodologiaren erabilera ikasturtea errepikatzearekin lotutako alternatiba baliozkoak dira. Gauza bera gertatzen da antzeko maila duten ikasleen taldeak sortzearekin edo ikasgela arruntetik kanpo jarduerara garatzeko curriculum egokitua eratzearrekin.

Aukera horiek aipatu dituzten ikasketaburuen eta ikasleen ehunekoak hauek dira:

Mailaz igotzea ikasgela baitako laguntzarekin		%
- Ikasleak	- Ikasgelan laguntza izatea	77,2
- Ikasketaburuak	- Banakako errefortzua beharrezko ikasgaietan	68,2
	- Irakaskuntzako indibidualizazioa errazten duten metodologiak erabiltzea	40,2

Mailaz igotzea ikasgela kanpoko laguntzarekin		%
- Ikasleak	- Ikasgelatik kanpo laguntza izatea	66,7
- Ikasketaburuak	- Curriculum egokituko taldeak. Curriculum Dibertsifikazio mota.	65,2
	- Mailako edo zikloko talde homogeneoak	18,8


Bi taldeek ikasgela arruntaren baitan laguntza izatea nahiago dutela ikus daiteke, nahiz eta aldea txikia izan. Errepikatu duten ikasleen % 77 eta ikasketaburuen % 68,2 agertu da ikasgela barruan banakako errefortzua bideratzen duen aukera horren alde. Profesionalen % 40k, aldiz, irakaskuntzako indibidualizazioa ahalbidetzen duten metodologiaren erabilera aipatu du.

Altua izan arren, ikasgelatik kanpo laguntza jasotzea nahiago izango zuketuen ikasleen ehuneko baxuagoa da (% 66,7); gauza bera gertatzen da ikasketaburuen kasuan ere (% 65), curriculum egokituaren aldeko iritzia agertu baitute (curriculum-dibertsifikazio mota).

Hitz gutxitan esanda, zentroetako profesionalen taldeak eta ikasturtea errepikatu behar izan duten ikasleek aipatutakoaren arabera, errepikapenerako alternatiba ona da hurrengo ikasturtera igarotzea banakako laguntzak jasoz (batez ere, ikasgela arruntaren barruan jasotakoak).

13. Ikasleek zein zentroetako ikasketaburuek ikasturtea errepikatzea eragingarria dela uste dute, errendimendua hobetu egiten delako. Baina ikasturteren bat errepikatu duten ikasleak dira horri mesedegarritasunik txikiena ematen diotenak.


Ikasketaburuen erdiak baino apur bat gehiagok, % 57k, aipatu du ikasturtea errepikatu duten ikasleen errendimendua hobetu egiten dela oro har. % 33,9ren ustez, ordea, errepikatu arren, ikasleak berdin jarraitzen du.




Dena den, lagineko ikasketaburuen ehuneko handiak onartu du errepikapenak ikasleen artean eragin negatiboak izan ohi dituela; porrot-sentipena (% 75), taldera egokitzeko arazoak (kasuen % 36), lagunak galtzea (% 33) eta abar.

Oro har, ikasleen alderdi akademikoak hobetzeko errepikapena neurri egokia dela uste dute (jasotako bi ebaluazioetako kalifikazioen datuek hala baieztatzen dute kasuen % 30erako eta % 40rako, gutxi gorabehera).


Ikasleei dagokienez, gehienen ustez ikasturtea errepikatzeak lehendik ez zituzten ezagutzak jasotzeko balio du (% 78,5); hori dela eta, errepikapena ezagutzen mailarekin lotzen dute, nahiz eta kausen artean, ikasleen % 26ren ustez soilik aipatu zuen errepikapena aurreko mailetako ezagutza-gabeziak eragin zuela. Ia ikasleen erdiak uste du errepikatzeak eskolak errazagoak izateko, lagun berriak egiteko edo irakasleek ikasketekin gehiago laguntzeko balio duela. Gutxi gorabehera, ikasleen laurdenak uste du errepikapena ez dela onuragarria eta ez duela ezertarako balio.



DBHko zentroetako ikasketaburuek ikasleenarekiko iritzi desberdina dute errepikapenaren inguruan. Alde nagusia bi taldeek onuragarritasunaren inguruan ageri dute.




Hiru kolektiboek errepikapenaren onuragarritasunaren inguruan duten iritzia alderatzen badugu, errepikapena baliozkoa dela gehien uste dutenak zentroetako profesionalak direla ikusiko dugu; aldiz, ikasturteren bat errepikatu duten ikasleak dira onuragarritasunik txikiena ematen diotenak. Ikasketaburuen % 10,7k bakarrik dio errepikapenak ez duela ezertarako balio. Errepikatu ez duten ikasleen kasuan, % 22,4k du iritzi bera. Ikasturteren bat errepikatu duten ikasleen kasuan, % 31,9k uste du ez duela ezertarako balio.



Ikasturteren bat errepikatu duten lagineko 632 ikasleek beren esperientzia pertsonalaren inguruko iritzia eskaini dute; ez dute soilik arlo akademikoa kontuan hartu, baita arlo afektiboa, emozionala eta soziala ere. Lehen ikusi dugun moduan, ikasle horien erdiak baino gehiagok eman dio errepikapenari balorazio positiboa; izan ere, notak hobetzeko, integratuago sentitzeko, lagun hobeak topatzeko edo eskolak errazagoak izateko balio izan die. Dena den, errepikapenak, era berean, alderdi negatiboak ere badituela aipatu dute: lotsatuta sentitzea (% 36,9k) eta norberaren buruan konfiantza galtzea (% 31).

Balioespenak garapen pertsonaleko alderdi ugarritan sailkatu ohi dira, bakoitzaren eraginaren arabera:

- Historia akademikoan duten eragina:
 - Nire notak hobetu dira
 - Eskolak errazagoak iruditu zaizkit
 - Irakasleengandik laguntza handiagoa sentitu nuen
- Eragina garapen sozialean
 - Taldean integratuago sentitu nintzen
 - Lagun hobeak aurkitu nituen
 - Familiak laguntza handiagoa eman zidala sentitu nuen
- Eragina autoestimuan
 - Lotsatuta sentitu nintzen
 - Neure buruan nuen konfiantza galdu nuen




Ikasturtea errepikatu izanaren esperientzia duten ikasleek adierazten dutenez, ikasturtea errepikatzearen ondorio positiboek hobekuntza akademikoarekin eta gizarte-garapenarekin dute lotura batez ere. Balorazio negatiboak, batez ere, autoestimarekin du lotura; izan ere, errepikatzaileen % 30ek baino gehiagok dio lotsatuta sentitzen dela edo bere buruarengan konfiantza galdu duela.

14. Ikasturtea errepikatu duten ikasleek oinarrizko lau ikasgaietako ebaluazioetan lortutako gaitutako ehunekoa egokitasun-egoeran dauden ikasleena baino askoz ere baxuagoa da.

Ikasgelako bi ebaluazioetan ikasleek lortu dituzten kalifikazioak aztertzen baditugu, 2. ebaluazioan gai hauetan lortutako notak 1. ebaluaziokoak baino baxuagoak direla ikusiko dugu: matematika, euskara, gaztelania eta naturaren zientziak.

Ikasgai horietako gaitutako ehunekorik altuena eskolatze-aldi osoan ikasturterik errepikatu ez duten ikasleena dira; 1. eta 2. ebaluazioan, hurrenez hurren, lau ikasgaiak gaitutu dituztenak % 73,7 eta % 70,5 izan dira. Aldiz, ikasturteren bat errepikatu duten ikasleena kasuan, lau ikasgaiak % 33,4k eta % 29,2k gaitutu ditu 1. eta 2. ebaluazioan hurrenez hurren.



Errepikatu arren, derrigorrezko hezkuntza behar bezala amaitu duten ikasleen kalifikazioak aztertzen baditugu, ikasleak dituen ikasketarako arazoak edozein izanik ere, ikasketaburuzagitzek aipatutako neurriak batzuentzat itxuraz eragingarriak direla esan dezakegu datuak ikusita; izan ere, gutxi gorabehera, ikasturtea errepikatu duten ikasleen % 30ek lortu du bi ebaluazioetan lehen aipatu ditugun 4 ikasgai horiek gainditzea informazio horretan ikus daitekeenez. Dena den, ikasturteren bat errepikatu duten ikasleek, oro har, kalifikazio baxuagoak izaten dituzte.

Ondorioen laburpena

Azaldutako gogoeten arabera, Errepikatzearen edo mailaz automatikoki igotzearen inguruan Euskal Hezkuntza Sistemaren berezigarri batzuk ezar daitezke. Besteak beste, hauek:

- Euskal Hezkuntza Sistemari, inguruneke beste sistema batzuekin alderatuta, Derrigorrezko Hezkuntzan ikasleen ehuneko txikiak errepikatzen du.
- Egokitasun-egoeran dauden ikasleen ehuneko altuarekin batera, DBHn graduatua lortu eta Derrigorrezkoaren ondorengo Bigarren Hezkuntza dagokion adinean amaitzen duten ikasleen tasa altuak daude, 18 eta 24 urte artean ikasketak uzten dituztenen ehuneko baxuak eta uzte goiztiarreko tasa baxua.
- Errepikatutako ikasleek TIMSS 2007n lortutako puntuazioak nabarmen baxuagoak dira egokitasun-egoeran dauden ikasleenak baino.
- TIMSS 2007ko batez besteko puntuazioen eta ikasgelan lortutako puntuazioen kalifikazioen artean korrelazio oso altua dago, nahiz eta ikastetxeko kalifikazioetan dispersio zabala dagoen, ikasleek ikasturterik errepikatu ez dutenean. Korrelazio hori oso baxua da ikasturteren bat errepikatu duten ikasleen kasuan.
- TIMSS 2007 emaitzen eta taldeko errepikatzaileen ehunekoaren arteko korrelazioa dago, gelan errepikatzaileen kopurua handiagotzen den heinean, proban lortutako emaitzak jaitsi egiten dira, bai ikasle egokiek lortutakoak, bai errepikatzaileek lortutakoak.
- Ikasleek gelan lortutako kalifikazioek lotura zuzena dute irakasleek taldeari esleitutako maila ertainetik eratorritako ebaluazio-irizpideekin.
- Ikasketen buruzagitzen arabera, ikasketen arloan porrot egiteko arriskuan diren ikasleei laguntzeko neurriak garatzen dira. Neurri horiek prebentzioz (errepikatu aurretik) nahiz haren osagarri gisa aplikatzen direla diote.
- Neurri horien eraginkortasuna nabaria dela dirudi hezkuntza-sisteman ikasleen zati batentzat, dagokion adinean DBHko graduatua lortzen dutenen ehunekoa gainerako autonomia-erkidegoekiko altuenetako bat baita.
- Ikasturtea errepikatzea onuragarria dela dirudi, ikasleen % 30 eta % 40 arteko ehunekoarentzat, ikasturteko lehen bi ebaluazioak gainditu dituela esan duela kontuan hartuz gero. % 60 eta % 70 arteko ehunekoak ez du etekinik ateratzen emaitzetan.
- Ikastetxeetako ikasketaburu gehienek iritziaren arabera, hasiera batean, errepikapena onuragarria da, eta automatikoki mailaz igotzea, berriz, ez. Iritzi hori gerora zehaztu egiten dute, eta ikasketetan porrot egindako ikasleari erantzuteko errepikatzea nahiz automatikoki mailaz igotzea, beste neurririk gabe, ez direla nahikoak esaten dute; bi neurri horiekin batera banakako arreta emateko beste neurri batzuk hartu behar direla.
- Bai ikasketen buruzagitzek, bai errepikatutako ikasleek uste dute errepikatzearen alternatiba ona dela mailaz igotzea, betiere, banakako laguntzekin, eta laguntza horiek ahal dela, ohiko gelaren barruan garatuta.

I. ERANSKINA

TIMSS 2007ko ERRENDIMENDUA ETA IKASGELAKO EBALUAZIOAK

TIMSS 2007ko ERRENDIMENDUA ETA IKASGELAKO EBALUAZIOAK.

Kapitulu honen helburua da, kanpoko ebaluazioan (TIMSS 2007) lortutako emaitzak hartuta, azterketa kuantitatiboa egitea eta ikasle horiek eskola-zentroetan egindako ikasturteko lehen bi ebaluazioetan lortu dituztela dioten emaitzekin lotzea. Orain arte egin dugun bezala, azterketarako, ikasleak bi taldetan banatu ditugu:

- Eskolatzeko-aldi osoan ikasturte bat edo bi errepikatu dituztenek osatzen duten taldea (egoera nolabait apartekoa da)
- Sekula errepikatu ez dutenek osatzen duten taldea; egokitasun-egoera deitzen zaio.

Emaitza akademikoak hobetzeko (hori da helburu nagusia galdetegien arabera) ikasturtea errepikatzea eragingarria den edo ez den azaltzeko datuak eta argudioak ematea du xede. Horretarako, laginaren baitan bi hauek alderatuko ditugu: 1993. urtean jaio eta DBHko 2. mailan dauden (egokitasun-egoeran) eta TIMSS 2007n parte hartu duten ikasleak eta ikasturtea errepikatu eta DBHko 2. mailan dauden, baina urtebete edo bi urte lehenago jaiotako ikasleak.

Helburua ikastetxeetan egindako ohiko ebaluazioetan ikasleek lortzen duten errendimendua kanpoko ebaluazioetan lortutakoaren antzekoa den jakitea da. Horretarako, ikasle horiek TIMSS 2007 nazioarteko proban izandako parte-hartzea hartuko dugu erreferentziazat.

Horrez gain, egile batzuek agertu duten beste gai bati erantzun nahi diogu: irakasleek ebaluazio-irizpideak ikasgelako batez besteko mailaren arabera egokitzeko joera duten ala ez egiaztatzea.

TIMSS 2007. Laginaren ezaugarriak

2007. urtean TIMSS ebaluazioan parte hartu zuen Euskadiko lagina, hasieran, 3.001 ikaslekoa izan zen; horiek bete zituzten ikerketa hau egiteko galdetegi espezifikokoak (ikus III. eranskina).

Euskadiko laginaren aukeraketa IEA⁶⁰ izeneko nazioarteko erakundeak egin zuen Euskadiko Hezkuntza Sistemaren ezaugarrien arabera. Ausazko aukeraketa hori ISEI-IVEIk emandako datuak eta baldintzak oinarritzat hartuta egin zuten; hau da, hizkuntza-ereduen eta adinaren araberrako estratifikazioa.

Laginak, beraz, DBHko 2. mailako ikasle guztiak ordezkatzeko ditu. Lagina prestatzeko, IEAk, lehen etapan, ausazko aukeraketa egin zuen ikastetxe bakoitzeko ikasleen kopuruaren araberrako probabilitateak zituzten maila ugaritako zentroak hartuta. Bigarren etapan, IEAk ikastetxe bakoitzeko ikasgela aukeratu zuen ausaz.

Dena den, zenbatutako ikasleen kopurua txikiagoa da; izan ere, TIMSS 2007 proban, beste ikerketa paralelo bat egin dute ("Bridge Study" izeneko) 2003. urtean parte hartu zuten herrialdeetan; hori da Euskadiren kasua. Ikerketa horren oinarria TIMSS 2003 ebaluazioko 4 koaderno oso 2007an parte hartu duen lagineko ikasle batzuei aplikatzea izan da. Azterketa hori 2007ko testarekiko independentea da; hori dela eta, parte hartu duten ikasleek, 705 lagunek, ez dute probako errendimenduko daturik eta TIMSS 2007ko laginetik kendu dituzte.

Hori dela eta, kapitulu honetan landu dugun lagina DBHko 2. mailako 2.296 ikasleek osatzen du eta desberdina da ikerketako gainerako kapituluaren azterketan aintzat hartutako lagineko datuekiko. Izan ere, horietan, ikasleen hasierako lagineko galdetegiak erabili ditugu (3.001) (ikus III. eranskina).

TIMSS 2007ko behin betiko lagineko datuak hartu ditugu nazioarteko probako puntuazioen eta zentro bakoitzeko ebaluazioetan ikasleek lortutako noten arteko alderaketarekin lotutako txostena egiteko oinarritzat.

⁶⁰ International Association for the Evaluation of Educational Achievement

TIMSS 2007 ikasleen laginarekin lotutako datuak

Ikasleak sareen arabera			Ikasleak sexuaren arabera		
	Kopurua	%		Kopurua	%
Publikoa	938	40,9	Neska	1.101	48,0
Hitzartua	1.358	59,1	Mutila	1.195	52,0
Guztira	2.296	100	Guztira	2.296	100

Ikasleak egoera akademikoaren arabera			Errepikatutako ikasturte kopurua		
	Kopurua	%		Kopurua	%
Ez dute errepikatu	1.850	80,6	Lehen Hezkuntza	117	26,2
Errepikatu egin dute	446	19,4	Bigarren Hezkuntza	206	46,2
Guztira	2.296	100	Bi mailak	123	27,5
				446	100

Ikasleen banaketa hezkuntza mailen arabera

Atal honen azterketaren oinarria egoera akademiko egokian dauden (hau da, ikasturterik errepikatu ez dutenak) ikasleen emaitzak eta eskolako historia osoan maila edo ikasturte bat edo bi errepikatu dituzten ikasleen alderatzea da.

- **Egoera akademikoaren arabera lagineko ikasleen ehunekoa**

	Egoera eta sexua				Errepikatutako ikasturte kopurua eta sexua			
	Neskek		Mutilak		Neskek		Mutilak	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Ez dute errepikatu	942	50,9	908	49,1	48	41	69	59
Errepikatu egin dute	164	36,8	282	63,2	75	36,3	131	63,7
					41	33,6	82	66,4

TIMSS 2007 laginean, egokitasun-egoeran dauden ikasleen artean, nesken ehunekoa % 50,9koa da; hau da, mutilena baino ia bi puntu handiagoa (% 49,1). Dena den, lagineko errepikatzaile guztiak kontuan hartzen baditugu (446 ikasle), % 63,2 mutilak dira. Nesken artean, ikasturtea errepikatu dutenen ehunekoa baxuagoa da (% 36,8koa).

Ikasleen sexuaren arabera errepikatutako ikasturte kopuruari dagokion taulan ikus dezakegun moduan, bi hezkuntza-etapa horietako batean maila errepikatu duten mutilen ehunekoa neskena baino handiagoa da.

	Egoera akademikoa eta sarea			
	Publikoa		Hitzartua	
	Kopurua	%	Kopurua	%
Ez dute errepikatu	717	76,5	1.133	83,4
Errepikatu egin dute	221	23,5	225	16,6

Hitzartutako sareko ikasleen kasuan, % 83,4 egokitasun-egoeran dago; sare publikoan, aldiz, egokitasun-egoeran dauden ehunekoa % 76,5koa da. Zentro publikoetako ikasleei dagokienez, % 23,5 errepikatzailea da; hitzartutako zentroetan, ehuneko hori % 16,6koa da.

Egoera akademikoa eta estratuak*

		Ez dute errepikatu		Errepikatu egin dute	
		Kopurua	%	Kopurua	%
Publikoa	A	69	54,3	58	45,7
	B	90	72,1	35	27,9
	D	558	81,3	127	18,7
Hitzartua	A	341	80,9	81	19,1
	B	346	80,1	86	19,9
	D	446	88,3	59	11,7

*Datu ponderatuak direnez, hamartarren doiketa batzuk daude.


TIMSS 2007 laginean egokitasun-egoeran dauden ikasleen ehunekorik handiena hitzartutako D eredu eskolatuta dago (% 88,3). Hitzartutako A eta B ereduak, eta D publikoak antzeko ehunekoa dute egoera egokian dauden ikasleei dagokienez (% 80 gutxi gorabehera).

A eredu publikoa da ikasturteren bat errepikatu duten ikasleen ehunekorik handiena (% 45,7) duena.

TIMSS 2007ko batez besteko puntuazioak

- **Ikasleen egoera akademikoa eta TIMSS 2007ren emaitzak**


Dokumentu honetan aipatu dugun moduan, egoera akademiko deitzen diogu ikasturterik errepikatu ez duen ikasleak (egoera egokian daudenak) eskolako historia osoan hezkuntza mailaren bat behin edo bi aldiz errepikatu behar izan dutenetatik bereizten dituen egoerari. Datuen azterketa egiteko, ikasleak bi talde horietan sailkatu dira.



Euskadiko lagineko ikasleek TIMSS 2007 ebaluazioan Matematika arloan lortu duten batez besteko puntuazioa 498,6koa da, eta Zientzietakoa, aldiz, 497,7koa. Lagin osoko batez besteko horiek ikasturtea errepikatu ez duten ikasleek lortutakoekin alderatzen baditugu, haien puntuazioak altuagoak direla ikusiko dugu; izan ere, Matematikan lortutako puntuazioa 511,9koa da, eta Zientzietakoa, 508,6koa.

Bestalde, ikasturte bat edo bi errepikatu dituzten ikasleek TIMSS 2007n Euskadiko batez bestekoa baino nabarmen baxuagoa den errendimendua lortu dute; aldea 55 puntukoa da matematikan (443,4), eta 45 gutxiagokoa Zientzietan (452,4).

Ikasle egokiak eta errepikatzaileak eta TIMSS 2007n batez besteko puntuazioak




Bi ikasgai horietan TIMSS 2007 proban lortutako batez besteko puntuazioen arteko aldeak estatistikoki azpimarragarriak dira egokitasun-egoeran dauden eta errepikatu duten ikasleen artean.

TIMSS 2007 ebaluazioan ikasturtea errepikatu zuten ikasleek lortutako errendimenduaren ikuspegitik, ikasketak berreskuratzeko neurri horrek Euskadin ikasturtea errepikatu duten ikasleengan inolako eraginik ez duela izan esan dezakegu ikasturterik errepikatu ez duten ikasleek lortutako emaitzak berdintzeari dagokionez.

Errepikatutako ikasturteen kopurua eta errepikapena gertatu den etapa (lehen edo bigarren hezkuntza) TIMSS 2007 probako bi ikasgaietan ikasleek lortutako batez besteko puntuazioekin lotzen baditugu, hau ikusiko dugu:

Ikasturtearen errepikapenen kopurua eta TIMSS 2007ko puntuazioa



Errepikatu duten ikasleen artean, bi ikasgaietan batez besteko puntuaziorik altuena lortu dutenak Bigarren Hezkuntzako maila bakarra errepikatu dutenak dira; seguru asko, horren arrazoia ebaluazio hau egin zuten garaian maila errepikatzen ari zirela izango da. Puntuazio handiagoa lortu arren, alde hori eskolatzeko garaian bi ikasturte errepikatu dituzten ikasleekin alderatuta soilik da estatistikoki azpimarragarria.

Ez dago alde nabarmenik Lehen Hezkuntzako maila bat errepikatu duten ikasleekin alderatuta. Era berean, errepikatzaileen kolektiboaren baitan ikasgelan lortutako emaitzak abiapuntutzat hartuta egindako azterketan, Lehen Hezkuntzako mailaren bat errepikatu zutenek lau ikasgai horietan gaitutako ehuneko handiagoa zutela gogoraraztea komeni da, ikasturtea Bigarren Hezkuntzan errepikatu zuten ikasleekin alderatuta. (Ikus III. eranskina)

Bi kolektiboek ikasgaien arabera lortutako puntuazioak aztertzen baditugu, egokitasun-egoeran dauden ikasleekin gertatzen ez den bezala, ikasturteren bat errepikatu dutenek zientzietan matematikan baino emaitza hobekak lortzen dituztela ikusiko dugu.


- **Ikasleen errendimendua taldeko errepikatzaileen ehunekoaren arabera**

Ikerketa honetan egindako azterketetan ikus daiteke behin eta berriro ikasturtea errepikatu duten ikasleek egokitasun-egoeran dauden ikasleek lortutakoak baino emaitza baxuagoak lortzen dituztela eta alde horiek, kasu askotan, azpimarragarriak direla.

Atal honetan, zentroek errepikatzeke neurria zer maiztasunekin erabiltzen duten, errepikatzaileak taldetan nola banatzen dituzten eta neurri horrek banakako errendimenduan zein eskolatutako taldearenean dituen ondorioak ezagutzen saiatuko gara.

TIMSS 2007 ebaluazioan parte hartu duten taldeetako errepikatzaileen tasa kontuan hartzen badugu, zentroen ehunekorik handiena ikasle errepikatzaileen kopurua % 10 eta % 20 artean duten zentroena dela ikusiko dugu; zehazki esatearren, proban parte hartu zuten taldeen % 30,5. Jarraian, eta grafiko honetan ikus daitekeen moduan, taldeen % 26,5ek du errepikatzaileen % 0 eta % 10 artean. Hori dela eta, ikasturteren bat errepikatu duten ikasleen % 0 eta % 20 artean du talde guztien % 57k.

Taldeek % 16,6n, ikasle errepikatzaileak % 20 eta % 30 artekoak dira. Zentroen ehunekoa nabarmen gutxitzen da taldeek % 30 errepikatzaile inguru dituztenean. Errepikatzaileak % 50 baino gehiago diren taldeak % 8,6 dira TIMSS 2007n parte hartu duten talde guztiak kontuan hartzen baditugu.




Ikasturtea errepikatzeak korrelazio negatiboa du ikasleak TIMSS 2007n lortutako batez bestekoari puntuazioari dagokionez. Gainera, hurrengo taulan ikus daitekeen moduan, oso korrelazio altua dago TIMSS 2007n zientzietan eta matematikan lortutako emaitzen eta taldeko errepikatzaileen kopuruaren artean.

TIMSS puntuazioaren eta taldeko errepikatzaileen %aren arteko korrelazioa

	Talde guztien arteko korrelazioa
Matematika	-0,656
Zientziak	-0,596

Errepikapenak taldearen batez besteko errendimenduan izaten dituen ondorioak aztertzen baditugu, ikasgelako errepikatzaileen ehunekoa handitzen den neurri berean, taldeak TIMSS 2007n lortutako emaitzen batez bestekoa gutxitu egiten dela ikus dezakegu. Egoera hori matematikan zein zientzietan ikus daiteke.

Ikasgelako emaitzak TIMSS 2007ko Zientzietan taldeko errepikatzaileen ehunekoaren arabera




Grafikoaren lerro bertikalak adierazten duenez, proba egin duten taldeen % 91n errepikatzaileen ehunekoak askotarikoak dira: bat ere ez izatetik kideen % 50ek gutxienez ikasturte bat errepikatu duten taldeetara arte. Zentroen % 9k ikasle errepikatzaileen % 50 baino handiagoko ehunekoak ditu.

Zientzien arloari dagokion grafikoan ikus daitekeen moduan, errepikatzaileen ehunekoaren arabera taldeak lortutako batez bestekoa pixkanaka gutxitu egiten da errepikatzaileen ehuneko handitzen den neurrian. Zientzien arloan TIMSS 2007n lortutako aldeak nabarmenak dira errepikatzaileen % 0-10 izatearen eta gainerako taldeen artean. Errepikatzaileak % 10 eta % 20 artekoak diren taldeak lortzen duen batez besteko puntuazioa ere azpimarragarria da errepikatzaileen % 30 baino gehiagoko ehunekoak duten taldeek lortutakoarekin alderatuta.

Era berean, Matematikan, TIMSS 2007ko errendimenduaren eta taldeko errepikatzaileen ehunekoaren artean nolabaiteko lotura dagoela esan dezakegu. Ikasgelako errepikatzaileen ehuneko zenbat eta handiagoa izan, orduan eta txikiagoa da taldeak lortutako puntuazioa. Zientzietan bezalaxe, grafikoak erakusten duenez, taldeen % 91k errepikatzaileen % 50 arte du: aldiz, taldeen gainerako % 9etan, errepikatzaileak % 50 eta % 100 artekoak dira.


Ikasgelako emaitzak TIMSS 2007ko Matematikan taldeko errepikatzaileen ehunekoaren arabera



Matematikan ere alde nabarmenak ikus ditzakegu errepikatzaileen % 0 eta % 10 artean biltzen dituen taldearen eta ehuneko handiagoak dituzten gainerako taldeen artean. Era berean, aldeak azpimarragarriak dira errepikatzaileen % 10 eta % 20 artean dituen taldearen eta gainerako taldeen artean.

Jarraian, eraginik badagoen eta horren neurria zein den aztertuko dugu bi egoera akademikoak kontuan hartuta: egoera egokian daudenak eta errepikatzaileak.

Ikasle egokien eta errepikatzaileen TIMSS 2007ko Zientzietako emaitza taldeko errepikatzaileen ehunekoaren arabera



Grafikoan ikus daitekeen moduan, Zientzien arloan, ikasleek (errepikatzaileek zein egokiek) TIMSS 2007n lortutako puntuazioak gutxitu egiten dira taldeko errepikatzaileen ehunekoa handitzen den neurrian. Korrelazioa txikia da (-0,146koa errepikatzaileak ez direnen kasuan, eta -0,246koa, errepikatzaileen kasuan). Korrelazio hori taldeko errepikatzaileen ehunekoaren eta banakako puntuazioaren artean ikus daiteke.

Zientzien arloko puntuazioetan ez dago alde nabarmenik ikasle egokien edo errepikatzaileen artean, errepikatzaileak % 0 eta % 10 artean, % 20 arte edo gehienez % 30 arte dituzten taldeetan. Baina errepikatzaileak % 30 baino gehiago diren taldeekin alderatuta, puntuazioetan dauden aldeak nabarmenak dira.

Jarraian, egokitasun-egoeran dauden ikasleen eta ikasturteren bat errepikatu dutenen puntuazioen arteko adierazgarritasuna erakusten duten informazio-etaulak ageri dira. Ez dira jasotzen errepikatzaileak % 50 baino gehiago diren taldeak; izan ere, ikasleen % 5 baino ez dira.

Zientzietako aldean esanguratsua. Ikasle egokia

Errepikatzaileen %	% 0 eta % 10 artekoa	% 10 eta % 20 artekoa	% 20 eta % 30 artekoa	% 30 eta % 40 artekoa	% 40 eta % 50 artekoa
% 0 eta % 10 artekoa	=	=	=	↑	↑
% 10 eta % 20 artekoa	=	=	=	↑	↑
% 20 eta % 30 artekoa	=	=	=	=	=
% 30 eta % 40 artekoa	↓	↓	=	=	=
% 40 eta % 50 artekoa	↓	↓	=	=	=

Zientzietako aldean esanguratsua. Ikasle errepikatzailea

Errepikatzaileen %	% 0 eta % 10 artekoa	% 10 eta % 20 artekoa	% 20 eta % 30 artekoa	% 30 eta % 40 artekoa	% 40 eta % 50 artekoa
% 0 eta % 10 artekoa	=	=	=	↑	↑
% 10 eta % 20 artekoa	=	=	=	↑	↑
% 20 eta % 30 artekoa	=	=	=	=	=
% 30 eta % 40 artekoa	↓	↓	=	=	=
% 40 eta % 50 artekoa	↓	↓	=	=	=

%95eko adierazgarritasuna

Taulak ezkerretik eskuinera irakurri behar dira:


↑ Modu adierazgarrian altuagoa den puntuazioa.

↓ Modu adierazgarrian baxuagoa den puntuazioa.

= Ez dago alde nabarmenik.

Matematikaren arloan, TIMSS 2007n ikasleek (egokitasun-egoeran daudenak eta errepikatzailleak) lortutako puntuazioak ere gutxitu egiten dira eskolatutako taldeko errepikatzailen ehunekoa handitzen den neurrian. Korrelazioa txikia da (-0,209koa egokitasun-egoeran dauden ikasleen kasuan, eta -0,271koa, errepikatzailen kasuan).

Grafikoan ikus daitekeen moduan, taldeen % 95etan ikasturteren bat errepikatu duten ikasleen ehunekoa % 0 eta % 50 artekoa da.



Matematikaren, egokitasun-egoeran dauden eta errepikatzailleak diren ikasleen artean, ez dago alde nabarmenik errepikatzailleak % 10 arte diren eta % 20 artekoak diren taldeen puntuazioen artean.

Ikasle egokien zein errepikatzailen batez besteko puntuazioetan dauden aldeak nabarmenak dira errepikatzailleak % 10 arte diren taldeen eta errepikatzailleak % 20 baino gehiago diren taldeen artean.

Gainera, errepikatzailen ehunekoa % 10 eta % 20 artekoa den taldean eta ehuneko handiagoa duten taldeetan dauden egokitasun-egoerako ikasleek lortutako puntuazioetan dauden aldeak nabarmenak dira. Errepikatzailen kasuan, errepikapeneko ehunekoak % 30 baino handiagoa izan behar du aldea azpimarragarria izan dadin.

Tauletan egoera egokian dauden ikasleen eta ikasturteren bat errepikatu dutenen puntuazioen arteko adierazgarritasuna erakusten duten informazioa dago. Ez dira errepikatzailleak % 50 baino gehiago diren taldeak jasotzen; izan ere, ikasleen % 5 baino ez dira.

Matematikako aldean esanguratsua. Ikasle egokia

Errepikatzailen %	% 0 eta % 10 artekoa	% 10 eta % 20 artekoa	% 20 eta % 30 artekoa	% 30 eta % 40 artekoa	% 40 eta % 50 artekoa
% 0 eta % 10 artekoa		=	↑	↑	↑
% 10 eta % 20 artekoa	=		↑	↑	↑
% 20 eta % 30 artekoa	↓	↓		=	=
% 30 eta % 40 artekoa	↓	↓	=		=
% 40 eta % 50 artekoa	↓	↓	=	=	

Matematikako aldean esanguratsua. Ikasle errepikatzailea

Errepikatzaileen %	% 0 eta % 10 artekoa	% 10 eta % 20 artekoa	% 20 eta % 30 artekoa	% 30 eta % 40 artekoa	% 40 eta % 50 artekoa
% 0 eta % 10 artekoa		=	↑	↑	↑
% 10 eta % 20 artekoa	=		=	↑	↑
% 20 eta % 30 artekoa	↓	=		=	=
% 30 eta % 40 artekoa	↓	↓	=		=
% 40 eta % 50 artekoa	↓	↓	=	=	

%95eko adierazgarritasuna

Taulak ezkerretik eskuinera irakurri behar dira:

↑ Modu adierazgarrian altuagoa den puntuazioa.


↓ Modu adierazgarrian baxuagoa den puntuazioa.

= Ez dago alde nabarmenik.

• TIMSS 2007 emaitzak egoera akademikoaren eta sexuaren arabera


TIMSS 2007 ebaluazioan parte hartu zuten ikasleen sexuaren araberako datuek agerian uzten dute Zientzien arloan lagineko biztanleriako neskek lortzen duten batez bestekoa 490 puntukoa dela; mutilena, aldiz, 505ekoa da. Mutilek nesken puntuazioarekin alderatuta lortzen duten 15 puntuko alde hori estatistikoki azpimarragarria da. Matematikan, neskek 496 puntu lortu dituzte, eta mutilek, 501. Aldea 5 puntukoa da eta estatistikoki garrantzirik ez duela esan dezakegu.

Sexuaren araberako emaitzak. TIMSS 2007



Sexua aldagaiari ikaslearen egoera akademikoa gehitzen badiogu (hau da, egokitasun-egoeran dagoen edo ikasturteren bat errepikatu duen), mutilen emaitzak beti neskek lortutakoak baino altuagoak direla ikusiko dugu zientzietan; alde horiek azpimarragarriak dira.

Egoera akademikoa, ikasleen sexua eta Zientzietako emaitzak. TIMSS 2007




Ikasturterik errepikatu ez duten neska-mutilek, egokiek, Zientzien arloko Euskadiko laginaren batez bestekoa gainditzen dute (498). Nesken kasuan, batez besteko hori baino puntu bat gehiagokoa da (499); mutilenak, aldiz, 21 puntutan gainditzen du batez bestekoa (518). Ikasturteren bat errepikatu duten bi sexuetako ikasleak ez dira batez bestekora iristen. Mutilek neska errepikatzaileek baino 28,5 puntu gehiago lortu dituzte zientzietako puntuazioan.

Matematikaren arloan azterketa bera egiten denean, neskek mutilek baino emaitza okerragoak lortzen dituztela ikus dezakegu. Egoera hori gertatzen da egokitasun-egoeran dauden ikasleen zein ikasturteren bat errepikatu dutenen kasuan. Mutilen eta nesken arteko aldeak estatistikoki azpimarragarriak dira.

Bi sexuetan, egokitasun-egoeran dauden ikasleak Euskadiko batez bestekoaren gainetik daude Matematikan (498,6); neskek 8 puntu gehiago dituzte, eta mutilek, aldiz, 18. Sexuen arteko aldea, beraz, 10 puntukoa da; mutilen batez besteko puntuazioa neskena baino altuagoa da.

Egoera akademikoa, ikasleen sexua eta Matematikako emaitzak. TIMSS 2007



Ikasturteren bat errepikatu duten ikasleek, neskek zein mutilek, ez dute batez besteko hori lortu. Mutilek 50 puntu gutxiago dituzte, eta neskek, berriz, 66 puntu gutxiago, Euskadiko batez bestekoarekin alderatuta. Bi sexuen artean dagoen aldea 16 puntukoa da; puntuaziorik altuena mutilek lortutakoa da.

- **Ikasleen egoera akademikoa eta TIMSS 2007ren errendimendu mailak**

TIMSS nazioarteko ebaluazioak errendimenduko lau maila zehazten ditu⁶¹, eta maila horietan banatzen dira proba egin duten ikasleak, bi ikasgaietan (matematikaren eta zientzietan) erakutsi dituzten ezagutzen arabera. Errendimenduko maila bakoitzari ezagutza batzuk esleitu ohi zaizkio. Ezagutza horiek proban ageri diren itemen arabera neurtzen dira, eta haien garapena VI. eranskineko taulan bilduta dago.

Aipatutako 4 maila horiez gain, minus 1 izeneko beste maila bat ere badago; maila baxua baino baxuagoa da, eta ez da taulan ageri, ikasleak horretan kokatzeko ezagutzak ez baitaude zehaztuta. Maila hori definitzen duen datu bakarra da 1. mailan edo maila baxuan kokatzeko beharrezkoa den gaitasun mailara iristen ez diren ikasle batzuk daudela.

⁶¹ Maila aurreratua (>625 puntu); maila altua (550 eta 625 artean); maila ertaina (475 eta 550 artean); maila baxua (400 eta 475 artean); maila oso baxua (<400)

Zientzietako errendimendu mailak herrialdeen arabera. TIMSS 2007


Taulan eta grafikoan ikus daiteke TIMSS 2007 ebaluazioan parte hartu duen herrialde ugaritako ikasleek Zientzien arloan lortu dituzten errendimendu mailen araberako banaketa. Lagineko ikasleek lortutako datuak ikusita, hauxe da Euskadiren kokapena gainerako herrialdeekin alderatuta:

- Euskadiko ikasleen % 2,7 bakarrik dago maila aurreratuan. Ehuneko txiki horrek Euskadi nazioarteko batez bestekoan (% 3) kokatzen duen arren, Euskadik lortutakoak baino altuagoak diren bikaintasuneko ehunekoak dituzten 24 herrialde gehiago dago, eta 8k soilik izan dituzte ehuneko txikiagoak. Hori dela eta, Euskadik zientzietan lortutako bikaintasun maila oso txikia dela esan dezakegu.
- Lagineko ikasleen % 61 maila ertainaren eta altuaren artean dago Zientzietan; horri esker, Euskadi taularen erdi-erdian dago. 16 herrialdek dute ehuneko altuagoa, eta beste 15 herrialdek, baxuagoa. Maila horietan dauden ikasleei dagokienez, nazioarteko batez bestekoa % 46koa da.
- Maila oso baxuan (-1) dauden ikasleen ehunekoari dagokionez, Euskadiren kasuan, ikasleen % 9 dago errendimendu maila horretan TIMSS 2007n (hau da, maila baxua izenekora iristen ez diren ikasleen ehunekoa) eta, hori dela eta, taularen erdiko aldean dago. 18 herrialdek dute ehuneko baxuagoa, eta 14k, altuagoa. Maila oso baxuan dauden ikasleei dagokienez, nazioarteko batez bestekoa % 22koa da.

Zientzietako errendimendu mailak herrialdeen arabera. TIMSS 2007

Maila oso baxuaren arabera ordenatuta

	Maila aurreratua >625	Maila altua 550-625	Tarteko maila 475-550	Maila Baxua 400-475	Maila oso baxua < 400
Korea	17	37	31	12	3
Eslovenia	11	34	36	16	3
Txekiar errepublika	11	33	38	15	3
Massachusets, EEBB	20	36	28	12	4
Japonia	17	38	30	11	4
Hungaria	13	33	34	16	4
Minnesota, EEBB	11	34	37	14	4
Ontario, Kanada	7	30	40	19	4
TaipeiTxina	25	35	23	12	5
Errusiar Federazioa	11	30	35	19	5
Columbia Británica, Kanada	7	31	39	18	5
Ingalaterra	17	31	31	15	6
Quebec, Kanada	4	23	41	26	6
Lituania	8	28	36	21	7
Estatu Batuak	10	28	33	21	8
Hong-Kong-Txina	10	35	32	15	8
Australia	8	25	37	22	8
Suedia	6	26	37	22	9
Euskadi	3	21	40	27	9
Italia	4	20	38	26	12
Escocia	5	21	35	26	13
Norvegia	2	18	38	29	13
Dubai, UAE	6	21	31	24	18
Serbia	2	14	35	30	19
Tailandia	3	14	31	32	20
Jordania	5	21	30	23	21
Nazioarteko batez bestekoa	3	14	32	29	22
Rumania	2	14	30	31	23
Tunez	0	4	27	46	23
Bulgaria	5	17	29	25	24
Israel	5	16	30	24	25
Indonesia	0	4	23	38	35
Colombia	1	3	18	37	41
Qatar	0	2	9	18	71



Zientzietako errendimendu mailak Euskadin. TIMSS 2007


Orain arte egindako lagin osoarekin lotutako datuen azterketari TIMSS 2007 proba egin zuten ikasleen egoera akademikoaren aldagaia gehitzen badiogu, Euskadiko lagina osatu zuten eta egokitasun-egoeran zeuden ikasleen kasuan, % 42,5 zientzien arloan tarteko errendimendu mailan dago. Egokitasun-egoeran dauden ikasleen % 24 dago maila altuan, eta ehuneko bera, maila baxuan. Muturreko mailetan (oso baxua eta aurreratua) ikasturterik errepikatu ez duten ikasleen ehuneko txikia dago (% 6 eta % 3,2).

Ikasleen ehunekoa Zientzietako errendimendu maila bakoitzean. TIMSS 2007

TIMSS 2007ko errendimendu mailak	Lagineko ehunekoa	Errepikatzaileak ez diren ehunekoa	Errepikatzaileen ehunekoa
-1 (<400)	9	6	23,4
Baxua (400-474,99)	27	23,8	39,2
Tartekoa (475-549,9)	40	42,5	28,1
Altua (550-624,99)	21	24,4	8,6
Aurreratua (625...)	3	3,2	0,7

Ikasturteren bat errepikatu duten ikasleek zientzien arloko TIMSS 2007ko errendimenduan erakusten duten egoera aztertzen badugu, ehunekorik altuenak (% 39,2) maila baxuan kokatzeko ezagutzak dituela ikusiko dugu. % 28,1 tarteko mailan dago, eta % 23k, ez du lortu zehaztutako gutxieneko maila eta, horrenbestez, errendimendu oso baxuko mailan (-1) dago. Ikasturtea errepikatu eta maila aurreratua lortu duten ikasleen ehunekoa % 1 baino gutxiagokoa da.

Ikasle egokien eta errepikatzaileen ehunekoak zientzietako errendimendu mailen arabera. TIMSS 2007



Matematikako errendimendu mailak herrialdeen arabera. TIMSS 2007


Zientzietan gertatzen den antzera, probako Euskadiko ikasleen % 2,2k soilik lortu du maila aurreratua Matematikaren arloan TIMSS 2007 ebaluazioan. Ehuneko hori dela eta, nazioarteko batez bestekoan kokatuta dago Suediarekin batera, baina ehuneko baxuagoa duten herrialdeak 6 baino ez dira. Dena den, eta zientzietan gertatzen den bezalaxe, Euskadiko ikasle gehienak (% 64) maila ertainean eta altuan daude; AEBko eta Kanadako bina estatuk soilik gainditzen dute ehuneko hori.

Matematikako puntuazioan maila baxua ere lortu ez duten Euskadiko ikasleen ehunekoak % 8koa da. Ehuneko hori dela eta (altua da eragina jasan duten ikasleen banakako eragina kontuan hartzen badugu), Euskadi hamargarren tokian dago Esloveniarekin, Txekiar Errepublikarekin eta AEBrekin batera. Haren gainean 20 herrialde daude TIMSS 2007n errendimenduko oso maila baxua gainditzea lortu ez duten neska-mutilen ehunekoei dagokienez. Nazioarteko batez bestekoa ikasleen % 25eko ehunekoan kokatuta dago maila baxu horri dagokionez.

Matematikako errendimendu mailak herrialdeen arabera. TIMSS 2007

Maila oso baxuaren arabera ordenatuta (-1)

	M. aurreratua >625	M. altua 550-625	Tarteko Maila 475-550	M. baxua 400-475	M. oso baxua <400
Korea	40	31	19	8	2
Quebec, Kanada	8	29	41	19	3
Minnesota, EEUU	8	33	40	16	3
Japonia	26	35	26	10	3
Ontario, Kanada	6	27	41	21	5
Massachusetts, EEBB	16	36	30	13	5
Taipei-Txina	45	26	15	9	5
Hong Kong-Txina	31	33	21	9	6
Columbia Britaniarra, Kanada	5	24	40	24	7
Euskadi	2	21	43	26	8
Eslovenia	4	21	40	27	8
Txekiar Errepublika	6	20	40	26	8
Estatu Batuak	6	25	36	25	8
Errusiar Federazioa	8	25	35	23	9
Hungaria	10	26	33	22	9
Suedia	2	18	40	30	10
Lituania	6	24	35	25	10
Ingalaterra	8	27	34	21	10
Australia	6	18	37	28	11
Norvegia	0	11	37	37	15
Italia	3	14	37	31	15
Escocia	4	19	34	28	15
Serbia	5	19	33	26	17
Nazio arteko batez bestekoa	2	13	31	29	25
Israel	4	15	29	27	25
Dubai, EAU	3	14	30	27	26
Bulgaria	4	16	29	25	26
Rumania	4	16	26	27	27
Tailandia	3	9	22	32	34
Tunez	0	3	18	40	39
Jordania	1	10	24	26	39
Indonesia	0	4	15	29	52
Colombia	0	2	9	28	61
Qatar	0	0	4	12	84



Matematikako errendimendu mailak Euskadin. TIMSS 2007


Lagineko ikasleak matematikako errendimendu mailen arabera banatzeari dagokionez, zientzietakoaren oso egoera antzekoa ikus dezakegu, nahiz eta ehunekoetan alde txiki batzuk dauden. Lagineko ikasleak matematikako errendimendu mailen arabera banatzeari dagokionez, zientzietakoaren oso egoera antzekoa ikus dezakegu, nahiz eta ehunekoetan alde txiki batzuk dauden.

Banaketa mailen arabera konbinatuz gero, lagineko ikasleen egoera akademikoa kontuan hartuz gero, egokitasun-egoeran dauden eta tarteko maila lortu duten ikasleen kopurua matematikan % 46,9koa dela ikusiko dugu; hau da, zientzietan baino 5 puntu gehiagokoa, maila baxuaren kalterako (% 21,6). Errepikatu ez duten eta maila altuan kokatzeko adinako puntuazioa lortu duten ikasleen ehunekoa bi ikasgaietan berdina da (% 24 igurukoa).

Ikasturteren bat errepikatu duten ikasleen kasuan, % 44,4 maila baxua izenekoan dago; % 23,1, berriz, maila horretatik behera dago.

Ikasleen ehunekoa Matematikako errendimendu mailaren arabera TIMSS 2007

TIMSS 2007ko errendimendu mailak	Lagineko ehunekoa	Errepikatzaileak ez direnen ehunekoa	Errepikatzaileen ehunekoa
-1 (<400)	8	4,2	23,1
Baxua (400-474,99)	26	21,6	44,4
Tartekoa (475-549,9)	43	46,9	27,5
Altua (550-624,99)	21	24,6	4,9
Aurreratua (625...)	2	2,7	0,2



- **Ikasgelako kalifikazioak eta TIMSS 2007ren puntuazioak**

Ikasgelako emaitza orokorrak eta TIMSS 2007ren puntuazioak

Ikasleek betetako galdetegiko galderetako batean, TIMSS 2007 proban parte hartu arte ikasgelan egindako bi ebaluazioetan lortutako kalifikazioak zehazteko eskatzen zitzairen (ikus III. eranskina). Eskatutako notak oinarritzkoak diren lau curriculum-arloei dagozkienak ziren: euskara, gaztelania, matematika eta zientziak. Arlo horiek eskolako porrotaren edo arrakastaren inguruko deskribapen-ideia ematen dute curriculumean duten garrantzia dela eta.

Ikasgelan ikasleek lortutako kalifikazioak bi taldetan sailkatu ditugu. Alde batetik, gutxiegiak zenbatzen dira eta, bestetik, nahiko eta bikain arteko nota guztiak (ikasgaia gaindituztat emateko lortu beharrekoak). Taula hauetan, aipatutako 4 curriculum-arloak gainditzearen eta ez gainditzearen arteko emaitzak alderatuko ditugu ikasleek egindako bi ebaluazioak eta ikasle horiek TIMSS probako matematika eta zientzien arloetan lortutako puntuazioak aintzat hartuta.


4 ikasgaietako emaitzak 1. ebaluazioan eta TIMSSeko puntuazioa matematikan

	4rak gainditu ditu		Ez ditu laurak gainditu	
	%	TIMSSeko batez bestekoa	%	TIMSSeko batez bestekoa
<i>Ez dute errepikatu</i>	75,4	522,5	24,6	482,3
<i>Errepikatu egin dute</i>	31,6	442,9	68,4	445,9

Lehen ebaluazioan, 4 ikasgaiak gainditu dituzten egokitasun-egoerako ikasleen ehunekoa % 75ekoa da. TIMSS 2007n lortutako puntuazioa 523koa da; hau da, egoera berean dauden (% 24,6) eta 4 ikasgaiak edo horietakoren bat gainditu ez dutela diotenenek lortutakoa baino nabarmen altuagoa, horiek 482 puntu lortu baitituzte. Korrelazio positiboa dago irakasleek ikasgelan emandako puntuazioen eta ikasleek TIMSS 2007 proban erakutsitako errendimenduaren artean.

Dena den, ikasle errepikatzailen kasuan ez da korrelazio hori gertatzen; izan ere, lortutako puntuazioak egoera egokian dauden ikasleenak baino nabarmen baxuagoak dira, baina ez dago alde azpimarragarririk 4 ikasgaiak gainditu dituztela edo ez dituztela gainditu dioten ikasleek lortutako emaitzetan.

Ikasgelako 4 ikasgaietako emaitzak eta TIMSS 2007ko puntuazioa Matematikan.
(1. Ebaluazioa)



4 ikasgaietako emaitzak 2. ebaluazioan eta TIMSSeko puntuazioa Matematikan

	4rak gainditu ditu		Ez ditu laurak gainditu	
	%	TIMSSeko batez bestekoa	%	TIMSSeko batez bestekoa
<i>Ez dute errepikatu</i>	71,2	526,5	28,8	482,2
<i>Errepikatu egin dute</i>	25,9	440,8	74,1	447,3

TIMSS 2007ko puntuazioetan egokitasun-egoeran dauden eta 4 ikasgaiak gainditu dituztela edo ez dituztela 4rak edo horietakoren bat gainditu dioten ikasleen artean dauden aldeak estatistikoki azpimarragarriak dira. 2. ebaluazioko datuen portaera 1. ebaluaziokoaren berdina da; izan ere, ehunekoen eta emaitzen artean bi ebaluazioetan dauden aldeak ez dira azpimarragarriak.

Errepikatu duten eta lau ikasgaiak gainditu dituztela dioten neska-mutilek (441 puntu) eta ez dituztela gainditu diotenen (447 puntu) TIMSS 2007n lortutako puntuazioetan dauden aldeak ez dira estatistikoki azpimarragarriak.

Baliteke ikasgelan nota baxuak lortzen dituzten neska-mutiletako batzuek galdetegian datuak faltsutu izana eta hori zehaztu ez izana, sozialki desiragarrien den jokabidea adierazi nahian, eta horregatik izan liteke errepikatzaileek TIMSS 2007n lortutako puntuazioetan aldeak azpimarragarriak ez izatea.

Matematikan bezalaxe, emaitza “orokorrak” aztertu ditugu ikasleek emandako notak eta zientzien arloan TIMSSen lortutako puntuazioekin duten lotura kontuan hartuta.

4 ikasgaietako emaitzak eta TIMSSeko puntuazioa Zientzietan
1. ebaluazioa

	4rak gainditu ditu		Ez ditu 4rak gainditu	
	%	TIMSSeko batez bestekoa	%	TIMSSeko batez bestekoa
<i>Ez dute errepikatu</i>	75,4	518,1	24,6	483,0
<i>Errepikatu egin dute</i>	31,6	452,4	68,4	454,1

Lehen ebaluazioan 4 ikasgaiak gainditu dituztela dioten eta egokitasun-egoeran dauden ikasleek TIMSS 2007ko Zientzien arloan ikasgaiak gainditu ez dituztela diotenen baino puntuazio altuagoa lortu dute. Puntuazioen artean dauden aldeak azpimarragarriak dira.

Baina Matematikan gertatzen den moduan, TIMSS 2007ko puntuazioetan laurak gainditu dituzten ikasle errepikatzaileen eta gainditu ez dituztela diotenen artean dauden aldeak ez dira azpimarragarriak nahiz eta 1. ebaluazioan lau ikasgaiak ez dituztela gainditu dioten ikasleek baino 2 puntu gehiago lortu.

**4 ikasgaietako emaitzak eta TIMSSeko puntuazioa Zientzietan
2. ebaluazioa**

	%	4rak gainditu ditu TIMSSeko batez bestekoa	%	Ez ditu 4rak gainditu TIMSSeko batez bestekoa
<i>Ez dute errepikatu</i>	71,2	521,5	28,8	483,9
<i>Errepikatu egin dute</i>	25,9	453,0	74,1	454,8

TIMSS 2007ko puntuazioaren eta 2. ebaluazioko nota “orokorren” arteko aldeak, beste behin, estatistikoki azpimarragarriak dira. 2. ebaluazioan lau ikasgaiak gainditu dituzten egokitasun-egoeran dauden ikasleek egoera berean dauden eta lau ikasgaiak edo horietakoren bat gainditu ez duten gainerako ikaskideek baino nabarmen altuagoa den puntuazioa lortu dute TIMSS 2007n.

Errepikatu duten ikasleen artean zientzietako TIMSS 2007ren puntuazioan dauden aldeak ez dira azpimarragarriak.

Matematikako eta Zientzietako ikasgelako emaitzak eta TIMSS 2007ko puntuazioak

Azterketa orokorra egin ostean (eskolako porrotaren edo arrakastaren adierazlea da), curriculumeko 4 ikasgaiak erreferentziatzat hartuta, hurrengo azterketaren oinarria ikasgelako kalifikazioak izango dira, baina TIMSS puntuazioekin korrelaziorik handiena duten bi gaiak bakarrik hartuko ditugu: matematika eta zientziak. Ikasgelako ebaluazio arruntetan ikasleek lortu dituzten emaitzak eta TIMSS 2007ko errendimendua alderatuko ditugu.

Azterketa honen helburua ikasgelako noten eta TIMSS 2007ko puntuazioaren artean baliokidetzarik badagoen egiaztatzea da; hau da, ikasgelako emaitzen eta TIMSS 2007n lortutako puntuazioaren artean korrelaziorik badagoen ikustea. Eta, bestetik, ikasgelako kalifikazioen mailak loturarik ba ote duen TIMSSek proposatutako errendimendu mailekin, errendimenduaren banaketa bietan berdina bada.

Hurrengo taulan ageri da ikasgelako matematikako eta zientzietako ebaluazioetako emaitzen ikuspegi orokorra eta TIMSS 2007 ebaluazioan lortutako batez besteko puntuazioa. Bertan, egokitasun-egoeran dauden ikasleak eta gutxienez ikasturte bat errepikatu dutenak ageri dira.

TIMSSeko batez besteko puntuazioen eta ikasgelako noten laburpen-taula. Egokitasun-egoeran dauden ikasleak eta errepikatzaileak.

	Egokitasun-egoeran dauden ikasle				Ikasturteren bat errepikatu duten ikasle			
	Matematika		Zientziak		Matematika		Zientziak	
	1. ebal.	2. ebal.	1. ebal.	2. ebal.	1. ebal.	2. ebal.	1. ebal.	2. ebal.
Gutxiegi	474	467	467	472	432	439	444	447
Nahikoa	478	494	477	482	441	444	441	455
Ongi	505	505	495	496	453	449	465	460
Oso ongi	532	536	521	522	479	479	482	476
Bikain	555	553	539	539	439	429	451	439

TIMSS 2007ko puntuazioaren eta ikasgelako kalifikazioen arteko korrelazioa garrantzitsua da egokitasun-egoeran dauden ikasleen kasuan; gutxi gorabehera, 0,5ekoa da Matematikan, eta 0,4koa, zientzietan. Korrelazioa baxuagoa da ikasturteren bat errepikatu duten ikasleen kasuan (0,2 baino gutxiagokoa bi ikasgaietan).

Ikasgelako ebaluazioan gutxiegi lortu duen ikasleak (egokia zein errepikatzailea) errendimendu maila baxua lortu du TIMSS 2007n eta batez besteko puntuazioa bi ikasgaietan 400 eta 474,99 artekoa izan da.

Matematika-arloan ikasgelan *bikain* nota lortu duten eta egokitasun-egoeran dauden ikasleek soilik lortu dute TIMSSen maila altuan kokatzeko puntuazioa (500 eta 624,99 puntu artean).

Bestalde, ikasgelako notak *nahikoa* eta *oso ongi* artekoak dituzten egokitasun-egoerako ikasleek TIMSS 2007n *tarteko mailan* kokatzeko batez besteko puntuazioak lortu dituzte: 475 eta 549,9 puntu artekoak.

MATEMATIKA

Hurrengo tauletan, bi ikasgai horietako bakoitzaren azterketa zehatzagoa ageri da ikasleak egokitasun-egoeran dauden edo ikasturteren bat errepikatu duten bereiziz. 1. ebaluazioan nota bakoitza (gutxiagatik hasi eta bikainera arte) atera duten ikasleen ehunekoa eta TIMSS 2007ko batez besteko puntuazioa ageri dira, egoera akademikoaren arabera dagokien taldearen arabera. Taulako azken zutabearen ikus daiteke TIMSSek erabilitako eskalaren araberrako errendimendu maila.

Matematika. 1. ebaluazioa Ikasgaiko emaitzak eta TIMSSeko puntuazioa

Ikasle egokia				
Ikasgelako notak matematikan 1. ebaluazioa	Kop.	Ehunekoak	Egokitasun-egoerako ikasleen batez bestekoa TIMSS 2007	Batez bestekoaren araberrako errendimendu maila
Gutxiegi	226	12,6	474,1	Baxua
Nahikoa	322	17,9	477,9	Tartekoa
Ongi	389	21,7	505,5	Tartekoa
Oso ongi	579	32,3	531,7	Tartekoa
Bikain	277	15,4	555,3	Altua

Ikasturterik errepikatu ez duten eta ikasgelako 1. ebaluazioan matematikan *gutxiegi* nota lortu duten ikasleen batez bestekoa 474,1 puntukoa da. Hori dela eta, TIMSSen maila *baxuaren* goiko atarian daude (400 eta 475 puntu artean).

Nahiko, *ongi* eta *oso ongi* notak ateratzen dituztenen batez bestekoa *tarteko* mailan dago (475-550) eta *bikain* nota duten ikasleen batez besteko puntuazioak soilik lortu du maila *altua* (550-625). Hori ikusita, maila baxuetan zentroak eskaera handiagoa egiten duela esan dezakegu; izan ere, ikasleak tarteko mailara iristea lortzen du. Exijentzia maila txikiagoa da maila altuetan, bikain atera duten ikasle gutxi iristen baita maila aurreratuaren atarira TIMSS 2007n.

TIMSS 2007ko batez besteko puntuazioaren eta ikasgelan lortutako kalifikazioen arteko korrelazioa altua da egokitasun-egoeran dauden ikasleen kasuan (zenbat eta nota altuagoa gelan, orduan eta puntuazio altuagoa TIMSSeko errendimenduan). Aldiz, ikasturteren bat errepikatu duten ikasleen puntuazioen arteko korrelazioa aztertzen badugu, baxua dela ikusiko dugu.


Ikasturteren bat errepikatu duten ikasleak				
Ikasgelako notak matematikan 1. ebaluazioa	Kop.	Ehunekoak	Ikasle errepikatzaileen batez bestekoa TIMSS 2007	Errendimenduko baliokidea
Gutxiegi	150	34,8	432,4	Baxua
Nahikoa	117	27,3	440,9	Baxua
Ongi	88	20,4	453,4	Baxua
Oso ongi	54	12,5	479,2	Tartekoa
Bikain	21	5	438,8	Baxua*

Ikus daitekeen moduan, zenbat eta puntuazio altuagoa izan TIMSS 2007n, orduan eta handiagoa da egokitasun-egoerako ikasleak ikasgelan lortu duen kalifikazioa. Antzeko zerbait gertatzen da errepikatzaileen kasuan, ikasgelan lortutako nota *bikain* dela diotenen kasuan izan ezik.

* Taulako 21 ikasleek lortu duten (beren hitzetan) bikain kalifikazioarekin eta TIMSS 2007 ebaluazioan lortutako puntuazioarekin lotutako azterketa zehatza egiten badugu, ikasle horietako 12k beren noten inguruko benetako datua ez dutela eman pentsa dezakegu. Izan ere, TIMSSen lortu duten puntuazioa 377 puntukoa da (maila *oso baxua*) eta horrek *gutxiegi* atera dutela diotenen batez bestekoa baino beherago kokatzen ditu.


Informazio hori osatzeko, jarraian ageri den grafikoan ikus daiteke ikasleen ehunekoa ikasgelan lortutako noten arabera. Koloreek matematika-arloan TIMSS 2007n lortutako errendimendu mailak erakusten dituzte. Grafikoko datuak ikasgelako 1. ebaluazioaren ingurukoak diren arren, 2. ebaluaziora ere zabal ditzakegu, nahiz eta ehunekoa berdina ez izan.

**TIMSS 2007ko errendimendu mailak eta ikasgelako notak.
Matematika 1. ebaluazioa**




Matematika-arloan ikasgelako noten arabera ikasleek lortutako TIMSS 2007ko errendimendu mailak. Grafikoa egiteko erabili diren datuak 1. ebaluaziokoak diren arren, 2. ebaluazioaren emaitza oso antzekoa dela esan dezakegu.

**Ikasgelako notak 1. ebaluazioan eta errendimendu mailekiko baliokidetzak
TIMSS 2007. Matematika**



Egindako azterketatik ondoriozta dezakegu batez bestekoa pixkanaka handitu egiten dela eta ikasgelako kalifikazioa zenbat eta altuagoa izan, orduan eta handiagoa dela TIMSS 2007ko batez besteko puntuazioa (batez ere, egokitasun-egoeran dauden ikasleen kasuan). Gainera, batez bestekoen korrelazioa ikusteaz gain, interesgarria da egokitasun-egoeran dauden ikasleen eta errepikatzaileen banaketa nolakoa den ikustea TIMSSeko errendimendu mailetan bakoitzak ikasgelako kalifikazioetan lortutako emaitzak oinarritzat hartuta.


Ikasleen banaketa Matematikan TIMSSeko errendimendu mailetan Ikasgelako emaitzaren arabera



Grafikoan ikus daitekeen moduan, ikasleek TIMSS 2007ko errendimendu maila ugarietan duten dispersioa, ikasgelako kalifikazioa edozein izanda ere, oso zabala da. Ikasleen banaketari dagokionez, ikasgelan gutxiegi kalifikazioa lortu duen ikasleak eta nahiko kalifikazioa lortu duenak TIMSSen lortu duten puntuazioa oso aldakorra dela ikus dezakegu: maila baxutik hasi eta maila altura arte. Hori dela eta, ikasgelako kalifikazio horiek ez dira oso bereizleak edo diskriminatzaileak TIMSS 2007ko emaitzak kontuan hartzen baditugu. Zerk eragin dezake ikasgelan kalifikazio bera lortu arren ezagutzetan hain desoreka zabala erakustea TIMSSeko puntuazioak kontuan hartzen baditugu? Eskolatutako ikasleen taldeek ba al dute dispersio horrekin loturarik?

Azterketa hori sakontzeko eta ikaslearen taldeak zentroan lortzen dituen kalifikazioak baldintzatzen dituen ezagutzeko, TIMSS 2007n parte hartu duten talde guztiak lau kuartiletan sailkatu ditugu proban lortutako puntuazioen arabera. 1. kuartilean dago emaitzarik baxuenak lortu dituzten ikasle taldeen % 25 eta 4. kuartilera arte gauza bera egin dugu ondoz ondo. 4. kuartilean dago TIMSS 2007n emaitzarik onenak lortu dituzten ikasle taldeen % 25. Kuartiletan bildutako puntuazio horiek ikasleek gelan lortutako beste kalifikazio batzuekin alderatzen dira.

Ikasleek taldean lortutako kalifikazioak eta ikasle horiek TIMSS 2007 proban lortu dituzten emaitzak alderatzen baditugu, 1. kuartilean matematika-arloan ikasgelan bikain kalifikazioa izan duen ikasleak, adibidez, TIMSSeko puntuazioan (499 puntu) 4. kuartilean dagoen eta ikasgelan gutxiegi nota lortu duen eta TIMSSen 512 puntu eskuratu dituen beste talde batek baino puntuazio baxuagoa lortu duela ikusiko dugu. Errendimendurik altueneko taldean dagoen ikasleak lortu duen puntuazio horrek, era berean, 2. eta 3. kuartiletan dauden eta ikastetxean ongi kalifikazioa lortu duten ikasleena gainditzen du.



Kanpoko probako ezagutza maila berari zergatik ez dagokio ikasgelan nota baliokidea? TIMSS 2007ko datuak aztertuta, ikasgela batean edo bestean egoteak, hau da, talde jakin batekoak izateak, ikaslearen nota baldintzatzen duela ondoriozta dezakegu.

Bestalde, azpimarratu beharrekoa da puntuazioak kuartilez kuartil aztertzen baditugu, ia ez dagoela alderik nahiko nota lortu duen ikasleak TIMSS 2007 proban erakutsi duen ezagutzaren eta ikasgelako kalifikazioetan gutxiegi nota atera duenak agertutako ezagutzaren artean. Are gehiago, nahiko nota atera dutenek, bi kuartiletan puntuazio baxuagoa lortu dute TIMSSen. Datu garrantzitsua da hori, kalifikazio bat edo bestea ateratzeak une jakin batean ondorio handiak izan baititzake.

ZIENTZIAK

Jarraian, Zientzietako ikasgelako noten eta TIMSS 2007 ebaluazioan lortutako puntuazioen arteko korrelazioa aztertuko dugu.

Zientzietako bi ebaluazioetan matematikan azaldutako egoera bera gertatzen da; datuak 1. ebaluazioari dagozkio. Ikasgelako noten eta TIMSSeko puntuazioen artean korrelazioa dago, *bikain* nota atera dutela dioten ikasle errepikatzaileen kasuan izan ezik.

Zientziak. 1. ebaluazioa.
Ikasgaiko emaitzak eta TIMSSeko puntuazioa

Ikasle egokia				
Ikasgelako notak zientzietan 1. ebaluazioa	Kop.	Ehunekoa	Egokitasun-egoerako ikasleen batez bestekoa TIMSS 2007	Errendimendu maila baliokidea
Gutxiegi	154	8,7	467	Baxua
Nahikoa	212	11,9	477	Tartekoa
Ongi	368	20,7	494,8	Tartekoa
Oso ongi	639	35,9	520,7	Tartekoa
Bikain	408	22,9	539,1	Tartekoa


Ikasleak egokitasun-egoeran daudenean, ikasgelako noten eta TIMSS 2007ko puntuazioen artean korrelazioa dagoela esan dezakegu. Zenbat eta nota altuagoa izan ikasgelako ebaluazioan, orduan eta puntuazio altuagoa, nahiz eta horrek ez ekarri errendimendu mailetan aldaketarik. Izan ere, gutxiegi atera duten eta maila baxuan soilik dauden ikasleak izan ezik (maila baxua bakarrik lortzen dute), gainerakoak tarteko mailan daude.

Ikasturteren bat errepikatu duten ikasleak

Ikasgelako notak zien 1. ebaluazioa	Kop.	Ehunekoak	Ikasle errepikatzaileen batez bestekoa TIMSS 2007	Errendimendu maila baliokidea
Gutxiegi	167	38,6	444,1	Baxua
Nahikoa	89	20,6	440,7	Baxua
Ongi	80	18,5	465,5	Baxua
Oso ongi	70	16,2	482	Tartekoa
Bikain	26	6,1	450,6	Baxua*

* Ikasturtea errepikatu duten ikasleekin dagoen korrelazioa aztertzen badugu, ebaluazio guztietan bezalaxe, korrelazioa badagoela esan dezakegu, *bikain* lortu dutela dioten ikasleen kasuan izan ezik.


TIMSS 2007ko errendimendu mailak eta notak.
Zientziak 1. ebaluazioa



Grafikoan ikasleen ehunekoak ikus daitezke Zientzietan ikasgelan lortutako noten eta TIMSS 2007n lortutako batez besteko errendimendu mailen arabera. Ikasgelako ebaluazioetan nahiko eta bikain arteko notak lortu dituzten eta egokitasun-egoeran dauden ikasleak TIMSSen tarteko errendimendu mailan daude. Errepikatu duten ikasleen kasuan, tarteko maila ikasgelako ebaluazioan oso ongi nota lortu dutenek soilik lortzen dute; gainerako notek ikasleak maila baxuan kokatzen dituzte.

Matematika-arloari dagokion grafikoan bezalaxe, datuak ikasgelako 1. ebaluazioaren inguruak dira, baina emaitzak 2. ebaluaziora ere orokor ditzakegu, nahiz eta ehunekoak ez izan berdin-berdinak.


Ikasgelako notak 1. ebaluazioaren eta errendimendu mailekiko baliokidetza
TIMSS 2007. Zientziak



Bi ikasgaien grafikoak alderatzen baditugu, alde bakarra topatuko dugu: matematikan, egokitasun-mailan dauden eta ikasgelan bikain nota lortu duten ikasleek TIMSS 2007n errendimendu altua erakusten dute, baina zientzietan, ikasgelan nota bera lortu dutenei tarteko errendimendu maila dagokie.

Era berean, zientzietan ere korrelazioa dago TIMSS 2007ko emaitzen eta ikasgelan lortutako batez besteko kalifikazioen artean. Matematikan bezalaxe, Zientzietan taldearen batez bestekoa pixkanaka handitu egiten da; hori dela eta, zenbat eta kalifikazio altuagoa ikasgelan, orduan eta puntuazio handiagoa TIMSSen, batez ere, egokitasun-egoeran dauden ikasleen kasuan. Matematikan egin dugun moduan, jarraian, ikasgelan kalifikazio jakina lortu duten ikasleak TIMSSeko errendimendu mailen arabera nola banatuko lirartekeen aztertuko dugu.

Hurrengo grafikoan ikus daiteke ikasle egokien eta errepikatzaileen banaketa TIMSS 2007ko errendimendu mailen arabera. Horretarako, ikasgelan 1. ebaluazioko zientzietan lortutako emaitzak hartu ditugu kontuan. Banaketa Matematikakoaren antzekoa da, nahiz eta dispersioa handiagoa den Zientzietan.




Ikus dezakegun moduan, korrelazioa dago TIMSS 2007ko batez bestekoen eta egokitasun-egoeran dauden ikasleek gelan lortutako kalifikazioen artean; dena den, dispersioa oso handia da eta horren erakusgarri da datu hau: ikasgelan nahiko kalifikazioa duten ikasleen artean, TIMSSeko errendimenduan 373 puntutatik hasi eta 589 puntu arte lortu dutenak daude; hau da, maila oso baxukoak eta maila altukoak. Errepikatzaileen kasuan, korrelazioa ez dago horren argi eta ikasleen banaketa are zabalagoa da.

Jarraian, Matematikako azterketan egin dugun bezalaxe, Zientzien arloan taldeek lortutako TIMSSeko puntuazioak lau kuartiletan banatu ditugu. 1. kuartilean dago arlo horretan puntuaziorik baxuenak lortu dituzten taldeen % 25 eta gauza bera egin dugu hurrenez hurren, 4. kuartilera arte. 4. kuartilean, TIMSS 2007n puntuaziorik altuenak lortu dituzten taldeak daude.

Kuartiletan bildutako puntuazio horiek ikasleek gelan lortutako beste kalifikazio batzuekin alderatzen dira. Zientziei dagokien grafikoak matematikakoaren oso antzekoa den egoera erakusten du, nahiz eta

puntuazioak eta kalifikazioak ez diren berdin-berdinak. Zientzien arloak, adibidez, kuartilik baxuenean dagoen ikasleak ikasgelan bikain kalifikazioa lortu duela berresten du; aldiz, 4. kuartileko taldean balego, haren nota ez litzateke gutxiegi baino handiagoa izango.



Matematikako datuak hartuta egindako azterketan egindako galdera bera errepika dezakegu. Kanpoko probako ezagutza maila berari zergatik ez dagokio ikasgelan nota baliokidea? TIMSS 2007ko datuen azterketa oinarritzat hartuta, ikasgela batean edo bestean egoteak, hau da, errendimendu maila jakin bateko taldeko partaide izateak, ikaslearen nota baldintzatzen duela ondoriozta dezakegu; hori dela eta, horrek Grisayk 1984. urtean zehaztutakoa baieztatzen duela⁶² esan dezakegu; hau da, irakasleek ikasgela barruan ikasleen artean gertatzen den dispersioa doitzeko eta ebaluazio-irizpideak ikasgelari edo taldeari esleitutako batez besteko mailara egokitzeko joera dute. Ikastetxean lortzen den kalifikazioa ikaslearen taldeak dituen ezagutzen arabera dela egiazta daiteke.

Bestalde, azpimarratu beharrekoa da puntuazioak kuartilez kuartil aztertzen baditugu, ia ez dagoela alderik nahiko nota lortu duen ikasleak TIMSS 2007 proban erakutsi duen ezagutzaren eta ikasgelako kalifikazioetan gutxiegi nota atera duenak agertutako ezagutzaren artean, matematikan gertatzen den bezalaxe. Are gehiago, nahiko nota atera dutenek, bi kuartiletan puntuazio baxuagoa lortu dute TIMSSen. Datu garrantzitsua da hori, kalifikazio bat edo bestea ateratzeak une jakin batean ondorio handiak izan baititzake.

⁶² Grisay, A. (1984) Op. cit.

Laburpena

TIMSS 2007 emaitzak

- Euskadin egokitasun-egoeran dauden ikasleek (ikasturterik errepikatu ez dutenak) bakarrik lortu eta gainditu dute TIMSS 2007ko batez bestekoa bi arlo hauetan: matematika eta zientziak.
- Errepikatutako ikasleek egokitasun-egoeran dauden ikasleek baino batez besteko nabarmen baxuagoak atera dituzte bi ikasgaietan.
- Mutilek, bai egokiek, bai errepikatzailerek, emaitza nabarmen altuagoak lortzen dituzte bi arloetan ikasketetako egoera berean dauden neskekin alderatuta.
- Ikasturtea errepikatzea ez da eragingarria TIMSS 2007 ebaluazioko bi ikasgaietako batean ere egokitasun-egoeran dauden ikasleen eta ikasle errepikatzaileren emaitzak berdintzeko. Euskadin errepikapenen ehuneko baxua eta TIMSSen errepikatzailerek lortutako puntuazio baxuak ikusita, zailtasun akademiko handiak dituzten neska-mutilak direla pentsa dezakegu. Bestalde, ikaskideekin batera mailaz igo izan balira zer gertatuko zatekeen ez dakigu.

Ikasgelako ebaluazioaren eta TIMSS 2007 emaitzen arteko korrelazioa

- Ikasgelako notak iragarle onak dira errendimenduko probetako emaitzei dagokienez; zenbat eta nota altuagoa ikasgelako ebaluazioetan, orduan eta puntuazio altuagoa TIMSS 2007ko batez bestekoan.
- Egokitasun-egoeran dauden eta 4 ikasgaiak (euskara, gaztelania, matematika eta zientziak) gainditu dituzten ikasleen ehunekoak bi ebaluazioetan gutxi gorabehera % 75ekoak dira, 2.ean zertxobait baxuagoa, baina alde nabarmenik gabe. TIMSS 2007an ikasle horiek zientzien eta matematikan lortutako puntuazioak nabarmen altuagoak dira egoera berean dauden, baina 4 ikasgaiak ez dituztela gainditu dioten ikaskideenak baino.
- Ikasturteren bat errepikatu duten eta lau ikasgaiak ez dituztela gainditu dioten ikasleen ehunekoa, gutxi gorabehera, % 70ekoa da; egokitasun-egoerako ikasleen egoera alderantzikatu egiten da ia.

Ikasgelako noten eta TIMSS 2007 errendimendu mailen arteko lotura

- Ikasgelako notek, *gutxiegi* eta *ongi* artekoek, ez dituzte TIMSS 2007n lortutako puntuazioetan alde nabarmenak iragartzen.
- Ikasturtea errepikatu duten eta ikasgelako notan *gutxiegi* eta *ongi* arteko notaren bat atera duten ikasleek TIMSSen batez besteko puntuazioan maila baxua dute bi ikasgaietan: zientzietan eta matematikan. Ikasgelako nota *oso ongi* denean bakarrik kokatzen da ikaslea TIMSSeko batez bestekoan *tarteko* mailan, bai matematikan, bai zientzietan.
- Egokitasun-egoeran dagoen eta ikasgelako notan *nahiko* duen ikasleari TIMSS 2007 puntuazioetan maila *baxua* dagokio. *Nahiko* eta *oso ongi* arteko notak dituzten ikasleek *tarteko* mailan kokatzeko moduko puntuazioak lortu dituzte (475 eta 549,9 puntu artean).
- Matematikan ikasgelan *bikain* nota lortu duten eta egokitasun-egoeran dauden ikasleek soilik lortu dute TIMSS 2007n maila *altuan* kokatzeko puntuazioa (550 eta 624,99 puntu artean).

Taldean ikasle errepikatzaileren ehunekoaren eta TIMSS 2007 emaitzen arteko korrelazioa

- Taldeko errepikatzaileren ehunekoaren eta emaitzen arteko korrelazio negatiboa dago. Errepikatzaileren ehunekoa handiagotzen den heinean, taldeko emaitzak murriztu egiten dira; dena den, aldeak % 40etik aurrera eta % 30etik aurrera ere nabarmenak izaten hasten dira.

Ikaslea eskolatuta dagoen taldearen mailak ikasgelako kalifikazioetan eragiten du

- 4. kuartilean (TIMSS 2007n puntuazio altuenak lortu dituzten ikasleen taldeek osatutakoa) dagoen ikaslearen ikasgelako kalifikazioa *gutxiegikoa* da, nahiz eta TIMSSen *bikain* kalifikazioa duen eta 1. kuartilean (TIMSSen emaitza baxuagoak lortu dituzten taldeek osatutakoa) dagoen beste ikasle batek lortutakoa baino puntuazio altuagoa lortu.

II. ERANSKINA

DESKRIBAPEN AZTERKETA:

IKASKETABURUAREN GALDE-SORTA

DESKRIBAPEN AZTERKETA

Ikasketaburuaren galde-sorta

DBHko 2. mailako ikasleek TIMSS 2007 proban parte hartu zuten ikastetxeetako ikasketaburuari egindako galde-sortetan ikasturtea errepikatzearen inguruan lortutako datuak aztertuko ditugu jarraian. Laginak ez ditu Euskadiko ikasketaburuzagitzak ordezkatzen.

Galde-sorten azterketaren bidez, errepikapenaren kausak ikertu eta neurri horren inguruan profesional horiek egiten duten balorazioa bildu nahi dugu. Gainera, ikasturtearen errepikapena ikastetxeek nola kudeatzen duten eta horretarako neurri osagarriak edo alternatiboak proposatzen dituzten aztertuko dugu.

1. Lagina

DBHko 12 ikastetxetako informazioa bildu dugu TIMSS 2007 ebaluazioan parte hartu zuten DBHko zentroetako ikasketaburuari ikasturtea errepikatzearen inguruan egindako galdetegi espezifikoaren bidez.

Zentro guztiek erantzun diete galdetegiei; hau da, laginaren %100ek. Sarearen eta lurraldearen arabera zentroen banaketa hau da:

Sarea	Kopurua	%
Publikoa	57	50,9
Hitzartua	55	49,1
Guztira	112	100

Lurraldea	Kopuru	%
Araba	13	11,6
Bizkaia	63	56,3
Gipuzkoa	36	32,1
Guztira	112	100


2. DBHko ikastetxeek ikasturtea errepikatzearen inguruan duten iritzia.

➤ Ikasturtea errepikatzeko kausak

Ikastetxeek ikasturtearen errepikapena ikaslearekin eta ingurunearekin lotura duten kausekin erlazionatzen dute batez ere: ahalegin-gabezia, interes-eza edo ezagutzen gabezia, adibidez.

Ikasketaburu gutxi agertu dituzte ikasleen kanpoko kausak (ikastetxea bera, esate baterako); profesional horien % 7k bakarrik agertu du arrazoi posiblea izan daitekeela ikasgaiak egokituta ez egotea. % 1ek bakarrik aipatu du ikasleak ikasturtea errepikatzeko arrazoi edo kausetariko bat zentroak ikasleari eskolak jarraitzeko laguntza-gabezia izan daitekeela.

Ikasturtea errepikatzearen kausak, ikastetxeetako Ikasketen buruzagitzen arabera



➤ **Errepikapenaren ondorioak hezkuntza-testuinguruan, familian eta ikaslearen auto-kontzeptuan**


Ikasketaburuen ustez, irakasleek ikasturtea errepikatu duten ikasleekiko izaten duen jarrera (eta baita ikaskideena ere) hurrengo mailara igaro diren eta martxa arrunta duten ikasleekiko dutenaren antzekoa da. Profesional horien erdiak baino gehiagok uste du irakasleek ondo ulertzen dituztela errepikatzaileak; % 9,8k bakarrik uste du ikasle horiek irakasleengandik balorazio baxuagoa jasotzen dutela. % 52,7ren ustez, errepikatzaileak gainerakoak bezala sentitzen dira.

Ikasketaburuen iritzia “*ados*” eta “*erabat ados*” aukeren maiztasunaren arabera

	Kop.	%
Irakasleek ondo ulertzen dute errepikatzailea	85	75,9
Errepikatzailea besteak bezalaxe sentitzen da	59	52,7
Ikaskideengandik balorazio baxuagoa sentitzen du	20	17,9
Irakasleengandik balorazio baxuagoa jasotzen du	11	9,8

Dena den, jarraian ikus daitekeen moduan, ikasketaburuen ustez, ikasturtea errepikatzeak eraginak ditu errepikatzailearen autoestimuan.

Errepikapenaren eraginak. % "ados eta erabat ados"



Zentroetako ikasketaburu gehienek uste dute ikasturtea errepikatzeak eragin negatiboak izaten dituela ikaslearen autoestimuan; % 6,3k bakarrik uste du ikasturtea errepikatzeak ez duela bigarren mailako eraginik.


Ikasturtea errepikatzeak ikasleen artean porrot pertsonalaren sentipena sortzen duela uste dute gehienek (% 75); ikasketaburuaren % 30 eta % 40k uste du talde berrira egokitzeko edo familian arazoak sor ditzakeela eta, gainera, lagunak galtzea eragin dezakeela. % 12ren ustez, betirako porrot egin duen ikaslearen etiketa jartzea gerta dakioko.

3. Ikasleek ikasturtea errepikatzearekin lotutako ikastetxeko alderdiak

➤ Ikasturtea errepikatzearen maiztasuna

Ikasturtea errepikatzea beren ikastetxean ohiko neurria den ala ez galderari emandako erantzunak ikusita, ehuneko hauek ageri dira datuen arabera:


- Ikastetxeen % 20,5ek uste du neurria ohikoa dela; aldiz, % 38,4k uste du ez dela ohikoa.
- Zentroen erdiak baino apur bat gehiagok, % 52,7k, uste du saihesten saiatzen diren neurria dela.



Ikasturtearen errepikapena saihesten saiatzen direla dioten 59 zentroetatik (% 52,7) 47k ez du zehaztu ohiko neurria edo oso ohikoa ez den neurria ote den. 4 zentrotan ohiko neurria dela esan dute, eta 8tan, ez dela ohikoa.


➤ **Ikasturtea errepikatzearen inguruko ikastetxeen irizpideak.**

Ikastetxe gehienek ikasturtea errepikatzearen inguruko irizpideak dituzte zehaztuta. Ikasketaburuek esandakoaren arabera, aztertutako 112 ikastetxetako 102tan (hau da, zentroen % 90en baino apur bat gehiagoan), ikasleak ikasturtea errepikatzea noiz den egokia erabakitzeko irizpideak dituzte zehaztuta.



➤ **Ikasturtea errepikatzearen inguruko ikerketak edo azterketak ezagutzea**

Ikerketan parte hartu duten zentroak kontuan hartuta, ikasketaburuek emandako datuen arabera, % 20,5ek (23 ikastetxek) soilik dio gai horren inguruko azterketak eta ikerketak ezagutzen dituela.




Bi talde horien artean (errepikapenaren inguruko ikerketak ezagutzen dituztela dioten 23en eta ezagutzen ez dituztenek osatzen duten taldearen artean) neurri hori maiztasun handiagoz edo txikiagoz hartzeko garaian alderik badagoen aztertu dugu. Hau ikus daiteke:

- Ikerketak ezagutzen dituztenek zein ezagutzen ez dituztenek ekiditen saiatzen diren neurria dela diote ehuneko altuan; izan ere, ikastetxeen erdiak baino apur bat gehiagok adierazi du hori: % 52,3k eta % 51,8k, hurrenez hurren.
- Ikerketa horiek ezagutzen dituztenen taldean, zentroen antzeko ehunekoak onartu du ohiko neurria dela (7 kasu, % 30,4) eta ez dela ohikoa (8 kasu, % 34,8).

	Ikerketak ezagutzen dituzte (% 20,5)		Ez dituzte ikerketak ezagutzen (% 79,5)	
	Kop.	%	Kop.	%
Errepikapena ekiditen saiatzen dira	12	52,3	44	51,8
Ohiko neurria da	7	30,4	16	18,8
Ez da ohiko neurria	8	34,8	34	40,0

➤ Errepikapenaren inguruko erabakiak hartzeko arduradunak

Hurrengo grafikoan ageri da ikasturte berean jarraitzearen edo hurrengo mailara igarotzearen inguruko erabakia hartzeko garaian parte hartzen duten profesionalen, familiaren eta ikasleen ehunekoa “askotan eta beti” maiztasunak kontuan hartuta, ikasketaburuen ikuspegitik begiratuta.




Lagineko zentroen % 97an erabakia ebaluazio-saioan hartzen da, ikaslearen irakasle guztien artean. Zentroen % 76k orientazio-taldearen iritzia hartzen du kontuan. Zentroen % 60 baino gehixeagok ez du kontuan hartzen “inoiz edo batzuetan bakarrik” hartzen du kontuan familiaren iritzia eta are gutxiago hartzen da kontuan ikaslearen iritzia. Erabakia ikasleari hartzen zentroen % 20an bakarrik uzten zaio.

Hau da, lagineko 112 zentroetako 109tan erabakia irakasleek hartzen dute ebaluazio-saioan, haietako 84k zentroko orientatzailearen iritzia kontuan hartzen dute “askotan eta beti” maiztasunarekin. 42 zentrotan, familiaren iritzia kontuan hartzen dutela adierazi dute, aldiz, 22tan bakarrik hartzen dute kontuan ikaslearen beraren iritzia.

➤ Ikasturtea errepikatzeari inguruan garatutako prebentzio-neurriak

Zentroetan ikasleak ikasturtea errepika dezan saihesteko prebentzio-neurriak hartzen duten galdetutakoan, lagineko 112 zentroetatik 109k (% 97) baietz erantzun dute, prebentzio-neurriak hartzen dituztela. Grafikoan zentroetan jartzen dituzten neurri motak adierazi ditugu.

Ikastetxeetako prebentzio-neurriak




Ikasleari etxean laguntza eman diezaioten senideei emandako informazioa da gehien egiten den prebentzio-neurria; horren jarraian, aipatu beharrekoa da ikastetxean eskainitako banakako errefortzua eta ikaslearen orientaziorako eta jarraipenerako plangintza prestatzea.

Ikastetxeen % 82,6k ematen dio familiari informazioa, ikastetxean ematen duten laguntzaz gain, seme-alabei eskolako testuingurutik kanpo laguntza eman diezaioten, ikasturtea amaitzean hurrengora ez igaro ahal izatea saihesteko.

Dena den, seme-alabei kanpoko laguntza eman diezaion familiari ematen zaion informazio hori *askotan* eta *beti* osatzen dute ikastetxean bertan ikasleentzat antolatutako beste laguntza batzuekin. Gutxienez, prebentzio-neurri horietako bi (horietako bat familiari emandako informazioa izaten da) aplikatzen dituzten ikastetxeen ehunekoa hau da:


- Familiari informazioa emateaz gain, % 46k zentroan hezkuntza-arloko errefortzu-neurriak eskaintzen dizkio ikasleari.
- Zentroen % 37n, gainera, ikaslearen jarraipen akademikorako eta orientaziorako plangintza prestatzen dute.
- % 32n, familiari emandako informazioaz gain, edukiak egokitzen dituzte.
- Ikastetxeen % 28n, familiari emandako informazioaz gain, ikasgai batzuk gainditu gabe hurrengo mailara igaro den ikaslearentzako banakako plana prestatzen dute.



➤ Errepikapenerako neurri osagarriak ikastetxean

Lagina osatzen duten 112 zentroak kontuan hartuta, 105 ikastetxetan neurri osagarriak hartzen dituzte ikasleak bigarren aldiz egingo duen maila horretarako. Hori dela eta, ikastetxeen % 93,8k dio ez duela uste ikasturtea errepikatzea, bere horretan, eskola-porrota konpontzeko behar adinako neurria izango denik, eta beste neurri osagarri batzuekin batera erabiltzen du.

Errepikatzeako neurri osagarriak




Ikastetxeek garatzen dituztenen artean, maiztasuna kontuan hartuta bi neurri bereizi behar dira batez ere. Ikastetxeen % 76n errepikatutako urtearen bilakaeraren jarraipena hitzartzen du familiarekin eta ehuneko berak ikaslearekin hitz egiten du zailtasunen inguruan. Zentro horien % 66,7k bi jarduerak egiten ditu: ikaslearekin hitz egiten dute eta, gainera, familiarekin hitzartzen dute errepikapen-prozesuaren jarraipena.

Maiztasun txikiagoa duela eta, azpimarratu beharrekoa da ikasgela baitan ikasleari eskaintzen zaion banakako arreta. Izan ere, ikastetxeen % 28k bakarrik aipatu du "askotan eta beti" egiten duela, nahiz eta % 41ek ikasleak gabeziak dituen ikasgai horietan errefortzua aplikatzen duela dioen.

➤ **Zentroko ebaluazioa errepikapena egokia den ala ez zehazteko**

Ikasleari ikasturtea errepikarazteko neurria egokia den ala ez ebaluatzen ote duten galdetzean, ikastetxeen % 76k erantzun du baietz, haietako ikasketaburuek adierazi dutenez.

Errepikapenaren egokitasuna. Ehunekoak



Irakaskuntzako profesionalek ikasturtea errepikatzeari ematen dioten garrantzia kontuan hartuta, deigarria da ikasketaburuek emandako datu hau: ikastetxeen % 24k ez du ebaluatzen neurri hori egokia den ala ez, edo ez du jarraipen egituratuagoa egiten.

4. Ikasturtea errepikatzearen funtzionalitatea.

Neurri horrek betetzen duen funtzioaren inguruan ikastetxeek duten iritzia ezagutzea interesgarria da; hau da, errepikapena onuragarritzat zer alderditan hartzen duten edo, aldiz, haien ustez, eragingarriagoak diren beste aukera batzuk ote dauden ikustea.

➤ Onuragarria al da ikasturtea errepikatzea?

Ikasketaburu gehienek ustez, ikasturtea errepikatzea onuragarria da. Profesional horien iritzia arabera, 10etik 9k uste du neurri hori onuragarria dela nahiz eta gehiengo handiak uste duen errepikapena jasan duen ikaslearen autoestimuan eragin negatiboak izan ditzakeela aldi berean. Ikastetxeetako ikasketaburuak % 10,7k soilik uste du errepikatzea ez dela onuragarria.


Profesional horien ehuneko altuaren, % 71,4ren, arabera, errepikapenaren onuragarritasun nagusia errepikatu duen ikaslearen errendimendu akademikoa hobetzeko balio izatea da; ia erdiaren arabera, irakasleen lana erraztu egiten du neurri horrek, ikasgela bereko ikasleak ezagutzak uniformeago bihurtzen baititu.

Dena den, azpimarratu beharrekoa da gehienek ustez, errepikapena beste neurri osagarri batzuekin batera egiten bada soilik dela onuragarria (ikasketaburuak % 80,4ren ustez).

Ikasketaburuzagitzen iritzia “ados” eta “erabat ados” aukeren maiztasunaren arabera

	Kop.	%
Errendimendu akademikoa hobetzen du	80	71,4
Ikasturteko irakasleen lana errazten du	54	48,2
Beste neurri osagarri batzuekin batera soilik da onuragarria	90	80,4


Ikasturtea errepikatzearen eragingarritasuna



Ikaslearen errendimendu akademikoa hobetzen duelako errepikapena onuragarria dela uste dutenen artean (80 ikastetxe), % 77,5ek uste du beste neurri osagarri batzuekin batera bakarrik dela baliagarria.

➤ **Onuragarria al da promozio automatikoa behar adinako maila lortu ez duenean?**

Ikastetxeetako ikasketaburu gehienek, % 83,9k, uste du ikasleak behar adinako maila lortu ez duenean hurrengo mailara igarotzea ez dela onuragarria, ikasleak ezin baitio eskolen erritmoari jarraitu. Iritzi hori bat dator errepikapenaren onuragarritasunaren inguruan lehen aipatu ditugun datuekin. % 13,4 bakarrik dago *ados* edo *erabat ados* promozioa automatikoa eragingarria dela dioen baieztapenarekin.




Profesionalen % 28,6k uste du promozio automatikoa positiboa dela ikasleek behar adinako maila lortu ez dutenean; izan ere, horri esker, ikasleek beren erreferentziako taldearekin jarrai dezakete. Baliteke ikaslearen autoestimarekin, laguntzak galtzearekin, talde berrira egokitzearekin eta abarrekin lotutako eragin negatiboak kontuan hartzea.

% 84,8ren ustez, hurrengo mailara igarotzea onuragarria da beste neurri gehigarri batzuekin batera garatuz gero.

Ikasketaburuzagitzen iritzia “ados” eta “erabat ados” aukeren maiztasunaren arabera

	Kop.	%
Hurrengo mailara igarotzea positiboa da ikasleak bere erreferentzia-taldean jarraituko baitu	32	28,6
Hurrengo mailara igarotzea beste neurri osagarri batzuekin batera soilik da onuragarria	95	84,8

Ikasleei erreferentziako taldearekin jarraitzeko aukera emateko hurrengo mailara igarotzea onuragarria dela dioten ikasketaburuak %100ek dio horrekin batera beharrezkoa dela beste neurri osagarri batzuk bideratzea.



Nabarmendu beharrezkoa da ikasturtea errepikatzearekin zein promozio automatikoarekin lotuta, ia ikasketaburu guztiek esan dutela neurri bat zein bestea beste neurri osagarri batzuekin batera soilik dela onuragarria.


➤ Errepikapenaren eragingarritasunaren inguruko ikaslearen iritzia

Ikasturtea errepikatzearen eragingarritasunari dagokionez, profesional horien erdiak baino apur bat gehiagok, % 57k, uste du ikasturtea errepikatu duten ikasleen errendimendua hobetu egiten dela. % 33,9ren ustez, ordea, errepikatu arren, ikasleak berdin jarraitzen du.

Era berean, nabarmendu beharrekoa da % 75ek uste duela errepikatzeak ikasleentzat eragin negatiboak izaten dituela: porrot pertsonalaren sentipena, taldera egokitzeko arazoak (kasuen % 36), lagunak galtzea (% 33) eta abar. Hau da, atzerapena duten ikasleen kasuan, alderdi akademikoak hobetzeko errepikatzea neurri egokia dela uste dute, baina horrek ikasturtea errepikatu behar duen neska-mutilaren autoestimuan ondorioak izaten dituela.

Datu horiek ikusita, errepikatzearen eragingarritasuna balioztatzeko garaian, ikasketaburuek hobekuntza akademikoari lehentasuna ematen diotela eta ikaslearen inguruko beste alderdi pertsonal batzuk bigarren mailakotzat hartzen dituztela ondoriozta dezakegu. Hau da, arlo akademikoari balio handiagoa ematen diote errepikatzeak ikaslearen autoestimuan izan ohi dituen ondorio negatiboekin alderatuta.


Errepikapenaren eragingarritasuna errepikatzailearentzat



➤ Errepikatzearen alternatibak

Ikasketaburuen ustez, ikasturtea errepikatzearen inguruko baliozko alternatiba batzuk daude, eta horiek ikaslea hurrengo mailara igarotzea ahalbidetuko lukete, ikasleak behar adinako maila lortu ez arren. Aukera horien artean, hauek nabarmendu behar dira:

Ikasturtearen errepikapenerako alternatibak: hurrengo mailara igarotzea beste neurri batzuekin batera.



Aipatutako alternatibak aztertuta, eta laguntza aplikatzen den alderdiaren arabera, honela sailka ditzakegu:

- Ikasturtearen promozioa ikasgela baitako laguntzarekin
- Mailaz igotzea ikasgela kanpoko laguntzarekin

Hurrengo tauletan ikus daitekeen moduan, ikasketaburu ugarik aipatu du ikasturtea errepikatzearen baliozko alternatiba gisa hurrengo mailara igarotzea banakako errefortzuarekin batera. Hori ikasgela baitan egin daiteke beharrezko ikasgaiak egokituz, edo ikasgelatik kanpo, antzeko mailak edo egokitutako curriculumak dituzten ikasleen taldeak eratuz.

Nahiago dute mailaz igotzea <i>ikasgela baitako laguntzarekin</i>		%
- Ikasketaburuak	- Banakako errefortzua beharrezko ikasgaietan	68,2
	- Metodologia indibidualizataileak erabiltzea	40,2

Nahiago dute mailaz igotzea <i>ikasgelaz kanpoko laguntzarekin</i>		%
- Ikasketaburuak	- Curriculum egokituko taldeak. Curriculum Dibertsifikazio erakoa.	65,2
	- Mailako edo zikloko talde homogeneoak	18,8

Laburpena

Errepikapenaren kausen eta eraginaren inguruan

- Lagineko DBHko ikastetxeetako ikasketaburuaren arabera, ikasturtea errepikatzeko kausak batez ere ikasleen bananako arloekin lotzen dira: ahalegin-gabezia, interes-gabezia, aurretiazko ezagutzak ez izatea eta abar.
- % 7k bakarrik aipatzen du errepikatzearen kausa posible gisa ikastetxearen beraren aldagaiak, esaterako, erabilitako metodologia edo ikasleei laguntza emateko bertako antolaketa.
- Gehiengoaren arabera, ikasturtea errepikatzeak ikasleen autoestimuan eragin negatiboak ditu, eta hori kasuen % 75en porrot pertsonalaren sentipenarekin batera agertzen da; % 36an, taldean egokitzeko arazoekin eta abarrekin. Hala ere, antzeko ehunekoaren arabera (% 71), ikasketetako errendimendua hobetzeko neurri onuragarria da. Hau da, errepikatzea atzerapena duten ikasleen arlo akademikoak hobetzeko neurri egokitzat hartzen dute.

Ikasturtea errepikatzearen baliozkotasunaren inguruan

- Zentroetako ikasketaburuak behar adinako maila lortu ez duten ikasleek ikasturtea errepikatzearen aldekoak dira erabat.
 - % 87,5en ustez, errepikatzea onuragarria da
 - % 13,4ren ustez, berriz, automatikoki mailaz igotzea onuragarria da.
- Hala ere, gehiengo argiaren arabera (% 80 eta % 85 artean), mailaz igotzea nahiz errepikatzea onuragarriak izateko, beste neurri osagarri batzuk ere aplikatu behar dira.
- Profesional horien erdiak baino gehixeagok (% 57) uste du, oro har, errepikatutako ikasleek hobetu egiten dutela. Horrek esan nahi du % 40 ingururentzat ez dela hobekuntzarako neurri egokia, nahiz eta maiz aplikatzen den eta arlo emozional eta pertsonalean ondorioak dituen.

Ikastetxeetako errepikapenaren kudeaketaren inguruan

- Ia ikastetxe guztietan (% 91,1) daude ikasturtea noiz errepikatu zehazten duten irizpideak.
- Ikastetxeen % 76tan, errepikatzea neurri egokia izan ote den ebaluatzen da.
- Ikastetxeen % 97tan ikasturtea errepikatzea komeni ote den erabakia ebaluazio-saioan ikaslearen irakasleek batera hartzen dute.
 - Ikastetxeen % 75,9k orientatzailearen iritzia kontuan hartzen du.
 - Zentroen % 37,5ek familiareen iritzia kontuan hartzen du.
 - % 19,6k bakarrik hartzen du kontuan ikaslearen iritzia.
- Ikastetxe gehienek errepikatzearen inguruko neurri osagarriak hartzen dituzte:
 - Prebentziozkoak, ikasleen beharrak detektatzean, ikastetxeen % 97tan.
 - Errepikatzen ari den ikasturtean, ikastetxeen % 93,8tan.
- Errepikatu aurretik aplikatutako prebentzio-neurrien artean, hauek nabarmen daitezke:
 - Familiari informazioa ematea, ikasleari laguntzeko (% 82,5).
 - Banakako laguntza, % 54,1etan. % 58 ikastetxetan bi ekintzak batera egiten dira.
 - Edukiak egokitzea % 40n.
- Errepikatzen ari den ikasturtean aplikatutako neurrien artean, nabarmentzekoak dira hauek:
 - Jarraipena hitzartzeko familiarekin harremanetan egotea (% 76,1). Antzeko ehunekoak ikaslearekin hitz egiten du zailtasunen gainean.
 - % 40k talde berriarekin lan egiten du.

III. ERANSKINA

DESKRIBAPEN AZTERKETA:

IKASLEEN GALDE-SORTA

DESKRIBAPEN AZTERKETA

Ikaslearen galde-sorta

TIMSS 2007 proban parte hartu zuten DBHko 2. mailako ikasleak ordezkatzeko dituen laginak betetako galdesortako datuak abiapuntutzat hartuta, helburu hauek aztertuko ditugu:

- DBHko 2. mailako ikasleek ikasturtea errepikatzearen inguruan duten iritzia eta asebetetze mailaren inguruko balorazioa ezagutzea.
- Derrigorrezko eskolatzean ikasturteren bat errepikatu duten ikasleen iritzia azaltzea, norberaren esperientzia eta neurri horri ematen dioten baliozkotasuna aztertuz.
- Ikasturteren bat errepikatzearen eta oinarrizko ikasgaietako lehen bi ebaluazioetan lortutako kalifikazioen artean loturarik badagoen ezagutzea. Era berean, aparteko kapituluan, nota horien eta TIMSS 2007 probako zientzien eta matematikaren arloan lortutako kalifikazioaren artean dagoen lotura aztertuko dugu.

Ikerketako ikasleen laginarekin lotutako datuak

	Sarea			Lurraldea	
	Kopurua	%		Kopurua	%
Publikoa	1.154	38,4	Araba	395	13,2
Hitzartua	1.847	61,6	Bizkaia	1.632	54,4
Guztira	3.001	100	Gipuzkoa	974	32,5
			Guztira	3.001	100

	Sexua			Ikasle errepikatzaileak eta ez errepikatzaileak	
	Kopurua	%		Kopurua	%
Neska	1.422	47,4	Ez dute errepikatu	2.369	78,9
Mutila	1.579	52,6	Errepikatu egin dute	632	21,0
Guztira	3.001	100	Guztira	3.001	100

Errepikatutako ikasturteak


	Kopurua	%
Ez du errepikatu	2.369	78,9
LHko ikasturte bakarra errepikatu du	180	6
1. DBH soilik errepikatu du	122	4,1
2. DBH soilik errepikatu du	146	4,9
2 ikasturte errepikatu ditu: LH eta DBH	141	4,7
2 ikasturte errepikatu ditu: DBH	41	1,4
2 ikasturte errepikatu ditu: LH	2	0,1
Guztira	3.001	100

1. DBHko 2. mailako ikasleek ikasturtea errepikatzearen inguruan duten iritzia.

Gure helburua hezkuntza maila bera errepikatzearen egoera jakinaren inguruan ikasleek, oro har, duten gizarte-ordezkaritza ezagutzea da. Gizarte-ordezkaritza talde jakin batek fenomeno sozial baten inguruan dituen ideien multzoa da; kasu honetan, DBHko 2. mailako ikasleek ari gara. Honela defini dezakegu: *“Banakoek beren esperientziaren, komunikazioaren eta gizarte-harremanen bidez egituratutako kognizio, afekzio, gizarte eta balorazio mailako dimentsioak elkarrekin lotzen dituen berezko ezagutza. Gizarte-ordezkaritzak ez du izaera unibertsalik; izan ere, talde sozial bakoitzean modu espezifikoan eraten da”⁶³.*

➤ Ongizatearen inguruan ikasleek duten iritzia.


Ikasleek beren ongizate pertsonalaren inguruan duten iritzia ezagutzeko, ikaslearen egoera akademiko jakina haien bizitzaren “kalitatearen” inguruan duen iritziarekin lotzen duen galdera egin diegu: beren buruaren inguruko zer balorazio orokor egiten duten, bizitzarekiko duten asebetetzea, ikasketetan familiaren laguntza jasotzen dutela uste duten edo etxean ulertzen dituztela uste duten. Ongizate pertsonalaren inguruko balorazioa egiteko eta arrakastako edo porroteko egoera akademikoak (ikasturtea errepikatu izanarekin edo egokitasun-egoeran egotearekin lotuta dago) berengan eraginik duen ala ez adierazteko balio dezakete iritzi horiek



Bildutako adierazleen ehunekoak, oro har, oso altuak dira; izan ere, ikasle guztien % 90ek ikasketetan familiak animatu egiten duela dio; % 85 pozik dago bere bizimoduarekin; % 83k bere buruaren inguruko balorazio ona du; eta % 82k dioenez, etxean ulertzen dutela uste du.

Interesgarria da egoeraren inguruan ikasleek dituzten balorazio positiboko ehuneko altu horietan egokitasun-egoeran dagoen ikaslea izateak edo ikasturteren bat errepikatu duen ikaslea izateak eraginik baduen aztertzea.

⁶³ MARCHESI A. HERNANDEZ, C. (koord.): El fracaso escolar. Una perspectiva internacional. Cap. 8 La representación social del fracaso escolar.



Bi kolektiboak alderatzen dituen grafikoan ikus daitekeen moduan, proposatutako adierazleekin *adós* dagoela dioten ikasle errepikatzaileen ehunekoa baxuagoa da. Ehunekoei dagokienez, alderik handienak *bizimoduarekin pozik* daudela diotenetan (ikasturteren bat errepikatu duela erantzun duen ikasleen kasuan, ehunekoa % 13 baxuagoa da) eta beren buruaren inguruko balorazio ona egin dutenetan (% 9 gutxiagokoa) daude. Errepikatu duten ikasleen % 8k gutxiagok esan du familiak ikasketetan animatzen duela eta etxean ulertzen dutela uste duela.

Familiak animatzen duela, bere bizimoduarekin pozik dagoela edota bere buruaren balorazio ona duela dioten ikasleak nabarmen altuagoak diren puntuazioak lortu ditu TIMSS 2007 ebaluazioan.

➤ **Ikasturtea errepikatzeko kausak.**

DBHko 2. mailako ikasleek ikasturtea errepikatu behar izatea, batez ere, norberarekin lotura duten arrazoiei egozten die: ahaleginik ez egitea, aspertzea, portaera txarra izatea edo arazo pertsonalak izatea, esate baterako.


Oso ikasle gutxi lotzen du errepikatzea beraienak ez diren kanpoko kausekin: ikastetxean eskaintzen duten laguntza, irakasleek behar bezala ez irakastea edo familiak ikasketarako behar adinako laguntzarik eta estimulurik ez ematearekin, adibidez.

Kausak irizpide hauekin lotzen dituen testuingurua hartu dugu kontuan kausen sailkapena egiteko:

- Eremu pertsonala (ikaslearen barneko kausak):
 - Ez du ahaleginik egiten
 - Interesa falta zaio. Aspertu egiten da
 - Portaera txarra.
 - Arazo pertsonalak
 - Ez du ulertzen ikasgelan irakatsitakoa
 - Aurreko ikasturteetako ezagutzak falta zaizkio
- Familiaren esparrua (familiako testuinguruko kausak):
 - Familiakoen laguntzarik eza ikasketetan
- Eskola-esparrua (ikastetxeko testuinguruko kausak):
 - Eskolak ulertzeko ikasgelan irakaslearen laguntza ez izatea
 - Irakasleak ez du ondo irakasten

Grafikoki ikus daitekeen moduan, ikasleen % 78k uste du errepikatzearen arrazoa ahalegin pertsonala ez egitea dela; % 56,5en arabera, arrazoa ikasgelan egiten denarekiko interesik eza da eta horrek aspertzea

eragiten du. Gutxi gorabehera, % 30ek uste du arrazoi nagusiak portaera txarra, arazo pertsonalak edo ikasgelan irakatsitakoa ez ulertzea direla.




Agerian geratzen da ikasleen ustez, ikaslea bera dela ikasturtea errepikatzearen arduradun nagusia eta erantzukizun maila txikiagoa ematen diela irakasleei eta familiari. Ikasleen % 14,9k bakarrik uste du errepikatzearen arrazoiak familiak ikasketetan laguntzarik ez ematea izan daitekeela. Ikasleen are ehuneko txikiagoak agertu du errepikapenaren kausak ikastetxeko edo irakasleen jarduerarekin lotura duela: % 9,9ren ustez, arrazoi nagusia ondo ez irakastea da, eta % 12,5ek dio eskolak jarraitzeko laguntzarik ez duela.

Ikasleei dagokienez, ikasturteren bat errepikatu dutenen eta errepikatu ez dutenen iritzien artean alderik badagoen aztertzeko garaian, hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan, ikasturteren bat errepikatu dutenen taldeak honelako kausak maizago aipatzen dituztela ikus dezakegu: eskolan irakatsitakoa ez ulertzea, eskolan irakasleen laguntzarik ez izatea eta irakasleek ondo ez irakastea. Hau da, errepikatu duen ikasleak maizago aipatzen ditu irakasleekin eta zentroaren testuinguruarekin lotutako arrazoiak.

Ikasketetan familiako laguntzaren gabezia sentitzeari dagokionez, bi taldeen artean ere aldeak daude (errepikatzaileen % 8,3k soilik aipatu du arrazoi hori; errepikatu ez dutenen artean, aldiz, % 16,7k). Ikasleak interesik eta ahaleginik ez agertzea eta portaera txarra dira errepikatu ez duten ikasleek gehien aipatzen dituzten arrazoiak. Azpimarratu beharrekoa da ikasturtea errepikatu duten ikasleen ehuneko baxuak aipatu duela aurreko ikasturteetako ezagutza-gabezia dela ikasturtea errepikatzeko arrazoiak (% 22,3). Errepikatu dutenen eta eskolan irakasten dutena ez dutela ulertzen dioten ikasleen ehunekoa handiagoa da (% 34,2).

Errepikatzeko arrazoiak ikasleen arabera (%)




Hurrengo grafikoan ikus daitezke errepikapenaren kausen inguruan ikasleek eta ikastetxeetako ikasketaburuek emandako iritzien alderaketako emaitzak. Ikasleen arabera, portaera txarra eta ikasgela baitan irakasleen laguntza-gabezia errepikatzeko kausak dira % 35,4rentzat eta % 12,5entzat, hurrenez hurren. Dena den, arrazoi horien ehunekoa txikiagoa da ikastetxeetako ikasketaburuen kasuan; izan ere, % 8k soilik uste du portaera txarra dela horretarako arrazoiak, eta % 0,9k aipatu du arrazoitzat zentroaren laguntza-eza.

Aurreko ikasturteetako oinarrizko ezagutzak ez izatea eta ikasketetan familiaren laguntzarik ez izatea ikasketaburuek ikasleek baino askoz ere maizago errepikatu duten errepikatzeko kausa dira.

Bi taldeak, ikasleak eta irakasleak, bat datoz errepikatzeko kausa nagusietako bat ikasleen ahalegin-gabezia dela esateko garaian (% 78,3 eta % 84,8, hurrenez hurren). Ikuspegi horrek, oinarri bakartzat ikasleak hartzen dituenak, arriskua du berekin: ez du errazten ikastetxeak irakaskuntza ikasleen dibertsitatearen arabera egokitu ahal izateko neurri pedagogiko egokiak ezartzea. Ikasleen ikuspegitik, baliteke hasieran esparru akademikokoa soilik den balorazioak arlo pertsonaleko beste esparru batzuetan ere eragina izatea; autoestimuan, esate baterako.

Errepikatzeko arrazoiak. Ikasleen eta ikasketaburuen arteko alderaketa (%)



Bi kolektibo horiek kausa horietako bakoitzari ematen dioten garrantzi maila aztertzen badugu, aipatutako lehen bi arrazoietan eta azken bietan bat datozela esan dezakegu. Aipatutako lehen kausak ikaslearenak


dira, eta azken biak, aldiz, eskolako testuinguruaren ingurukoak dira. Hurrengo taulan ageri da zehatz-mehatz kolektibo bakoitzak kausa bakoitzari ematen dion arrazoa eta kausen ordena ikasleek eta ikasketaburuak emandako erantzunen ehunekoaren arabera.

Ikasleen eta ikasketaburuaren ustez, errepikatzeak arrazoi nagusiak				
Ordena	Ikasleak		Ikasketaburuak	
	Ordena	%	Arrazoiak	%
1.	78,3	Ez du ahaleginik egiten	84,8	1.
2.	56,5	Interesa falta zaio. Aspertu egiten da	61,6	2.
3.	35,4	Portaera txarra.	8	7.
4.	32,0	Arazo pertsonalak	27,7	6.
5.	30,5	Ez du ulertzen ikasgelan irakatsitakoa	33,9	5.
6.	25,6	Aurreko ezagutzak falta zaizkio	47,3	3.
7.	14,9	Familiaren laguntza falta zaio	35,7	4.
8.	12,5	Ikastetxearen laguntza falta zaio	7,1	8.
9.	9,9	Irakasleek ez dituzte eskolak egokitzen	0,9	9.

➤ Ikasturtea errepikatzearen onuragarritasuna.


Ikasturtea errepikatzea onuragarria den ala ez balioesteko garaian, ikasle gehienek ezagutzen ez zituzten ezagutzak ikasteko balio duela diote (*ados daude*); hori dela eta, errepikatzea ezagutza mailarekin lotzen dute. Ia ikasleen erdiak uste du errepikatzeak eskolak errazagoak izateko, lagun berriak egiteko edo irakasleek ikasketekin gehiago laguntzeko balio duela. Gutxi gorabehera, ikasleen laurdenak uste du errepikapena ez dela onuragarria eta ez duela ezertarako balio.

Errepikapenaren onuragarritasuna ikasleen arabera (%)



Ikasturteren bat errepikatu duten ikasleen eta egokitasun-egoeran dauden ikasleen artean, alde txiki batzuk daude errepikapenaren onuragarritasunaren inguruan. Bi taldeak alderatzen baditugu, lagun berriak egiteko eta eskolak errazagoak izan daitezkeen (*ados daude*) balio duela dioten errepikatzaileen ehunekoa handiagoa dela ikusiko dugu. Dena den, ezertarako ez duela balio dioten ehunekoa ere altuagoa da: errepikatzaileen % 31,9; aldiz, errepikatu ez dutenen ehunekoa % 22,4koa da.


Errepikapenaren onuragarritasuna errepikatzaileen eta ez errepikatzaileen arabera



Errepikapenaren onuragarritasunaren inguruan DBHko ikastetxeetako ikasketaburuak duten iritziaren eta ikasleenaren artean alde txiki batzuk daude. Ikasturtea errepikatzeak ez dakitena ikasteko balio duela eta eskolak errazagoak direla dioten ikasleen proportzioa apur bat altuagoa da.


Dena den, alderik handiena bi taldeek errepikapenaren onuragarritasunaren inguruan egiten duten balorazio orokorrean topatuko dugu. Izan ere, ikasketaburuak % 10ek uste du ez dela onuragarria; iritzi hori bera duten ikasleek baino bi aldiz gehiagok (zehazki, % 24,4k). Gainera, alde hori areagotu egiten da ikasle errepikatzaileen iritzia kontuan hartzen badugu; izan ere, errepikatzaileen % 31,9k uste du errepikatzea ez dela onuragarria.

Errepikapenaren onuragarritasuna. Ikasleak eta Ikasketaburuak.



Hiru kolektiboek (egokitasun-egoeran dauden ikasleak, errepikatzaileak eta ikasketaburuak) errepikapenaren onuragarritasunaren inguruan duten iritzia alderatzen badugu, errepikapenari balio handiena ematen diotenak ikastetxeetako profesionalak direla ikusiko dugu; aldiz, mesedegarritasun mailarik baxuena ematen diotenak ikasturteren bat errepikatu duten ikasleak dira.

Errepikapenaren onuragarritasuna. Errepikatu duten ikasleak, errepikatu ez dutenak eta Ikasketaburuak




➤ Ikasturtea errepikatzeak ikaslearen eremu afektibo-emozionalean dituen eraginak

Ikasturtea errepikatzeak norberaren arloan dituen eraginaren inguruan ikasleek dituzten iritziak aztertuko ditugu. Aro pertsonalaz hitz egiten dugunean, oro har, auto-kontzeptuaz eta norberaren autoestimua ari gara. Banakoak ingurunearekin (famiario eta gizarteko ingurunea barne) zein ikaskuntzarekin dituen harremanak baldintzatzen dituen alderdi kognitiboak, afektiboak eta emozionalak biltzen ditu.


Ikasle gehienentzat, ikasturtea errepikatzeak eskola-porrota ekarri ohi duela dioten ebidentziak daude; gainera, horiek arlo pertsonalean beste porrot mota batzuk bil ditzakete. Izan ere, % 20k soilik uste du errepikatzeak ez duela inolako eraginik. Aipatu dituzten eraginik garrantzitsuenak harremanen arlokoak dira; % 66,2, adibidez, ados dago gainerakoekin harremanak izateko ahalegin gehigarria ekarri ohi duela; % 43,8k uste du errepikatzailea gutxiago baloratzen dutela ikaskideek; gainera, % 32,6ren ustez, lagun gutxiago izatea ekarri ohi du.

Errepikapenaren eraginak ikasleen arabera (%)




Errepikatu dutenen eta errepikatu ez dutenen taldeak desberdin ikusten dituzte errepikapenak arlo emozionalean sortzen dituen eraginak. Nabarmendu beharrekoa da ia kasu guztietan, errepikapenak porrota, lagunak galtzea edo gainerakoekin harremanak izateko ahalegina egin beharra ekarri ohi duela dioten errepikatzaileen ehunekoa baxuagoa dela. Errepikatzaileen proportzioa altuagoa da irakasleek gutxiago baloratzen dituztela diotenean soilik. Era berean, inolako eraginik ez duela uste duten errepikatzaileen ehunekoa ere altuagoa da (ia bikoitza: errepikatzaileen % 32,2k uste du ez duela inolako eraginik; aldiz, erantzun bera eman duten ez errepikatzaileen ehunekoa % 17,9 da).

Errepikatzearen eraginak errepikatzaile eta ez errepikatzaileen arabera (%)




Ikasketaburuek eta ikasleek errepikatzeak dituen eraginaren inguruan dituzten iritziak batera aztertzen baditugu, nabarmendu beharrekoa da bi taldeak ados daudela errepikapena porrot-sentipenarekin lotzeko garaian; ikasleen kasuan, ehunekoa % 70 baino handiagoa da, eta profesionalena, aldiz, % 75ekoa. Ikasketen buruzagitza gutxiagok lotzen dute errepikapena ikaskideen talde berrira egokitzeko edo familiarekin gertatu ohi diren arazoekin; ikasleen iritzia, ordea, bestelakoa da.

Dena den, errepikapenak ikaslearengan inolako eraginik ez duela dioten profesional horiek % 6,3 dira, baina iritzi bera agertu duten ikasleen ehunekoa hirukoitza da (% 20,9 zehatz-mehatz); hau da, ikasketaburuen oso ehuneko altuak (% 93,7k) uste du ikasturtea errepikatzeak ikaslearengan eragina duela. Aldiz, ikasturtea errepikatzeak ondorioak dituela dioten ikasleen ehunekoa % 69,1ekoa da.



Errepikapenaren eraginaren inguruan dauden iritzi horiek are desberdinagoak dira ikasle errepikatzailen, ez errepikatzailen eta ikastetxeetako ikasketaburuen iritziak alderatzen hasten bagara. Errepikatu duten ikasleen kasuan, % 32 dira errepikatzeak inolako eraginik ez duela diotenak; iritzi hori agertu duten ez errepikatzailak, aldiz, % 17,9 dira. Datu horiek ikusita, esperientzia hori jasan ez duten ikasleek gertaera horren inguruko pertzepzio negatiboagoa dutela esan dezakegu.




2. Faktore akademikoen eta hezkuntza-arlokoen balorazioa

Bestalde, derrigorrezko hezkuntza-garaian ikaslearen ustez kalifikazioak nolakoak izan diren aztertuko dugu. Gai horren inguruko datuak lortzeko, lagineko ikasleei Lehen eta Bigarren Hezkuntzako notak beren ustez zuzenak edo bidegabeak izan diren galdetu diegu. Azterketa gehiago sakontzeko, ikasleak bi taldetan sailkatu ditugu. Alde batetik, egokitasun-egoeran dauden (errepikatu ez dutenak) ikasleen iritziak aztertu ditugu, eta bestetik, aldiz, gutxienez, ikasturte bat errepikatu duten ikasleenak.

➤ Derrigorrezko aldiko kalifikazioen balorazioa

Lehen eta Bigarren Hezkuntzako kalifikazioekiko dute adostasun mailaren inguruko iritzia emateko eskatu diegu ikasleei (DBHko 2. maila egiten ari direnei). Alde batetik, *ados* eta *erabat ados* erantzunen ehunekoak bateratu ditugu, eta bestetik, *ez ados* eta *erabat desados* diotenak.


Notekin ados eta ez ados daudenen ehunekoak



Oro har, ikasleek Lehen Hezkuntzan jaso zituzten kalifikazioak Bigarren Hezkuntzakoak baino zuzenagoak zirela uste dute. % 83ren ustez, derrigorrezko hezkuntzako lehen etapan soilik baloratu zituzten akademikoki behar bezala. Bigarren Hezkuntzan, kalifikazioak zuzenak direla dioten ikasleen ehunekoa % 10 gutxiagokoa da.

Gaia hobeto sakontzeko, derrigorrezko ikasketetan ikasturteren bat errepikatu behar izan duten edo errepikatu ez duten ikasleen arabera noten balorazioan alderik dagoen aztertuko dugu.

Ikasleen kolektiboen arabera, notekiko adostasun maila (%)



Ikasturterik errepikatu ez duten ikasleen artean, % 84 *ados* dago Lehen Hezkuntzako notak zuzenak izan zirela esatean. Gutxienez ikasturte bat errepikatu duten ikasleen artean, notak zuzenak izan direla dioten ehunekoa % 78ra gutxitzen da.

Bigarren Hezkuntzan lortutako notak zuzenak izan zirela uste duten galdetzen diegunean ikasleei, ikasturterik errepikatu ez duten neska-mutilen % 76,4 *ados* dago Bigarren Hezkuntzako kalifikazioak zuzenak izan zirela esaten. Ikasturteren bat errepikatu duten ikasleen kasuan, iritzi hori % 59k bakarrik du.

Bi hezkuntza-aldi horietan lortutako noten zuzentasunaren inguruko iritziak alderatzen baditugu, ikasle guztien ustez, Lehen Hezkuntzako kalifikazioak Bigarren Hezkuntzakoak baino bidezkoagoak izan zirela ikusiko dugu. Ikasturteren bat errepikatu duten ikasleen ehunekoak adierazten du bi etapa horietan desadostasun mailarik handiena; izan ere, % 19k uste du Lehen Hezkuntzako notak ez zirela zuzenak izan, eta Bigarren Hezkuntzakoak bidezkoak ez direla uste duten ikasle errepikatzaileen ehunekoa, berriz, % 36ra arte handitzen da.

➤ **Ikasleen kalifikazioak ikasturteko lehen bi ebaluazioetan.**

Irakaskuntzako profesionalen arabera, errepikatzearen aldeko argudioetako batek lotura zuzena du hobekuntza akademikoa lortzeko bigarren aukera ematearekin; lehen aipatu dugun ikerketaren batek ere (ikus Sarrera) errepikatutako ikasturtean emaitza hobekak lortzen direla aipatzen du.

Baina hori ez da ikerketa honen xedea; izan ere, ezin dugu honelako azterketarik egin, ez baititugu kalifikazioak eta ikasturtea errepikatzea eragin zuten gairak ezagutzen. Muga horiekin, ezin dugu baieztatu edo gezurtatu errepikapeneko urtean errendimendua hobetzen denik.

Edonola ere, ikasle errepikatzaileek curriculumeko lau ikasgaitan ikasturtearen lehen eta bigarren ebaluazioetan lortutako puntuazioak abiapuntutzat hartuta, hurbilketa modukoa egiten saiatuko gara: gaztelania, euskara, matematika eta natura-zientziak. Datu horiek, ikasleek galdetegietan emandakoak, errepikatu ez duten eta egokitasun-egoeran dauden ikasleek lortutako kalifikazioekin alderatuko ditugu.


- **Bi ebaluazioetan ikasgaien arabera gutxiegi kalifikazioa duten ikasleak**
1. ebaluazioan gutxiegi lortu duten ikasleen ehunekoa, ikasgaien arabera

	Ez du errepikatu	Errepikatu egin du *
Matematika	13,1	34,1
Euskara	12	32,7
Gaztelania	10	37,5
Natura Zientziak	8,6	35,8

* Errepikapena Lehen edota Bigarren Hezkuntzakoak izan daiteke.


Ikus dezakegun moduan, ikasturtea errepikatu duten eta lau ikasgai horietako edozeinetako lehen ebaluazioan gutxiegi nota lortu duten ikasleen ehunekoa % 30 baino handiagoa da. Egokitasun-egoeran dauden ikasleen % 10ek inguruk dio kalifikazio hori lortu duela.

1. ebaluazioan gutxiegi lortu duten ikasleak, ikasgaien arabera (%)



2. ebaluazioari dagokionez, nahiko maila lortu ez duten ikasleen ehunekoa lehen ebaluazioan baino apur bat altuagoa da ia ikasgai guztietan eta bi kolektiboetan. Lehen ebaluazioan bezalaxe, ikasturteren bat errepikatu duten eta suspenditu duten ikasleen kopurua sekula errepikatu ez dutenena baino altuagoa da.

2. ebaluazioan gutxiegi lortu duten ikasleen ehunekoa, ikasgaien arabera



- Bi ebaluazioetako kalifikazioen azterketa ikasgaien arabera

Egokitasun-egoeran dauden ikasleen eta noizbait errepikatu dutenen errendimendua alderatzeko beste irizpide bat lagineko ikasleak talde hauetan sailkatzea da:

- Errepikatu ez duten ikasleak
- Ikasturte bakarra eta Lehen Hezkuntzan errepikatu duten ikasleak
- DBHko 1. maila soilik errepikatu duten ikasleak
- DBHko 2. maila soilik errepikatzen ari diren ikasleak
- Lehen Hezkuntzako maila bat eta DBHko beste bat errepikatu duten ikasleak
- DBHko 2 maila errepikatu dituzten ikasleak

Ikasleek ikasturteko lehen bi ebaluazioetan lortu dituzten kalifikazioak gutxiagitik hasi eta bikainera arteko kalifikazioak dituzten ikasgai kopuruaren arabera sailkatu ditugu. Horri esker, hiru talde bereiz ditzakegu:


- 4 ikasgaiak suspenditu dituzten ikasleak, zailtasun handiak dituzte oraindik ere, ikasturte honetako ikasketetan porrot egiten ari direla eta laguntza orokorra beharko luketela uste da.
- 4 ikasgai horietakoren bat gainditu duten ikasleak; zailtasun batzuk dituzte oraindik ere eta ikasgai jakin batzuetan laguntza behar dute.
- 4 ikasgaiak gainditu dituzten ikasleak. Itxuraz, zailtasunik gabe eta, zenbaitetan, arrakasta akademikoarekin mailaren erritmoari jarrai diezaioketen ikasleak dira.

Ikasleen ehunekoa DBHko 2. mailako kalifikazioen arabera

	4 ikasgaiak suspendituta		4 ikasgaietakoren bat gainditu du		4 ikasgaiak gainditu ditu	
	1. ebal.	2. ebal.	1. ebal.	2. ebal.	1. ebal.	2. ebal.
Errepikatu ez duten ikasleak	2,1	2,2	24,2	27,3	73,7	70,5
Ikasturte bakarra eta Lehen Hezkuntzan errepikatu duten ikasleak	12,7	11,2	46,5	52,6	40,8	36,2
DBHko 2. maila soilik errepikatzen ari diren ikasleak	6,7	10,7	55	59,8	38,3	29,5
Lehen Hezkuntzako maila bat eta DBHko beste bat errepikatzen ari diren ikasleak	14,3	13	52,5	55,6	33,2	31,4
DBHko 1. maila soilik errepikatu duten ikasleak	8,2	17,4	70,1	58,9	21,7	23,7
DBHko 2 mailak errepikatu dituzten ikasleak	15,5	35,5	65,5	57,4	19	7,1

Hurrengo grafikoan ikus dezakegun moduan, ikasle gehienek kasuan, bigarren ebaluazioan lortutako kalifikazioak baxuagoak dira lehen ebaluaziokoekin alderatuta.

4 ikasgaietan gutxiegi atera duten ikasleak. (%)
DBHko 2. mailako 1. eta 2. ebaluazioa




2 ebaluazioetan 4 ikasgaiak suspenditu dituzten ikasleen ehunekorik altuena bi ikasturte errepikatu dutenena da.

Bigarren ebaluazioan, DBHko 2 mailak errepikatu eta 4 ikasgaiak suspenditu dituzten ikasleen ehunekoak % 36 artekoa da; hau da, lehen ebaluazioan baino 20 puntu gehiagokoa.

Lehen Hezkuntzan maila bat eta DBHn beste bat errepikatu duten ikasleen artean, % 14k inguruk lau ikasgaiak suspenditu ditu; dena den, % 30ek baino gehiagok 4 ikasgaiak gainditu dituela dio.

Gaur egun DBHko 2. maila errepikatzen ari diren eta orain arteko eskolatzean ikasturterik errepikatu ez duten ikasleak dira sekula errepikatu ez duten edo Lehen Hezkuntzan errepikatu zuten ikasleen ehunekoetara gehien gerturatzeko direnak. Ikasleen % 30 eta % 40 inguruk dio 4 ikasgaiak gainditu dituela, baina suspenditu dutenen ehunekoak nabarmen gainditzen dituzte egokitasun-egoeran dauden ikasleenak (2. ebaluazioan % 10,7 eta % 2,2).

4 ikasgaiak gainditu dituzten ikasleak



Kasu guztietan, 2. ebaluazioan 4 ikasgaiak gainditu dituzten ikasleen ehunekoak 1. ebaluazioan gainditu dituztenena baino baxuagoa da.

Arrakastako ehunekorik altuenak eskolaz osoan ikasturterik errepikatu ez duten ikasleek dira; hau da, egokitasun-egoeran daudenenak. Horien artean, % 2k inguruk suspenditu ditu 4 ikasgaiak; aldiz, % 70 inguruk gainditu ditu guztiak. Dena den, ezin dugu 2 ebaluazioetan 4 ikasgaiak suspenditu dituen eta, horrenbestez, porrota ekiditeko banakako arretarako neurriak hartzen ez bada egoera hori jasateko arriskuan dagoen ikasle % 2 hori minimizatu.

Lehen Hezkuntzan mailaren bat errepikatu duten, DBHko 2. maila errepikatu duten eta 4 ikasgaiak gainditu dituzten ikasle ehunekoak % 40 ingurukoak da. Hori dela eta, ikastetxek hartzen dituzten neurri osagarriek ikasle kasuan eragin positiboa dutela esan dezakegu. (Ikus II. eranskina)

➤ Ikastetxetik kanpoko laguntzak

Ikasleei jasotzen dituzten eskolaz kanpoko laguntzen inguruan galdetu diegu; eskola partikularrak, esate baterako. Galdera horren xedea laguntza horiek ikasleek zailtasun ekonomikoak izatearekin loturarik baduten eta eskola partikularretara joateak ikasle errepikatzaileen errendimendua hobetzen eraginik baduen ezagutzea da.

Lagineko ikasle inguruko datuak

Lagineko ikasleak	Ez du errepikatu		Mailaren bat errepikatu du	
	Kopurua	Ehunekoak	Kopurua	Ehunekoak
3.001	2.369	78,94	632	21,06

• Ikasgairen bateko eskola partikularrak

Curriculum-arlo bakoitzean eskola partikularretara joaten diren ikasle ehunekoak aztertzen baditugu, egokitasun-egoeran dauden ikasle ehunekoak handiagoak dela ikusiko dugu. Matematikan eta euskarari, adibidez, ehunekoak gutxi gorabehera bikoitza da.

Ikasgai bakoitzean eskolaz kanpoko laguntza duten ikasle ehunekoak

	Kop	Ikasle guztiekiko %	Ez du errepikatu laguntza duten ikasleekiko %	Errepikatzailea laguntza duten ikasleekiko %
Matematika	694	23,1	68,7	31,3
Euskara	456	15,2	66,9	33,1
Gaztelania	370	12,4	56,5	43,5
Natura Zientziak	318	10,6	59,1	40,9

Matematika da ikasleek eskolaz kanpoko laguntza jasotzen duten ehunekorik handiena duen ikasgaia. Lagineko ikasle % 23 joaten da ikasgai horretako eskola partikularretara.

Laginean bildutako datuak ikusita, ikasleek ikasgai batean edo gehiagoan jasotzen dituzten eskolaz kanpoko laguntzek ikasketak sendotzearekin suspenditutako ikasgaiak erreperatzearekin baino lotura handiagoa dutela ondorioztatu dezakegu. Izan ere, errepikatu ez duten eta eskola partikularretara joaten diren ikasle ehunekoak askoz ere altuagoak da ikasgai guztietan ikasturteren bat errepikatu dutenen ehunekoarekin alderatuta. Dena den, laguntza orokorragoek (lau ikasgaietarako eskola partikularretara joatea adibidez) lotura zuzenagoa dute ikasturteren bat errepikatu duten ikasleekin eta, horrenbestez, lehen suspenditutako ikasgaiak erreperatzearekin.

Ikasturteko lehen bi ebaluazioetako notak eskolaz kanpoko laguntzak jasotzearekin erlazionatzen baditugu, errepikatu duten eta bi ebaluazio horiek gainditu ez dituzten ikasleen ehunekoa ikasturterik errepikatu ez dutenena baino altuagoa dela ikusiko dugu.

Eskola partikularretara joaten diren eta 2 ebaluazioetan gutxiegi atera duten ikasleak (%)

	Ez errepikatzailea		Errepikatzailea	
	1. ebal.	2. ebal.	1. ebal.	2. ebal.
Matematika	26,9	34,5	35,6	37,9
Euskara	34,8	33,2	37,3	37,9
Gaztelania	28,5	30,8	43,5	41
Natura Zientziak	25,7	23	39,3	38,2

• **Eskola partikularrak lau ikasgaietan**

Lagineko ikasle guztiak kontuan hartzen baditugu, % 6,73 lau ikasgaietarako eskola partikularretara joaten dela esan dezakegu: matematika, euskara, gaztelania eta natura-zientziak. Ikasturterik errepikatu ez dutenen artean, % 4k jasotzen du laguntza orokorra, eta ikasturterik errepikatu ez duten ikasleen artean, ehuneko hori % 2,7koa da.

Eskolaz kanpoko laguntza orokorra duten ikasleak (4 ikasgaietan) (%)

Ikasleak, guztira		Ez du errepikatu		Errepikatzailea	
Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
202	6,7	121	4	81	2,7

Aipatutako lau curriculum-arloetan eskola partikularretara joaten diren eta, horrenbestez, orokortzat har dezakegun eskolaz kanpoko laguntza jasotzen duten ikasleen ehunekoa, era berean, bat dator ikasturterik errepikatu ez dutenenarekin.

3. Ikasle errepikatzaileak ikasturtea errepikatzearen inguruan egiten duen balorazioa


Ikasturteren bat errepikatu duten lagineko 632 ikaslek eman du iritzia errepikapenak hainbat alderditan ekarri dizkion eraginen inguruan: akademikoa, afektiboa, emozionala eta soziala. Gainera, ikasturtea errepikatu beharrean, beste alternatibaren bat nahiago izango zukeen aipatu dute.

Balorazio horiek garapen pertsonaleko alderdi ugarian sailkatu ohi dira bakoitzaren eraginaren arabera irizpide hauek aintzat hartuta:


- Historia akademikoan duten eragina:
 - Nire notak hobetu dira
 - Eskolak errazagoak iruditu zaizkit
 - Irakasleengandik laguntza handiagoa sentitu nuen
- Eragina garapen sozialean
 - Taldean integratuago sentitu nintzen
 - Lagun hobeak aurkitu nituen
 - Familiak laguntza handiagoa eman zidala sentitu nuen
- Eragina autoestimua pertsonalean
 - Lotsatuta sentitu nintzen
 - Neure buruan nuen konfiantza galdu nuen

Ikasturteren bat errepikatu duten ikasleek emandako informazioa grafiko honetan ageri da:

Errepikapenaren onuragarritasuna. Ikasle errepikatzaileak (%)



Errepikatu duten ikasle horien erdiak baino gehiagok errepikatzeari balorazio positiboa eman diola ikus dezakegu; izan ere, notak hobetzeko, integratuago sentitzeko, lagun hobeak topatzeko edo eskolak errazagoak izateko balio izan die. Errepikatu dutenen ehuneko txikiagoak aipatu ditu eragin negatibo hauek: lotsatuta sentitzea (% 36,9) eta norberaren buruan konfiantza galtzea (% 31).



Aurreko grafikoak, ikasturteren bat errepikatu duten ikasleen iritziak biltzen dituenak, aipatutako eragin positibo gehienek hobekuntza akademikoarekin eta garapen sozialarekin lotura dutela erakusten du. Izan ere, ikasleen ehuneko txikiagoak aipatu ditu autoestimua pertsonalean egindako balorazio negatiboa eta irakasleen laguntza sentitzea.

➤ Ikasturtea errepikatzearen alternatibak ikasleen ustez

Errepikapena beharrenean, beste aukeraren bat hautatu ahal izan balute zer lehentasun agertuko luketen galdetuta, % 42k errepikatzea ondo iruditzen zaiola erantzun du. Dena den, nahiz eta balorazio hori positiboa izan, gehiengoak, % 66,7k, dio ikasgelatik kanpo laguntza jasotzea nahiago izango zukeela, eta are ehuneko

handiagoak, % 77,2k, aipatu du ikasgela barruan banakako laguntza jasoz hurrengo mailara igarotzea nahiago izango zukeela.

Errepikatu beharrean, hau nahiago izango zuketean

	%
Ikasgelan laguntza izatea	77,2
Ikasgelatik kanpo laguntza izatea	66,7
Ondo iruditzen zait errepikatu izana	42,1

Ikasleen ehunekoa "Oso ados eta ados" maiztasunak batuta

Ikasturtea errepikatu duten ikasleen iritziak ikastetxeetako ikasketaburuek adierazitako alternatiba horiekin alderatu ditugu. Ikasturtea automatikoki igarotzearekin lotuta egon beharko luketen eta, beren ustez, errepikapeneraren baliozko alternatiba diren laguntzen inguruko iritzia eman dute ikasketaburuek. (Ikus II. eranskina)

Errepikapenerako baliozkoak diren alternatiben inguruan egindako azterketa alderatzailea egiteko, bi taldeek egindako baieztapenak irizpide honen arabera parekatu ditugu:

- Ikasturtearen promozioa ikasgela baitako laguntzarekin
- Mailaz igotzea ikasgela kanpoko laguntzarekin

Ikasketaburu ugarik aipatu du ikasturtearen errepikapenerako alternatiba baliagarri gisa ikaslea hurrengo mailara igarotzea banakako errefortzua eskainiz aldi berean. Hori ikasgela baitan egin daiteke beharrezko ikasgaiak egokituz, edo ikasgelatik kanpo, antzeko mailak edo egokitutako curriculumak dituzten ikasleen taldeak eratuz. Hurrengo tauletan ageri da aukera horiek aipatu dituzten ikasleen eta ikasketaburuen ehunekoa:

Nahiago dute mailaz igotzea ikasgela baitako laguntzarekin		%
- Ikasleak	- Ikasgelan laguntza izatea	77,2
- Ikasketaburuak	- Banakako errefortzua beharrezko ikasgaietan	68,2
	- Metodologia indibidualizatzaileak erabiltzea	40,2

Nahiago dute mailaz igotzea ikasgelaz kanpoko laguntzarekin		%
- Ikasleak	- Ikasgelatik kanpo laguntza izatea	66,7
- Ikasketaburuak	- Curriculum egokituko taldeak. Curriculum Dibertsifikazio erakoa.	65,2
	- Mailako edo zikloko talde homogeneousak	18,8

Bi taldeak nolabait bat datozela esan dezakegu. Apur bat altuagoa da ikasgela arruntean errefortzu indibidualizatuaren bidez laguntza ematearen aldekoak diren ikasleen (% 77,2) eta ikasketaburuen (% 68,2) ehunekoa. Era berean, altua da irakaskuntzako beste banakako metodologia batzuk nahiago dituztenen kopurua: % 40.

Txikiagoa da ikasgelatik kanpo laguntza jasotzea nahiago izango zuketean errepikatzaileen ehunekoa: % 66,7. Era berean, ikasgelatik kanpo ematen den laguntza-aukera nahiago duten ikasketaburuen ehunekoa apur bat txikiagoa da: curriculum-dibertsifikazioko curriculum egokia duten taldeak (% 65), eta askoz ere ehuneko txikiagoak, % 18k, adierazi du maila edo zikloaren arabera homogeneousak diren taldeetan laguntza ematearen aldekoak direla.

Hitz gutxitan esanda, zentroetako profesionalen taldeak eta ikasturtea errepikatzen esperientzia duten ikasleek aipatutakoaren arabera, errepikapenerako alternatiba ona da hurrengo ikasturtera igarotzea banakako laguntzak jasoz (batez ere, ikasgela arruntaren barruan jasotakoak).

Laburpena

DBHko 2. mailako ikasleen ongizate pertsonalaren inguruko iritzia

- DBHko 2. mailako ikasle gehienek uste dute ongizate maila ona dutela.
 - Ia % 85 dago ados bere bizimoduarekin eta bere buruaren balorazio ona du.
 - 10 ikasle 9k senideek ikasketetan animatzen dituztela uste du.
 - % 80k baino gehiagok dio etxean ulertzen dutela.
- Ikasturteren bat errepikatu duten ikasleen artean, adierazleen balioak errepikatu ez dutenenak baino apur bat baxuagoak dira:
 - gutxi gorabehera, % 75 pozik dago bere bizimoduarekin eta bere buruaren balorazio ona du.
 - % 83,1ek dio familiak ikasketetan animatzen duela.
 - % 75,5ek etxean ulertzen dutela uste du.

Errepikapenaren kausen inguruan

- Oro har, ikasleek errepikapena beren buruarekin lotutako barneko kausei egozten die; batez ere, ahalegin-gabeziari (% 78) eta interes-gabeziari (% 57).
- Eskola-sistemarekin lotutako aldagaiak neurri txikiagoan aipatzen dituzte kausa gisa. Ikasleen % 13k bakarrik uste du errepikapenerako kausa dela eskoletan irakasleen laguntzarik ez jasotzea, eta % 10ek uste du irakasleek ondo irakasten ez dutelako errepikatu ohi dutela ikasleek.
- Errepikatzaileek arrazoi edo egozpen berak aipatu dituzte.

Ikasturtea errepikatzearen eragin eta neurri horren baliozkotasunaren inguruan

- Ikasle gehienek ikasturtea errepikatzean alderdi positiboak ikusten dituzte.
 - % 79k uste du ez dakitena ikasteko balio duela.
 - Lagineko ikasleen erdiak uste du errepikatzean eskolak errazagoak direla eta irakasleek gehiago laguntzen dutela.
 - Ikasleen % 22k uste du ikasturtea errepikatzeak ez duela ezertarako balio. Errepikatu duten ikasleen kasuan, iritzi hori areagotu egiten da eta % 30ek aipatu du hori.
- Errepikatu duten ikasleek errepikapenak alderdi akademikoetan eta sozialetan eragin positiboak izan dituela uste dute, baina, era berean, autoestimurako negatiboa izan dela dio:
 - Gutxi gorabehera, errepikatu duten ikasleen % 60k uste du notak hobetzeko balio izan duela, talde berrian integratuagoak sentitu direla eta lagun hobeak egin dituztela.
 - Ikasleen % 30ek baino gehiagok uste du autoestimua pertsonalean eragin negatiboak izan dituela.
- Errepikatzaileen % 42 dago errepikapenarekin ados. Dena den, hiru laurdene baino gehiagok, % 77k, aipatu du hurrengo mailara igarotzea nahiago izango zukeela ikasgela barnean banakako laguntza jasota. % 66k uste du ikasgelatik kanpo laguntza jasotzea nahiago izango zukeela.

Ebaluazioetan lortutako kalifikazioen balorazioa

- Lehen Hezkuntza lortu zituzten notak Bigarren Hezkuntzakoak baino zuzenagoak izan zirela uste dute ikasleek. Jasotako kalifikazioekiko adostasun maila ikasturterik errepikatu ez dutenen taldean handiagoa da.
- Bildutako ikasgaietan (matematika, euskara, gaztelania eta natura-zientziak) ikasturteko lehen bi ebaluazioetan jasotako gutxiegi noten ehunekoa handiagoa da ikasturteren bat errepikatu duten ikasleen artean.
- 4 ikasgaietan eta bi ebaluazioetan gutxiegi nota izan duten ikasleen ehunekoa ikasturteren bat errepikatu duten ikasleen artean sei aldiz handiagoa da.
- Laginean parte hartu dutenen % 7k jaso ohi du laguntza orokorra; hau da, aztertutako 4 ikasgaietan eskola partikularretara joaten da. Errepikatu ez duten ikasleak neurri handiagoan joaten dira (% 4 dira; aldiz, errepikatzaileak, % 3).
- 4 ikasgaitarako baino gutxiagorako eskola partikularretara joatea ere egokitasun-egoeran dauden ikasleek maila handiagoan erabiltzen duten baliabidea da; beraz, eskola partikularrak neurri aringarria beharrean, prebentzio-neurria direla ondoriozta dezakegu.

4. CEI prestatuta duten ikasleek ikasturtea errepikatzearen inguruan egiten duten balorazioa

Jarraian ageri diren datuak Hezkuntza Behar Bereziak (HBB) dituzten eta beren curriculuma Curriculum Egokitzapen Indibidualizatuan (CEI) bilduta duten eta TIMSS 2007n parte hartu duten ikasleen ingurukoak dira. Ikasleak proba egitetik salbuetsita gera zitezkeen, baina ebaluazioan parte hartzeko eta, horrenbestez, ikerketa honen jatorria izan den galdetegia osatzeko aukera eskaini zitzaion.

Proba egin zuten 130 taldeetan CEI duten ikasleen kopurua 113 ikaslekoa zen, baina 60k bakarrik hartu zuten parte. Kopuru txikia den, eta CEI prestatuta duen eta HBBak dituzten DBHko 2. mailako ikasleak ordezkatzan ez dituen arren, ikasle horrek duen iritzia jasotzea ere interesgarria da.


Baliteke kontraesana ematea beren beharretara egokitutako curriculumarekin ikasketak egiten ari diren arren, CEI duten ikasleen ehuneko handiak errepikatu izana ikasturte bat edo gehiago. Ziurrenik ikasturtea curriculum-egokitzapena prestatu aurretik errepikatuko zuten edo agian derrigorrezko hezkuntzan beste bi urte emateko (hemezortzi urtera arte) aukeragatik, eta banakako erritmoa errespetatuz, oinarriko curriculuma egokitzeko denbora gehiago emateko aukera izateagatik.

CEI duten ikasle errepikatzaileen ehunekoa

Ez du errepikatu		Ikasturte bat errepikatu du		Bi ikasturte errepikatu ditu	
Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
19	32	26	43	15	25

CEI prestatuta duten ikasleek ikasturtea errepikatu behar izateko kausak zein diren galdetuta eman dituzten erantzunak aztertu eta curriculum arruntarekin ikasketak egiten ari diren ikasleek emandakoekin alderatu ditugu. Ehuneko horiek grafiko honetan ageri dira:

Errepikapenaren kausak. Ikasle arruntak eta HBBak dituztenak (CEI) (%)



Gainerako ikaskideekin gertatzen den moduan, CEI duten ikasleek uste dute errepikatzeko lehen kausa *ikasleak ez ahalegintzea* dela. Horren ondoren aipatu beharrekoak dira arrazoi hauek: *ez du eskolan irakatsitakoa ulertzen*; gainerako ikaskideekin alderatuta, esan beharrekoa da haiek arrazoi hori 5. postuan kokatu dutela.


Ikaslearen baitako beste egozpen batzuk. Adibidez: *aspertzea*, *aurreko ezagutzak ez izatea*, *portaera txarra irakasleekin gaizki moldatzen delako* eta *arazo pertsonalak*. Arrazoi horiek ez dira CEI duten HBBak dituzten ikasleentzat gainerako ikaskideentzat bezain garrantzitsuak.

Zailtasun akademikoak eta eskolako eta familiako testuinguruarekin lotutako arrazoiek, itxuraz, garrantzi handiagoa dute CEI duten ikasleentzat ikasle arruntentzat baino. Ikaslearen arazo pertsonalek ikasturtea errepikatzeak kausa moduan garrantzi erdia dute HBBak dituzten ikasleentzat.

Errepikatzeak zertarako balio duen galdetutakoan emandako erantzunak ikusita, CEI duten ikasleek ez daki/ez du erantzun esan dutenen ehunekoa gutxi gorabehera % 13koa da; hau da, lagin osokoa baino askoz ere altuagoa.


Ikasturtea errepikatzeari ikasleek ematen dioten onuragarritasunaren inguruko ehunekoak alderatzen baditugu, hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleak abantaila gutxien ikusten diotenak direla ikusiko dugu, *ez du ezertarako balio* erantzunaren kasuan izan ezik; kasu horretan, ehunekorik altuena dutenak ikasturteren bat errepikatzeak esperientzia bizi izan duten ikasleak dira.

Errepikatzeak zertarako balio duen, ikasleen ustez




Grafiko hauetan, *Lehen eta Bigarren Hezkuntzako notak zuzenak* diren galdetutakoan emandako iritziak alderatuko ditugu, CEI dutenak, errepikatzaileak eta ez errepikatzaileak berezita.

Lehen Hezkuntzako notak zuzenak izan ziren (%)




Bigarren Hezkuntzako notak zuzenak dira (%)



CEI duten ikasleen iritzia derrigorrezko eskolatzegaraian ikasturteren bat errepikatu dutenaren antzekoagoa da; dena den, jasotako notekin ados dauden ehunekoak baxuagoak dira CEI duten ikasleen kasuan. % 20 ez dago ados Lehen Hezkuntzan jasotako notak zuzenak zirela dioen baieztapenarekin; % 28k Bigarren Hezkuntzan jasotako notekin ados ez dagoela adierazi du.


CEI duten ikasleek ikasturtea errepikatzearen eta horrek arlo akademikoan eta alderdi afektibo-emozionalean dituen eraginaren inguruan duten iritzia grafiko hauetan ageri da zehaztuta.

Errepikapenaren eragin afektibo-emozionala ikasleen arabera (%)



Ikus dezakegun moduan, CEI duten lagineko ikasleen % 62k uste du ikasturtea errepikatzeak porrot-sentipena sortzen duela, eta % 51ren ustez, harreman berriak egiteko ahalegin handia eragiten du. Ikasle errepikatzaileen kasuan, ehuneko horiek % 65ekoak eta % 58koak dira, hurrenez hurren. Beste behin, ikasturtea errepikatu duten ikasleek eta CEI duten ikasleek antzeko erantzunak eman dituzte.

Hiru azpitaldeek beren bizimoduaren inguruan zer sentitzen duten azaltzeko emandako erantzunak alderatzen baditugu, maila kontuan hartuta, ehuneko hauek ikusten ditugu.

Ikasleen sentipena (%)

CEI duten eta egokitasun-egoeran dauden ikasleen datuak alderatzen baditugu, beren bizimoduaren inguruko asebetetzearen ehunekoak baxuagoak dira. Alderaketa ikasturteren bat errepikatu duten ikasleekin egiten badugu, ordea, ehunekoak antzekoagoak direla esan dezakegu. Dena den, apur bat baxuagoak dira banakako curriculum-egokitzapenean jasotako curriculumak duten ikasleen kasuan. Alderdi guztietan, asebetetze mailarik baxuena dute CEI duten ikasleek.

Laburpena**CEI duten lagineko ikasleen egoera (60 ikasle)**

- DBHko 2. mailara arte, CEI prestatuta duten lagineko ikasleen % 32k ez du ikasturterik errepikatu; % 43k maila bat errepikatu du eta % 25ek 2 aldiz errepikatu du ikasturtea.
- Bere bizimoduarekin oro har nola sentitzen den galdetuta, CEI duten ikasleen artean, % 68tik % 76ra arteko ehunekoak bere buruaren balorazio ona duela, etxean ulertzen dutela uste duela, bizimoduarekin pozik dagoela eta familiak ikasketetan laguntzen duela erantzun du. Ehuneko horiek hiru kolektiboak (egokitasun-egoeran daudenak, errepikatazaileak eta hezkuntza-behar bereziak dituztenak) kontuan hartuta baxuenak dira eta ikasturteren bat errepikatu duten ikasleek emandakoetatik gertuago daude.

Errepikapenaren kausen eta eraginaren inguruan

- CEI duten ikasleek, ikasle arrunten kolektiboak bezalaxe, errepikatzearen kausak, batez ere, norberarekin lotura dutenak direla uste dute, baina garrantzi handiagoa ematen diete zailtasun akademikoei.
- Edozein alderdi kontuan hartuta, errepikapenari onura gutxien ikusten dion taldea da. Horien iritzia ikasturteren bat errepikatu duten ikasleenaren antzekoagoa da ehuneko guztiak ikusita.
- Errepikapenak alderdi emozionalean duen eraginaren inguruan, aztertutako hiru kolektiboek esan dute ikasturtea errepikatzeak hurrengo ondorio hauek eragiten dituela, nahiz eta ordena desberdinean aipatu dituzten: porrot-sentipena, harreman berriak sortzeko ahalegina eta familiarekin arazoak.

Ebaluazioetako noten inguruan

- CEI duten ikasleen % 64k uste du Lehen Hezkuntzan lortu zituen notak zuzenak izan zirela; ehuneko txikiagoa duen arren, ikasturteren bat errepikatu dutenen antzekoa da ehunekoak. Bigarren Hezkuntzan ia 4 puntutan gutxitzen da lortutako notekin ados dauden maila, eta errepikatazaileen taldearen oso antzekoa da.

IV. ERANSKINA

2. DBHko IKASLEEN GALDE-SORTA


Ikastetxe zk.

--	--	--	--	--

IKERKETA

Ikasturtea errepikatzea Derrigorrezko Hezkuntzan

DBHko 2. mailako ikasleentzako
galde-sorta



ISEI•IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE
EVALUACIÓN

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA GALA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundearen (ISEI-IVEI) bidez, **IKASTURTEA ERREPIKATZEA**ri buruzko ikerketa-proiektua jarri du abian.

Azterketa hau egiteko garrantzitsua da ikasturtea errepikatzeak berekin ekarri ohi duenaren inguruko zure iritzia ezagutzea.

Eskerrik asko galdetegiari erantzuteagatik eta azterketa honetan esku hartzeagatik gaiaren inguruan dituzun iritzia emanaz.

ARGIBIDEAK

- ❖ Galde-sorta honetan jasotako erantzunak erabat isilpekoak dira eta ikerketa hau egiteko soilik erabiliko dira.
- ❖ Galdera gehienek lerro bakoitzean erantzun bakarra onartzen dute; beraz, biribildu zirkulu batekin aukeratutako laukiaren zenbakia. Nahastuz gero, zirriborratu erantzun okerra eta biribildu zirkuluarekin erantzun berria.
- ❖ Galderaren batean, gurutze bat edo gehiago egin beharko duzu.

Galdera hauek **ERREPIKAPEN**ari buruzkoak dira. Eman zure iritzia dagokion laukian.

1. Zure ustez, zergatik errepikatu ohi da ikasturtea?

(Irakurri aukera guztiak eta, jarraian, zure ustez garrantzitsuenak diren hiruretan gurutzea egin)

- a) Ikasleak ez du ahaleginik egiten.....
- b) Ez du ulertzen ikasgelan irakatsitakoa
- c) Aurreko maila batzuetako ezagutzak falta zaizkio.....
- d) Ez zaio interesatzen ikasgelan irakatsitakoa. Aspertu egiten da
- e) Ez du laguntzarik jaso ikasgelan galduta ez egoteko
- f) Gaizki moldatzen da irakasle batzuekin. Portaera txarra.....
- g) Irakasleek ez diote ondo irakatsi
- h) Ez du familiakoen laguntzarik izan ikasteko.....
- i) Arazo pertsonalak

2. Zure ustez, ikasturtea errepikatzeak hauetarako balio du... (Egin zirkulua ados zaudela edo ez zaudela ados agertzeko)

	Gutziz ados nago	Ados nago	Ez nago ados	Ez nago batere ados
a) ez dakizuna ikasteko	1	2	3	4
b) irakasleek gehiago lagun dezaten.....	1	2	3	4
c) lagun berriak egiteko	1	2	3	4
d) eskolak errazagoak izan daitezen	1	2	3	4
e) ez du ezertarako balio	1	2	3	4

3. Zure ustez, zer ekarri ohi dio ikasleari ikasturtea errepikatzeak?

	Gutziz ados nago	Ados nago	Ez nago ados	Ez nago batere ados
a) Ez du eraginik izaten harengan	1	2	3	4
b) Porrot-sentsazioa izatea eragin ohi dio	1	2	3	4
c) Lagun gutxiago izatea ekarri ohi dio.....	1	2	3	4
d) Ikaskide berriekin harremanak izateko ahalegina	1	2	3	4
e) Senideekin arazoak eragin ohi dizkio	1	2	3	4
f) Ikaskideen balioespen baxuagoa.....	1	2	3	4
g) Irakasleek balioespen baxuagoa izatea	1	2	3	4

4. Zer iritzi duzu zure noten inguruan?

	Gutziz ados nago	Ados nago	Ez nago ados	Ez nago batere ados
a) Lehen Hezkuntzan lortu nituen kalifikazioak zuzenak izan ziren	1	2	3	4
b) Bigarren Hezkuntzan lortu ditudan kalifikazioak zuzenak dira	1	2	3	4

5. Zer nota lortu dituzu ikasturte honetako bi ebaluazioetan ikasgai hauetan?

	1. ebaluazioa					2. ebaluazioa				
	Gu txiegi	Nahi koa.	Ongi	Oso ongi	Bikain.	Gutxiegi.	Nahi koa.	Ongi	Oso ongi	Bikain.
a) Matematika	1	2	3	4	5	1	2	3	4	5
b) Euskara	1	2	3	4	5	1	2	3	4	5
c) Gaztelania	1	2	3	4	5	1	2	3	4	5
d) Natura Zientziak.....	1	2	3	4	5	1	2	3	4	5

6. Joaten al zara eskola partikularretara ikasgai horietarako?

	BAI	EZ
a) Matematika.....	1	2
b) Euskara.....	1	2
c) Gaztelania	1	2
d) Natura Zientziak	1	2

7. Nola sentitzen zara, oro har?

	Gutziz ados nag	Ados nago	Ez nago ados	Ez nago batere ados
a) Neure buruaren balorazio ona dut	1	2	3	4
b) Pozik nago nire bizitzarekin	1	2	3	4
c) Senideek behar adina animatzen naute ikastera	1	2	3	4
d) Etxean ulertzen nautela sentitzen dut	1	2	3	4

Hurrengo hau ikasterren bat errepikatu baduzu soilik bete.

8. Zer ikasturte errepikatu duzu? (Egin biribila errepikatutako mailan edo mailetan)

Lehen Hezkuntzako

1. maila

2. maila

3. maila

4. maila

5. maila

6. maila

Bigarren Hezkuntzako

1. maila

2. maila

9. Zure ustez, baliagarria izan al da ikasturtea errepikatzea zure kasuan?

	BAI	EZ
a) Nire notak hobetu dira	1	2
b) Eskolak errazagoak iruditu zaizkit	1	2
c) Irakasleengandik laguntza handiagoa sentitu nuen	1	2
d) Ikaskide berrien artean lagun hobeak aurkitu nituen ..	1	2
e) Taldean integratuago sentitu nintzen	1	2
f) Familiak laguntza handiagoa eman zidala sentitu nuen	1	2
g) Lotsatuta sentitu nintzen	1	2
h) Neure buruan nuen konfiantza galdu nuen	1	2

10. Errepikatu beharrean, zer izango zenukeen nahiago?

	Guztiz ados	Ados nago	Ez nago ados	Ez nago batere ados
a) Ikasgelan laguntza izatea	1	2	3	4
b) Ikasgelatik kanpo laguntza izatea	1	2	3	4
c) Ondo iruditzen zait errepikatu izana	1	2	3	4


Eskerrik asko zure iritzia emateagatik.

V. ERANSKINA

IKASKETABURUARENTZAKO GALDE-SORTA

Ikastetxe zk.

--	--	--	--

Ikerketa**Ikasturtea errepikatzea
derrigorrezko hezkuntzan****IKASKETABURUARENTZAKO
galde-sorta****ISEI•IVEI**IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA**EUSKO JAURLARITZA**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETAKO GALA**GOBIERNO VASCO**DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundearen (ISEI-IVEI) bidez, TIMSS ebaluazioa jarri du abian. Bertan, zuen ikastetxeko DBHko 2. mailako ikasleen taldeak hartuko du parte. Aldi berean, ISEI-IVEIk ikasturtea errepikatzearen inguruko ikerketa jarri du abian emaitzak hobetzeko duen eragingarritasuna eta neurri horrek ikasleen arlo emozionalean dituen eraginak ezagutu ahal izateko.

Aipatutako ikerketa-lana egiteko, galdetegi hau prestatu dute zuen zentroko ikuspegitik abiatuta informazio esanguratsua bildu ahal izateko. Errepikatzea ikaslearen ikaskuntza-irakaskuntzako prozesuan eragin garrantzitsuak dituen neurria denez, gure helburua horrek dituen kausak eta eraginak ezagutzea da. Gainera, zuen zentroan neurri horrek duen erabilera eta ematen diozuen baliozkotasuna zein diren jakin nahi dugu.

ARGIBIDEAK

- ❖ Galde-sorta hau ikastetxeko Ikasketaburuaren kargua bere gain duen pertsonari zuzenduta dago.
- ❖ Galde-sortako galderei erantzutean, oro har, **zuen ikastetxeko DBHko ikasleak** hartu behar dituzu kontuan.
- ❖ Galde-sorta honetan jasotako erantzunak erabat anonimoak dira eta ikerketa hau egiteko soilik erabiliko dira.
- ❖ Galdera batzuk erantzuteko, hautatutako aukeran edo aukeretan gurutzea egin beharko da. Beste galdera batzuetan, baieztapenarekin duzun adostasun maila zehazten duen laukia biribildu beharko duzu.
- ❖ Okerren bat eginez gero, zirriboratu egindako gurutzea edo zirkulua eta zure ustez zuzena den aukera zehaztu berriro.

Adibideak:

..... ₁
 ₂

A. Ikasleak taldean emandako laguntza behar du.....

B. Ikasleak gelatik kanpo emandako laguntza bakarrik behar du

	Gutziz ados nago	Ados nago	Ez nago ados	Ez nago batere ados
A.	1	2	3	4
B.	1	2	3	4

Eskerrik asko zuen iritzia emategatik eta ikerketa honetan laguntzeagatik

1. Zure ustez, zein dira ikasleak zuen zentroan ikasturtea errepikatu behar izateko kausak gehienetan?

(Egin gurutztea zure ustez eragin handiena duten **hiru aukeretan**)

- Ikaslearen ahalegin-gabezia ₁
- Ikaslearen gaitasun-gabezia ₂
- Aurreko maila batzuetako ezagutzak falta zaizkio..... ₃
- Interes- eta motibazio-gabezia. Aspertu egiten da ₄
- Eskolak jarraitzeko zentroaren laguntza falta zaio..... ₅
- Portaera txarra du; gaizki moldatzen da irakasleekin..... ₆
- Irakasleek ez dituzte ikasgaiak egokitzen; talde osoari berdinean ₇
- Ikasketetan familiaren laguntza falta zaio..... ₈
- Arazo pertsonalak ₉

2. Zure ustez, ba al dago alderik ikasturtea errepikatu duten eta errepikatu ez duten ikasleen artean?

(Biribildu baieztapen hauen inguruan duzun adostasun edo desadostasun maila)

	Gutziz ados nago	Ados nago	Ez nago ados	Ez nago batere ados
A. Errepikatu duen ikaslea gutxiago baloratzen ikaskideek.....	1	2	3	4
B. Errepikatu duen ikaslea gutxiago baloratzen dute irakasleek.....	1	2	3	4
C. Errepikatu duten ikasleak besteak bezalaxe sentitzen dira	1	2	3	4
D. Irakasleek ondo ulertzen dituzte errepikatu duten ikasleak.....	1	2	3	4

3. Zure ustez, ikasturtea errepikatzeak zer eragin du ikasleen kasuan?

	Gutziz ados nago	Ados nago	Ez nago ados	Ez nago batere ados
A. Ez du eraginik	1	2	3	4
B. Nolabaiteko porrot pertsonalaren sentsazioa eragiten dio.....	1	2	3	4
C. Lagunak galtzea eragiten dio.....	1	2	3	4
D. Talde berrira egokitzeko arazoak sortzen dizkio.....	1	2	3	4
E. Familiarekin arazoak sortzen dizkio.....	1	2	3	4
F. Etiketa jartzen zaio betiko.....	1	2	3	4

4. Zuen zentroaren kasuan, ikasturtea errepikatzea honelako neurria da:

(Egin gurutzea beharrezkoak direla uste duzun aukeretan)

- Ohikoa..... ₁
- Ez oso ohikoa..... ₂
- Ahal den neurrian, ekiditen saiatzen gara..... ₃

5. Ba al dago zuen ikastetxean ezarritako irizpiderik ikasleek ikasturtea errepikatzearekin lotuta?

- BAI..... ₁
- EZ ₂

6. Zer profesionalek hartzen du parte ikasle batek ikasturtea errepikatu behar duen ala ez erabakitzeke garaian?

	Inoiz ez	Batzuetan	Askotan	Beti
A. Gainditu gabeko gaietako irakasleek soilik erabakitzerdute.....	1	2	3	4
B. Ikasturte-amaierako ebaluazio-saioan, ikaslearen irakasleen taldeak erabakitzen du.....	1	2	3	4
C. Orientatzailearen iritzia kontuan hartzen da.....	1	2	3	4
D. Familiaren iritzia kontuan hartzen da	1	2	3	4
E. Ikaslearen iritzia kontuan hartzen da.....	1	2	3	4

7. Gehienetan, zer neurri ezartzen duzue zuen ikastetxean ikasleak ikasturtea errepikatu behar izan aurretik?

- A. Ez dugu neurri berezirik hartzen.....

	Inoiz ez	Batzuetan	Askotan	Beti
B. Banakako errefortzua eskaintzen diogu.....	1	2	3	4
C. Edukiak egokitzen dizkiogu.....	1	2	3	4
D. Banakako orientazioko eta jarraipeneko plana ezartzen dugu	1	2	3	4
E. Banakako plana prestatzen dugu gainditu gabeko ikasgaiak izanda hurrengo ikasturtera igaro direnentz.....	1	2	3	4
F. Familiari informazioa ematen zaio zentrotik kanpo dagokion ikasgaietan lagun diezaion	1	2	3	4

8. Zer iritzi duzu ikasturtea errepikatzeak duen onuragarritasunaren inguruan?

	Gutziz ados nag	Ados nago	Ez nago ados	Ez nago batere ados
A. Ez da onuragarria.....	1	2	3	4
B. Ikaslearen errendimendu akademikoa hobetu egiten da.....	1	2	3	4
C. Hurrengo ikasturteko irakasleen lana errazten du...	1	2	3	4
D. Beste neurri osagarri batzuekin batera egiten bada soilik balio du.....	1	2	3	4

9. Zer iritzi duzu ikasturtearen promozio automatikoak duen onuragarritasunaren inguruan ikasleak ez duenean maila hori lortu?

	Gutziz ados nag	Ados nago	Ez nago ados	Ez nago batere ados
A. Ez da onuragarria, ezin dio erritmoari jarraitu.....	1	2	3	4
B. Ikaslearentzat positiboa da, bere erreferentzia-taldea baitago	1	2	3	4
C. Beste neurri osagarri batzuekin batera egiten bada soilik balio du.....	1	2	3	4

10. Ikasleak ikasturtea errepikatuko duela erabaki ostean, zer neurri osagarri hartzen duzue zuen ikastetxean?

A. Ez dugu beste neurri berezirik hartzen.....

	Inoiz ez	Batzuetan	Askotan	Beti
B. Orientazio eta jarraipen pertsonalerako plana ezartzen dugu	1	2	3	4
C. Gela barnean banakako arretarako neurriak biltzen ditu.....	1	2	3	4
D. Gelatik kanpo gabeziak dituen gai horietarako errefortzu-neurriak biltzen ditu.....	1	2	3	4
E. Talde berriarekin lan egiten dute ikaslea errazago egoki dadin.....	1	2	3	4
F. Ikaslearekin hitz egiten dugu sor daitezkeen zailtasunak ikusteko	1	2	3	4
G. Senideekin hitzartzen ditugu errepikatu beharreko ikasturterako jarraipen-neurriak.....	1	2	3	4

11. Zuen ikastetxean, ebaluatzen al duzue ikasle bakoitzaren arabera egokitutako ikasturtearen errepikapen-neurria egokia izan den?

BAI..... ₁

EZ..... ₂

12. Ikasturteren bat errepikatu duten ikasleekin lotuta, zure iritzia hau da:

– Oro har, haien egoera hobetu egin da..... ₁

– Oro har, berdin jarraitzen dute..... ₂

– Oro har, haien egoera okertu egin da..... ₃

13. Zure ustez, neurri hauetako zein litzateke alternatiba ona ikasturtea errepikatzeari dagokionez?

(Egin gurutzea zure ustez egokienak diren **hiru aukeretan**)

Mailaz igotzea:

- banakako errefortzua eskainiz beharrezko ikasgaietan ₁

– ikaslearen araberrako jarraipen-plan pertsonala prestatuz..... ₂

- mailako edota zikloko talde homogeenak antolatuz ₃

- indibidualizazioa ahalbidetzen duten ikasgelako metodologiak erabiliz .. ₄

- ikasturtearen hasieran ikasleei eman beharreko laguntza-beharrak

ebaluatuz..... ₅

- egokitutako curriculumak duten taldeak eratuz

(Curriculum Dibertsifikazio erakoak) ₆

14. Ezagutzen al dituzue zuen zentroan errepikapenaren eraginen inguruko ikerketak?

BAI..... ₁

EZ..... ₂

Zure informazioa oso erabilgarria da

ESKERRIK ASKO LAGUNTZEAGATIK

VI. ERANSKINA

TIMSS 2007 EBALUAZIOKO ERRENDIMENDU MAILEN TAULA

TIMSSeko errendimendu mailak. Zientzietako eta matematikako edukien garapena

Errendimendu mailak	Zientzietako edukiak	Matematikako edukiak
1. maila. Baxua (400 eta 474,99 puntu artean)	Ikasleak bizitzako eta fisikako oinarrizko gertakari batzuk ezagut ditzake. Giza gorputzari buruz zerbait badaki, eta eguneroko fenomeno fisikoekin nahiko ohituta dagoela agertzen du. Ikasleak adierazpen grafikoak interpreta ditzake eta ezagutzen dituen oinarrizko kontzeptu fisikoak aplikatu ditzake egoera praktikoetan.	Ikasleak badu zenbaki osoen eta hamartarren, eragiketen eta oinarrizko diagramen gaineko ezagutzaren bat.
2. maila. Ertaina (475 eta 549,99 artean)	Ikasleak gai ugari buruzko oinarrizko ezagutza zientifikoa ezagutu eta transmiti dezake. Animalien ezaugarriei, elikadura-kateei eta ekosistemetan populazio-aldaketen ondorioari buruzko ulermenaren bat agertzen du. Soinuaren eta indarraren arlo batzuekin ohituta dago eta aldaketa kimikoari buruzko oinarrizko ezagutzaren bat badu. Eguzki-sistemaren, Lurreko prozesuen eta ingurumenaren eta baliabideen oinarrizko ezagutza du. Ezagutzak aplikatu ditzake egoera praktikoetan eta dakiena transmiti dezake galdera labur eta deskribapenezkoetan.	Ikasleak oinarrizko matematikako ezagutzak egoera zehatzetan aplikatu ditzake. Zenbaki osoen eta hamartarren pauso bateko problema idatziak ebazteko batu eta biderka ditzake. Zatiki ezagunekin lan egin dezake. Lotura algebrako sinpleak ulertzen ditu. Triangeluen propietateak eta oinarrizko kontzeptu geometrikoak ulertzen dituela erakutsi du. Diagramak eta taulak irakur eta interpreta ditzake. Probabilitate-arloko oinarrizko kontzeptuak ulertzen ditu.
3. maila. Altua (550 eta 624,99 artean)	Ikasleak ziklo, sistema eta printzipio zientifiko batzuen kontzeptu mailako ulermena frogatu dezake. Kontzeptu biologikoei buruzko ezagutzaren bat du; prozesu zelularrak, gizakiaren biologia eta osasuna, eta ekosistemetan animalien eta landareen elkarrekiko harremana barne. Ezagutza aplikatzen du argiarekin eta soinuarekin lotutako egoeretan, beroaren eta indarren oinarrizko ulermena frogatzen du, eta materiaren egiturari buruz zerbait ulertzen du, baita propietate kimiko eta fisiko ta aldaketei buruz ere. Eguzki-sistemaren, Lurreko baliabideen eta prozesuen gaineko ulermenaren bat agertzen du, eta ingurumeneko gai nagusien oinarrizko ulermena. Ikasleak ikerketa zientifikorako gaitasun batzuk dituela frogatu du. Informazioa konbinatzen du ondorioak ateratzeko, taulatiko diagrametako informazioa interpretatzeko, eta ezagutza zientifikoak frogatuz azalpen laburrak emateko.	Ikasleak nahiko konplexuak diren egoera ugari ezagutza eta ulermena aplikatu ditzake. Zatikiak, hamartarrak eta ehunekoak kalkulatu eta erabil ditzake, integral negatiboekin eragiketak egin, eta proportzioak dituzten problemak ebazti. Ikasleak adierazpen algebrakoekin eta ekuazio linealekin lan egin dezake. Problema ebazteko propietate geometrikoei buruzko ezagutzak erabiltzen ditu, azalera, bolumena eta angeluak barne hartuta. Hainbat grafiko eta taulatik datuak interpreta ditzake, eta probabilitateko problema sinpleak ebazti.
4. maila. Aurreratua. (625 puntu edo gehiago)	Ikasleak frogatu dezake biologia, kimika, fisika eta natura-zientzietan buruzko kontzeptu konplexu eta abstraktuei buruz zerbait badakiela. Ulertzen du organismo bizien konplexutasuna eta haiek inguruarekin erlazionatzen diren. Imanen, soinuaren eta argiaren propietateen gaineko ulermena agertzen du, baita materiaren egituraren eta propietate fisiko eta kimikoen eta aldaketen gainekoa ere. Eguzki-sistemari eta Lurraren prozesuei eta ezaugarriei buruzko ezagutzak aplikatzen ditu eta ingurumeneko gaien oinarrizko ulermena du. Ikerketa zientifikoaren oinarrizko printzipio batzuk ulertzen ditu eta problema kuantitatibo batzuk ebazteko oinarrizko fisikako printzipioak aplikatu ditzake. Idatziz azal ditzake bere ezagutza zientifikoak.	Ikaslea gai da informazioa oinarri hartuta ondorioak ateratzeko eta antolatzeko, ohikoak ez diren problemak orokortu eta ebazti ditzake. Loturen, proportzioen eta ehunekoaren problema ugari ebazti ditzake. Loturen eta zenbakizko kontzeptu eta kontzeptu algebrakoen ezagutzak aplikatzen dituzte. Ikasleak orokortzeak modu algebrakoan adierazi eta egoeren ereduak egin ditzake. Geometriako ezagutzak aplikatu ditzake problema konplexuetan eta hainbat iturritako datuak atera eta erabil ditzake hainbat pauso dituzten problemak ebazteko.

400 puntu baino gutxiagok puntuaziorako, 1. maila baino baxuagoa den beste bat ere badago. Ez dugu maila hori taulan bildu, ikasleak maila horretan kokatzeko ezagutzak edo gaitasunak ez daudelako garatuta. Ez dakigu zertarako gai den; 400 puntu baino puntuazio baxuagoa lortu duten ikasleak maila baxuan (1. maila) kokatzeko beharrezkoak diren gaitasunetara ez direla iristen soilik erakusten du.

VII. ERANSKINA

BIBLIOGRAFIA

BIBLIOGRAFIAKO ERREFERENTZIAK

CARABAÑA, Julio (2008) "Las diferencias entre países y regiones en las pruebas PISA" (2008ko urriak 1) www.magisnet.com (kontsulta: 2008/10/14)

CENTRO DE INNOVACIÓN EDUCATIVA (CIE), Instituto de Evaluación y Asesoramiento Educativo (IDEA) (2004): "La situación profesional de los docentes"

CRAHAY M. (1996): *Peut-on lutter contre l'échec scolaire?*. Éditions De Boeck Université (3eme. édition 2007). Brusela.

EDUCATION QUÉBEC (2003): «Ouvrir toutes les portes de la réussite. Redoublement: mythes, croyances et solutions de remplacement» DASSC, septembre 2003. www.meq.gouv.qc.ca (kontsulta: 2007/02/13)

EIDE, E.R. and SHOWALTWER M.H. (1999): The effect of grade retention on educational and labor market outcomes. Paper presented at the Annual Meeting of the American Education Finance Association, March 17-20, Settle, WA.

EURYDICE (1993): *Exclusión social, fracaso escolar: los retos de la democracia en la comunidad europea*.

EURYDICE (1994): "La lucha contra el fracaso escolar: un desafío para la construcción europea" en CECA-CE-CEEA, Bruselas Luxemburgo, www.menweb.mineduacion.gov.co/ (kontsulta: 2007/02/19)

EURYDICE. (2006): *Las cifras clave de la educación en Europa 2005*. Comisión europea. Educación y Cultura. EUROSTAT.

EUSTAT. (2006) *Euskal Autonomia Erkidegoko Txosten Sozioekonomikoa*. Euskal Estatistika Erakundea. Eusko Jaurlaritzia.

FAGER, J., RICHEN, R. (1999): *When students don't succeed: Shedding Light on Grade Retention*. Northwest Regional Educational Laboratory.

GRISAY, A. (1984): "Les mirages de l'évaluation scolaire. Recensement en français, notes et échecs à l'école primaire" *Revue de la Direction de l'Organisation des Études*, XXII.

GRISSOM, J.B and SHEPARD L.A. (1989): *Repeating and dropping out of school*. In *flunking grades: Research and policies on retention*, ed. L.A. Shepard and M. L. Smith 34-63. Londres: Falmer Press

HOLMES C.T. & MATTHEWS, K. M. (1984). *The effects of Nonpromotion on Elementary and Junior High School pupils: A meta-Analysis*. *Review of Educational Research*, vol 54.

HOLMES, C.T. (1986): *A sintesis of research on nonpromotion: A five year follow-up*. Paper presented at the annual meeting of the American Educational Research Association, San Francisco, CA. (ERIC Document Reproduction Service No. ED 269 165)

HOLMES, C.T. (1990): *Repeating and dropping out of school*, en L.A. Shepard y M.L. Smith *Flunking Grades. Research and Policies on Retention*, Bristol, Palmer Press.

HUTMACHER (1993): *Quand la réalité résiste à la lutte contre l'échec scolaire*.

INECSE (2005) *Resultados en España del estudio PISA 2000*. Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa. Madrid

INSTITUTO CERVANTES (2002): *Marco común europeo de referencia para las lenguas: aprendizaje, enseñanza evaluación*. Consejo de Europa. Ministerio de Educación y Deporte (Anaya). Madrid.

ISEI-IVEI. "PISA 2003 ebaluazioaren bigarren txostena. Euskadiko emaitzak". www.isei-ivei.net

ISEI-IVEI. "PISA 2006 ebaluazioaren azken txostena." www.isei-ivei.net

ISEI-IVEI (2007) Ikerketa: Eskola uztea. DBHko bigarren zikloa. www.isei-ivei.net

ISEI-IVEI. "TIMSS 2007. Matematikako eta Zientzietako emaitzak Euskadin". www.isei-ivei.net

- JACKSON, G.B. (1975): The research evidence on the effects of grade retention. *Review of Educational Research*, vol. 45.
- JIMERSON, S., CARLSON, E., ROTERT, M., EGELAND, B., & SROUFE, L.A. (1997): A prospective, longitudinal study of the correlates and consequences of early grade retention. *Journal of School Psychology*, 35.
- LACASA, J.M. (2007): La repetición nos cuesta alrededor de 1.500 millones anuales. *Magisnet* (kontsulta: 2007/03/14)
- LANGEVIN L. et DUBÉ F. (1997): Croyances et pratiques d'intervenants en regard du redoublement au primaire, UQAM. Recogido en *Ouvrir toutes les portes de la réussite*. Education Quebec. 2003ko iraila.
- LOE: 2/2006 Hezkuntzako Lege Organikoa, 2006ko maiatzaren 3koa.
- MARCHESI A., HERNANDEZ GIL C. (2003): *El fracaso escolar: una perspectiva internacional*. Alianza editorial. Madril.
- MC COLLUM, P.A. CORTEZ, O.H., MAROEY and MONTES F. (1999): *Failing our children: Finding alternatives to in-grade retention*. San Antonio, TX: Intercultural Development Research Association
- MINISTERIO DE EDUCACIÓN Y CIENCIA (2006): Informe 2006 sobre los objetivos educativos y puntos de referencia 2010. Grupos de Trabajo para el seguimiento de los objetivos europeos y españoles 2010. Secretaria General de Educación. MEC
- MINISTERIO DE EDUCACIÓN Y CIENCIA. (2006): *Las cifras de la Educación en España. Estadísticas e Indicadores. Edición 2006 actualizada*. (Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren webgunetik hartuta: MEC/ Estadísticas/ educación/ Las cifras de la Educación en España. Estadísticas e Indicadores). <http://www.mec.es>
- MINISTÈRE ÉDUCATION NATIONALE FRANCAISE (2005): «Le redoublement au cours de la scolarité obligatoire: nouvelles analyses, mêmes constants». www.education.gouv.fr/stateval/dossiers (kontsulta: 2007/02/16).
- MINISTÈRE DE L'ÉDUCATION DU QUÉBEC (1991): *La réussite scolaire et la question de l'abandon des études: un résumé des plus récentes données disponibles*.
- MINISTÈRE DE L'ÉDUCATION DU QUÉBEC (1994): *Les pratiques du redoublement à l'école primaire: document de travail*.
- POULIOT, L. et POTVIN, P. (2000): *La puce à l'oreille au sujet du redoublement*. *Vie pédagogique*, n° 116, septembre-octobre 2000
- RIVIERE, R. (1991): «L'échec scolaire est-il une fatalité?» Editions Hatier. Paris
- SEIBEL, C. (1984) «Genèses et conséquences de l'échec scolaire: vers une politique de prévention» *Revue Française de pédagogie*, 67, pg. 7-28, 1984. Citado por Aletta Grisay "Repetir curso a adecuar el currículo" en Marchesi y Hernandez Gil. Op. Cit.
- SHEPARD, L.A. & SMITH, M.L. (1990): *Synthesis of research on grade retention*. *Educational Leadership*, 47.
- SHANE R. JIMERSON. (2001): *Meta-analysis of grade retention Research: implications for Practice in the 21st Century*. University of California. *School Psychology Review*. Volume 30.
- TORRES, R.M. (1995): *Repetición escolar: ¿falla del alumno o falla del sistema?*. Evaluación.
- UNICEF. (1995): *Aportes para la Capacitación*. Versión de la publicación "Repetition: a mayor obstacle to education for all". En *Education News*, n°12. New York, 1995eko apirila.